

Gipuzkoako  
Psikologia Elkargo  
Ofiziala



Colegio Oficial de la  
Psicología de  
Gipuzkoa

# TRATU TXAR MATXISTEN BIKTIMEN ARRETA PSIKOLOGIKORAKO GIDALIBURUA

---

Argitalpenaren koordinatzaileak:

**Mariángeles Álvarez García**  
**Ana M<sup>a</sup> Sánchez Alías**  
**Pepa Bojó Ballester**





Argitalpenaren koordinatzaileak:

Mariángeles Álvarez García

Ana M<sup>a</sup> Sánchez Alías

Pepa Bojó Ballester

Egileak:

Mariángeles Álvarez García

Ana M<sup>a</sup> Sánchez Alías

Pepa Bojó Ballester

Karmele Zelaiaran Miranda

Asier Aseguinolaza Chopitea

M. Teresa Azanza Azanza

Silvia Caballero Tena

Itzulpena:

Aldara Gil Aranburu

Diseinua:

Anne Amorebieta ([anneamore.com](http://anneamore.com))

2016. Gipuzkoako Psikologia Elkargo Ofiziala.

# AURKIBIDEA

## **I. MODULUA. AURKEZPENA ETA AURREGOGOETAK**

- AURKEZPENA
- GOGOETA OROKORRAK ETA LEGEDIA
- NOMENKLATURA
- LEGEDIAREN INGURUKO ESTEKAK

## **II. MODULUA. ESPARRU TEORIKOA: GENERO IKUSPEGIA INDARKERIAN**

- EREDU ESPLIKATIBOAK
- GENERO IKUSPEGIA
- GENERO-IDENTITATEAK

## **III. MODULUA. GENERO INDARKERIA**

- INDARKERIA MOTAK
  - FISIKOA, PSIKOLOGIKOA, SEXUALA, EKONOMIKOA
  - MIKROMATXISMOAK
  - INDARKERIA BESTE MOTA BATZUK
- INDARKERIAREN DINAMIKA
  - INDARKERIAREN ZIKLOA
  - HAUSTURA ERAGOZTEN DUTEN FAKTOREAK
  - AMODIO ERROMANTIKOAREN MITOA

## **IV. MODULUA. TRATU TXARRETIK TRATU ONERA**

- AHALDUNTZETIK EKINEZ
  - AHALDUNTZEA JARDUTE PSIKOLOGIKOAN
  - AHALDUNTZE PERTSONAL ETA ERLAZIONALEKO ADIERAZLEAK
  - AHALDUNTZE PERTSONAL ETA ERLAZIONALEKO PROZESUAREN HELBURUAK
- AMODIO-LOTURAK ETA BERDINTASUNEZKO ETA TRATU ONEKO HARREMANAK
  - AMODIO ERROMANTIKOAREN EREDUA ETA HONEN ONDORIOAK
  - BERDINTASUNEZKO ETA TRATU ONEKO HARREMANAK ETA AUTONOMIA SUSTATU

## **V. MODULUA. ESKU-HARTZE TERAPEUTIKOA**

- HELBURU TERAPEUTIKOAK
- PROGRAMA TERAPEUTIKOKO ESKU-HARTZEA
- ARTATUTAKO PERTSONEN SEME-ALABEI ARRETA

## **VI. MODULUA. IDENTIFIKATU BEHARREKO ALDERDIAK ETA BALORAZIO TRESNAK**

- TEST ETA GALDETEGIAK: LSB-50 eta EGEP.
- INDARKERIAREN INGURUKO EGITURATUTAKO ELKARRIZKETA
- VADS
- DIAGNOSI EBALUAZIO, LUZAPEN ETA ITXIERA TXOSTEN EREDUAK

## **VII. MODULUA. SINTESIA: JARDUNBIDE EGOKIAK**

- DATUEN BABESERAKO LEGEA ETA BAIMEN INFORMATUA
- JARDUNBIDE EGOKIETARAKO JARRAIBIDEAK ETA ESKU-HARTZEAN GENERO PERSPEKTIBA GEHITZEKO GOMENDIOAK.

## **BIBLIOGRAFIA.**

# I . MODULUA

## AURKEZPENA ETA AURREGOGOETAK

### AURKEZPENA

--

Indarkeria matxistaren biktimak artatzeko Gidaliburu hau, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Psikologia Elkargo Ofizialak 1993. urtean hitzarmendutako Arreta Psikologikoko Programaren esparruan, esku-hartze psikologikoari modu eraginkorrean ekiteko beharretik sortzen da, ekintza koordinatu, integral eta genero perspektibadunaren bitartez.

Indarkeria matxistaren biktimekin prozesu psikoterapeutikoetan esku-hartu behar duten psikologiako profesionalentzako kontsulta eta lan tresna baliagarria izan nahi du, baita balorazio eta esku-hartze psikologikoaren jardutean informazioa, bitartekoak eta erantzun profesionalak sistematizatzen lagunduko duen tresna ere.

Indarkeria matxistaren biktimen balorazio integralaren prozesua eta biktima hauetan indarkeria fisiko, psikiko zein sexualak duen eragina sistematizatzea du helburu, haren abordatze terapeutikorako.

Gipuzkoako Psikologia Elkargo Ofizialak, gizarteari psikologiaren eremuan eskaintzen zaizkion jardun profesionaletan ahalik eta kalitate handiena bilatzeko helburuarekin, Jardunbide Egokien berariazko lantalde bat sustatu du, gidaliburu hau sortzeko eta *Indarkeria matxistaren biktimak artatzeko Arreta Psikologikoko Programaren* bitartez lan egiten duten terapeutentzat prestakuntza sakoneko jardunaldiak burutzeko. Indarkeria matxista pairatzen duten pertsonen osasunaren kontrako eraginen abordatze terapeutikoaren eta genero berdintasunaren inguruko prestakuntza berezitua elkargokide guztien eta gaian interesatutako profesional guztien eskura jartzen da.

## GOGOETA OROKORRAK ETA LEGEDIA

Genero indarkeria munduko estatu guztietako emakumeek pairatu dezaketen gizarte errealitatea izan da, eta hala izaten jarraitzen du. Arazo global larria da, haren prebalentziaren zenbatekoarengatik zein biktimengan duen eraginaren larritasunagatik, izan ere emakume askoren bidezko nahi edo jomugetan oso modu kaltegarrian eragiten baitu, baita haien bizitzaren gaineko kontrol gaitasunean, haien, zein haien seme-alaben, osasun, duintasun eta bizi-raupena bera ere arriskuan jarriz.

Estatistikak argiak dira indarkeria matxistako gertakariak egunero jasaten dituzten emakumeen kopuru handia erakustean. Honek zera adierazten du; jatorria eta zergatia gizarte-egituran bertan, honen funtzionatzeko moduan eta emakume zein gizonen euren lekua esleitzean duen **gizarte arazo** baten aurrean gaudela.

Fenomeno honen azterketa hasteko orduan, zalantzarik gabe, zailtasun nagusietako bat prozesua ulertzea da. Sozialki, emakumearen aurkako indarkeria zuzenean baztertuta edota arazo pribatu gisa hartu izan da, etxearen intimitatean gertatzen zen zerbait, eguneroko bizitzaren parte zena eta soilik familikideei zegokiena. Nolabait, ezarritako ordena mantentzeko indarraren erabilera normalizatua, "naturalizatua", zegoen. Beraz, arazoa lau pareten artean ezkutatuta zegoen, **ikusezina** zen eta gutxi egin zitekeen hari zegokionez.

Ikusezintasun pribatu bat izatetik gai sozial bat izatera pasatzeko pausuak funtsezkoak

izan zen ziren fenomenoak testuinguru egokian kokatzeko. Horregatik, hasiera batean, gaiaren inguruan lan egiten genuenon esfortzuak batez ere **aurreiritziak, sinismen faltsuak edota jatorria pertsonalaren edota patologikoaren eremuan kokatu nahi zutenen profil edo estereotipoak desmuntatzera** zuzenduak egon dira.

Gogora dezagun egoera bat arazo sozial bezala onartzea komunitate batek edo influentziadun pertsonen onartzearekin lotuta dagoela. Bitartean emakumearen gizonarekiko diskriminazio eta mendekotasuna naturaltzat jotzen zen, tratu txarra eta abusua ez zen zigortzen. Emakumeen berdintasunaren erreklamazioaren inguruko feminismoaren aurrerapenak, kondizio zein posizioari dagozkionak, arazo honen onartezintasuna azaltzea, arautzea eta izendatzea lortu zuten: **tratu txarrak**.

**Kontu pribatu bat izatetik gai sozial bat izatera pasa izana funtsezkoa izan zen fenomenoak testuinguru egokian kokatzeko.**

Arazo sozial gisa definituta gelditzen den heinean, haren erazterako botere publikoen esku-hartzea inposatzen da, baita biktimen eskubideen aitorpena ere.

Nazio Batuen papera funtsezkoa izan zen igarotze honetan, batez ere mundu mailan berdintasun printzipioaren arabera emakumeen egoeraren ebaluazioa premiatu zuelako, baita prebentzio edo esku-hartze estrategien diseinua ere. Gaia legedi

zehatz bat sustatu zuten munduko biltzar desberdinetan landu zen.

1992. Emakumearen aurkako diskriminazio mota guztiak ezabatzearen inguruko Konbentzioa.

Emakumearen aurkako diskriminazio mota guztiak ezabatzearen inguruko Konbentzioan (CEDAW), 19. gomendioan, gobernuetuei emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko babes eta prebentziozko neurriak hartzera presatzen zaie, indarkeria hau beste diskriminazio mota bat dela kontsideratzen baitu. Gomendio hauek oraindik indarrean daude eta Konbentzioa emakume eta gizonen berdintasun egoera ebatzatzeko esparru-dokumentua da.

1994. Nazio Batuek

Hainbat Biltzar eta akordioen ostean, Nazio Batuek, Emakumearen aurkako Indarkeria Ezabatzearen inguruko Adierazpeneko 1. artikuluan, indarkeria kontsideratu behar den oro definitzen dute:

**"Emaitzatzat emakumearen kalte edo sufrimendu fisiko, sexual edo psikologikoa duen sexu femeninoa edukitzeari lotutako indarkeria ekintza guztiak, baita ekintza horiek burutzeko mehatxuak, bortxak edo askatasunaren gabetze arbitrarioak, bizitza pribatuan zein publikoan ematen direnak" (Nazio Batuek 1994).**

1995. Nazio Batuek IV. Mundu Konferentzian. Beijing

1995. urteko Mundu Konferentzian, Nazio Batuek jada emakumearen aurkako indarkeria berdintasun, garapen eta bake

helburuak lortzeko oztopo bat dela eta giza eskubide eta funtsezko askatasunak gozatu ahal izateari kalte egiten diola onartu zuten, lehen aldiz emakumeenganako indarkeriaren ekintzen ardura Estatuei egotziz.

Bere 113. parrafoan, Beijinggo Plataformak emakumeenganako indarkeria emaitza erreal eta posible bezala min fisikoa, sexuala edo psikologikoa duen indarkeria bezala definitu zuen, bizitza publiko zein pribatuko mehatxuak, hertsadura edo askatasunaren gabezia arbitrarioa barne hartuz.

118. parrafoan berariazko indarkeria honen jatorria xedatzen du: **«Historikoki berdintasunik gabeak diren gizon eta emakumeen arteko botere harremanen adierazpena da, gizonaren emakumearen gaineko menderatzera, bere guztizko garapenaren aurkako oztopoak jartzera eta emakumearen kontrako diskriminaziora eraman duten harremanena».**

Beijingo Ekintza Plataforma emakumeen eskubideen inguruan Nazio Batuetako Konferentzia batek burututako dokumenturik osoena da, aurreko konferentzia eta hitzarmenetan lortutakoa jasotzen baitu. Eztabaida genero kontzeptuaren inguruan ardaztu zen, kontzeptu hau kontutan hartuta gizarte egituraren eta emakume eta gizonen arteko harremanen berezko dinamikak birbalioztapenaren beharra onartuz.

2004. Espainia. 1/2004 Lege organikoa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzkoa.

Gure estatuan, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoak genero indarkeria

horrela kontzeptualizatzen du: **“emakume izate hutsagatik, euren erasotzaileek askatasun, errespetu eta erabakiak hartzeko eskubideak ez dituztela pentsatzen dutelako, emakumeek jasaten duten diskriminazioaren, desparekotasun egoeraren eta gizonen duten emakumeen gaineko menderatzearen adierazpen bat, ondorio bezala min fisiko, sexual edo psikologikoa duena”** (Lehendakaritza Ministerioa, 2004).

Garrantzitsua da lege integrala bikote edo bikote ohien testuinguruan ematen diren genero indarkeriako kasuetan ezartzen dela azpimarratzea (erasotzailea ezkonlaguna, ezkonlagun ohia, mutil-lagun edo mutil-lagun ohia edo senargai edo senargai ohia denean).

Baina gogoratu egin behar da botere harremanak eraikitzen dituen eta desparekotasunak iraunarazten dituen desoreka hau gune askotan ematen dela: kulturalak, publiko-instituzionalak, familiakoak, lanekoak, bikotekoak. Lorentek dioen bezala

(1998): *“Genero indarkeriaren era ohikoenak pertsonaren harremanen oinarrizko hiru eremutan adierazten dira: tratu txarra bikote harremanen barruan, eraso sexuala bizitza sozialean eta jazarpena lan inguruan”*. Indarkeria eremu estruktural, sozial, erlazional eta pertsonalean adierazten eta errepikatzen da.

Esandako guztia kontutan hartuta, emakumeen kontrako indarkeriaren kontzeptualizazio hau, gizon eta emakumeen arteko desparekotasunean oinarritutakoa, alderdi hauek gidatuko dituen marko kontzeptuala da: indarkeria honen ulerpena, esku-hartzea, emakumearen osasun psikologikoa berrezartzen lagunduko duten helburu nagusien zehaztapena eta berdintasunetik, zuzentasunetik eta elkarrekikotasunetik eraikitako harreman mota.

INDARKERIA PSIKOLOGIKOA	
<b>Ahozko indarkeria</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Askotan egiten dizu garrasi?</li> <li>2. Modu autoritarioan hitz egiten dizu?</li> <li>3. Iraindu egiten zaitu?</li> <li>4. Mehatxatu egiten zaitu?</li> <li>5. Xantaia egiten dizu?</li> <li>6. Barregarri uzten zaitu?</li> <li>7. Mespretxatu egiten zaitu?</li> </ol>
<b>Indarkeria Soziala</b> Hirugarren pertsonen aurreko ahozko tratu txarra edo tratu txar psikologikoa eta kanpo-harremanen kontrola	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Ikastea, lan egitea edo etxetik kanpo bakarrik gauzak egitea zailtzen dizu?</li> <li>2. Jeloskor eta posesiboa da?</li> <li>3. Arrazoirik gabe desleiala zarela leporatzen dizu?</li> <li>4. Zure lagunekin harremana edukitzeko gogogabetzen zaitu?</li> <li>5. Gaizki tratatzen al ditu zure senide, lagun edo zuk maitatzen dituzun pertsonak?</li> </ol>

# NOMENKLATURA

--

Aipatutako indarkeria honetan erabiltzen diren izendapen desberdinek, erreferentzia gertakari berdinari egiten badiote ere, alderdi desberdinetan jartzen dute enfasia. Horrela, hau izendatzeko moduaren arabera, indarkeria hori nola ulertzen den eta haren existentziaren **kausak** zeintzuk diren definitzen da.

Gipuzkoako Aldundiak 2014ko ekainean terminologiaren inguruan burututako dokumentuak adierazten duen bezala, nomenklatura desberdinek egoera, leku eta tratu txarren objektu-gorputz desberdinei egiten diete erreferentzia.

“Emakumeen aurkako indarkeria, dirudienez adostasuna sortzen duen kontzeptu deskriptibo oso erabilia da eta ulergarria da, indarkeria jasaten duen subjektuan jartzen baita enfasia; hala ere, izenean indarkeriaren kausak jasotzen ez direla eta, izendapena zalantzagarrria eta nahaspilatsua izan daiteke, emakumeek egoera desberdinetatik eratorritako indarkeria desberdinak pairatu ditzake eta. Alabaina, emakumeek jasaten duten indarkeria mota zehatz bat, generoa arrazoi duena, ikusiaraztea helburu zuten lehen gogoe-ta feministek sortutako kontzeptua da. Kontzeptua historia honen hasieran eremu instituzionaletan gehien erabiltzen ziren kontzeptuen aurka zeuden mugimendu feministetatik jaiotzen da ere, “etxeko indarkeria” edo “familia barruko indarkeria” bezalako kontzeptuak, indarkeria non ematen den adierazten zuten, baina ez zuten zehazten biktima nagusiak emakumeak zirela.

**Indarkeria Matxista** terminoa, esparru-kontzeptua izango da, zeinetan tradizionalki esleitutako generoen eskema apurtzen duten gorputzen gaineko indarkeria mota guztiak, gune fisiko eta sinboliko guztietan emandakoak, barne hartzen diren. Beraz, intersexualak, transgeneroak, transexualak, homosexualak eta lesbikoak diren horiek pairatzen dute, baita sexu/genero eskema tradizionala errepikatu nahi ez duten emakume eta gizonek.

**Indarkeria Sexista** terminoarekin edozein gunetan sexu/genero eskema tradizionalan emakume bezala sinbolizatutako gorputzek jasaten duten indarkeria forma guztiei egiten zaie erreferentzia.

**Genero indarkeria** kontzeptua erabiliko da indarkeria sexista, bere edozein formatan, bikote edo bikote ohiak gauzatzen duenean, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Oso-rako Neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoaren definizioarekin bat eginez.



# ESTEKAK

--

## **Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia (BJKN):**

Genero eta Etxeko Indarkeriaren kontrako Behatokiaren txosten, ikerlan, gida eta protokoloak. Hemen aurki daitezke:

[www.poderjudicial.es](http://www.poderjudicial.es) | [www.observatoriocontralaviolenciadomesticaydegenero.es](http://www.observatoriocontralaviolenciadomesticaydegenero.es)

## **Emakumearen aurkako diskriminazio mota guztiak ezabatzearen inguruko Konbentzioa. (CEDAW)**

1979. urteko abenduaren 18an Nazio Batuen Batzar Nagusiak bere 34/180 ebazpenean hartua.

[http://www.unicef.org/argentina/spanish/ar\\_insumos\\_cedaw.pdf](http://www.unicef.org/argentina/spanish/ar_insumos_cedaw.pdf)

[http://132.247.1.49/mujeres3/CEDAW2/docs/Recom\\_grales/19.pdf](http://132.247.1.49/mujeres3/CEDAW2/docs/Recom_grales/19.pdf)

**Europako Kontseiluaren Hitzarmena**, emakumearen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren kontrako prebentzio eta borrokarenen ingurukoa. Istanbul, 2011ko maiatzaren 11ean.

<http://www.boe.es/boe/dias/2014/06/06/pdfs/BOE-A-2014-5947.pdf>

**148/2007 Dekretua**, Irailaren 11koa, etxe testuinguruan tratatu txarren biktimak diren emakumeentzako harrera baliabideen arautzailea.

[www.euskadi.eus/bopv2/datos/2007/09/0705311a.pdf](http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2007/09/0705311a.pdf)

**Decreto 124/2008**, de 1 de julio, regulador de los puntos de encuentro familiar por derivación judicial en la comunidad Autónoma del País Vasco.

[www.euskadi.eus/bopv2/datos/2008/08/0804661a.pdf](http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2008/08/0804661a.pdf)

**Decreto 29/2011**, de 1 de marzo, sobre los mecanismos de coordinación de la atención a las víctimas de la violencia de género en la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

<http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2007/09/0705311a.pdf>

**124/2008 Dekretua**, uztailaren 1ekoa, auzitegi-deribazioaren bitarteko familia elkarguneen arautzailea Euskal Autonomia Erkidegoan.

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2008/08/0804661a.pdf>

**29/2011 Dekretua**. martxoaren 1ekoa, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko genero indarkeriaren biktimen arretarako koordinazio mekanismoen ingurukoa.

<https://www.euskadi.eus/r48-bopv2/es/bopv2/datos/2011/03/1101644a.pdf>

**264/2011 Dekretua**, abenduaren 13koa, honen bitartez Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren Euskal Behategia sortzen da eta honen funtzionamendu eta osaera arautpetu.

<http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2011/12/1106268a.pdf>

**Gipuzkoako Foru Aldundia**, (2014). Indarkeria matxistari, Gipuzkoako Foru Aldundian erabilitako terminologiari eta horren oinarria den azterketari buruzko agiria.

<http://berdintasuna.gipuzkoa.net/documents/73267/73649/Terminolog%C3%ADa-+Indarkeria+matxistaren+ar-loko+kontzeptuak/e3735ecc-9da2-413f-a476-f930a8bfc6f1>

**1/2004, Lege Organikoa**, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osoko Neurrien ingurukoa.  
<http://www.boe.es/boe/dias/2004/12/29/pdfs/A42166-42197.pdf>

**4/2005 Legea**, otsailaren 18koa, Emakume eta Gizonen Berintasunerako legea.  
<http://www.boe.es/boe/dias/2011/11/14/pdfs/BOE-A-2011-17779.pdf>

**3/2007 Lege Organikoa**, martxoaren 22koa, emakume eta gizonen arteko egiazko berdintasunerako legea.  
<http://www.boe.es/boe/dias/2007/03/23/pdfs/A12611-12645.pdf>

**1/2015 Lege Organikoa**, martxoaren 30ekoa, Zigor-kodeko martxoaren 23ko 10/1995 Legea aldatzen duena.  
<http://www.boe.es/boe/dias/2015/03/31/pdfs/BOE-A-2015-3439.pdf>

**4/2015 Lege Organikoa**, apirilaren 27koa, Delituaren biktimaren Estatutuarena.  
<http://www.boe.es/boe/dias/2015/04/28/pdfs/BOE-A-2015-4606.pdf>

**8/2015 Lege Organikoa**, uztailaren 22koa, haurtzaro eta nerabezaroaren babeserako sistemaren aldaketa.  
[http://www.observatoriodelainfancia.msssi.gob.es/documentos/boe\\_lorganica\\_spia.pdf](http://www.observatoriodelainfancia.msssi.gob.es/documentos/boe_lorganica_spia.pdf)

**Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioa (2006)**. Giza Eskubideen nazioarteko tratatu nagusiak.  
<http://www.ohchr.org/Documents/Publications/CoreTreatiessp.pdf>  
<http://www.unwomen.org/es/csw/brief-history>

**1917/2008 Errege Dekretua**, azaroaren 21ekoa, zeinen bitartez genero indarkeriaren biktima diren emakumeen lan-munduan txertatzeko programa onartzen den.  
<http://www.boe.es/boe/dias/2008/12/10/pdfs/A49367-49373.pdf>

**Osasunaren Mundu Erakundea (OME)**, (1998): "Emakumearen aurkako indarkeria",  
<http://www.who.int/frh-whd/vaw/infopack/spanish/violencia-infopack.htm>

**Osasunaren Mundu Erakundea (OME)** (1998): "Gender and health a technical paper".  
<http://www.who.int/frh-whd/gandh/ghreport/gendertech.htm>

**Osasunaren Mundu Erakundea (OME)** (1999): "Violence and injury prevention. Violence and health",  
<http://www.who.int/eha/pvi/infokit/women.htm>

**Emakume eta Gizonen Berdintasunerako VI. Egitasmoa**

[http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas\\_vi\\_plan/es\\_emakunde/adjuntos/VIPlan\\_final.pdf](http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas_vi_plan/es_emakunde/adjuntos/VIPlan_final.pdf)

# II . MODULOA

## MARKO TEORIKO KONTZEPTUALA: GENERO IKUSPEGIA INDARKERIAN

### AZALPEN EREDUAK

--

Denboran zehar, hainbat eredu desberdin izan dira emakumeek pairatzen duten sufrimenduaren ulerpena azaltzen eta kokatzen saiatu direnak:

**Buru isolatuaren Mitoa.**- Tradizionalki, burua eta buru gaixotasunak biologiaren ikuspuntutik eta ikuspuntu indibidualista batetik azaldu izan dira. Perspektiba honen arabera, pertsona bakoitzaren garapena haren konstituzio genetikoak determinatzen zuen. Naturala zena osasuna zen eta sufritzen zuten pertsonak buru-gaixoak ziren eta haien gaixotasunak euren konstituzio genetikoaren ondorio ziren. Pertsona modu isolatuan aztertu izan denez, ez zen kontutan edukitzen subjektu bakoitzaren sufrimendu psikikoa honek izan dituen eta dituen bizi baldintzen arabera dela.

**Emakumeen Masokismoaren Mitoa.**- Emakumeak sufriarazten dituzten harremanetan harrapatuta badaude euren konstituzio genetikoarengatik da. Emakumeak masokistak dira eta tratu txarra bilatzen dute harengadik onurak lortzen dituztelako.

Sadismoaren Mitoa.- Gizonek emakumeei tratu txarrak ematearen zergatia euren sexualitatean dagoela pentsatzen da, gizonezkoen sexualitateak erasozko osagai bat du. Emakumeen gaineko gizonen nagusitasun eta abusua determinismo biologikoaren interpretazioaren bitartez justifikatu izan da.

**Mendekotasun emozionalaren Mitoa.**- Termino honek tratu txarraren ondorioetako bat deskribatzen du eta ez haren kausa. Ikuspuntu hau oso arriskutsua da, izan ere emakumeek jasaten duten indarkeria berriro ezkutatzeko arriskuan eror baitgaitezke, eta, horrela, mendekotasuna emakumearen buruan modu isolatuan agertzen dela eta arduradun bakarra bera dela pentsatu. Horregatik, abusu eta tratu txarreko harremanaren emaitza bezala ulertzen dugu, biktimaren nortasun ezaugarriak kontutan hartu gabe.

Azalpen guzti hauek emakumeak birtraumatizatzen dituzte, ez baitaie azaltzen euren jarrera testuinguru batetan ematen dela eta sintoma hori desagertzeko bere bikotearekin mantentzen duen loturan aldaketa bat eman beharko dela.

Gipuzkoako Psikologia Elkargo Ofizialetik **eredu multifaktorialen** eremuan kokatzen gara, emakumeenganako indarkeriara daramaten arrisku-faktore desberdinak kontutan hartzen dituen. Horrela arazoaren ulerpenerako marko zabal edo marko “ekologiko” batetaz hitz egin dezakegu, haren jatorria generoen kontzeptualizazio patriarkalean eta gizartean emakumeak zuen balorazio edo posizio desberdintasunean kokatzen duena, horrela, nazioarte mailako ikerkuntza eta posizionamendu juridikoak jarraituz.


OMEk jada hau zioen bere 2002ko osasun eta indarkeriari buruzko azterlanean: **“Indarkeria faktore indibidual, erlazional, sozial, kultural eta inguruneko arteko elkarrekiko eragin konplexuaren emaitza da”**. Ikuspegi hau Bronferbrenner-en Eredu Ekologikoan (1979) oinarritutako dago - beranduago bio-ekologiko bezala definitu zuena (1999) - elkarrekin erlazionatzen eta elkar eragiten diren lau maila jasotzen dituen: maila soziala, komunitate-maila, familia-maila eta maila indibiduala.

Indarkeria matxistaren jatorria eremu sozial, ekonomiko, erlijioso eta politikoan dagoen emakume eta gizonen arteko botere harremanetako desorekari lotuta dago. Desoreka honek desberdintasunak eta emakumeen gaineko gizonen nagusitasuna sustatzen eta justifikatzen du, indarkeria desoreka hori mantentzeko, gatazkak konpontzeko eta emakumeen aldaketa eta aurrerapenei erantzuteko modu bat izanez.

Gure lanean ere hurrengo hauekin zerikusia duten faktoreak aurkitzen ditugu: emozio-estiloak, bulkaden kontrol gabezia, frustrazioarekiko tolerantzia gutxi edo tolerantzia eza, asertibitate gabezia, gatazkaren indarkeriazko aurre-egitea, familia-ereduak, faktore indibidualak eta bikote eta amodioaren inguruko mito eta itxaropenak. Guzti hau dago aurkitzen da, faktore indibidualak eta faktore sozialak, kasu bakoitzean modu desberdinez elkarri eraginez. Hala ere, ezin da ahaztu historia eta biografia pertsonalarekin zerikusia duten faktore hauetako asko jada hezkuntza eta eredu sexistengatik baldintzatuta daudela: heziketa emozionalak, afektibo-sexualak, genero isuri sakona du.

Baina faktore pertsonalek bakarrik ezin dute arazoaren nagusitasun eta unibertsaltasuna azaldu. Mundu osoan zehar emakumeak mendekotasunean, esplotazioan, ikusezintasunean, zapalkuntzan, indarkeriapean eta eskubide eta askatasunik gabe bizi dira eta, beraz, nagusitasun/sumisio harremanen gaineko analisi soziala egiten dugunean soilik begiratzen zaio arazoaren erroari.

Erasotzaile eta biktiman oinarritutako “arrisku-faktoreen” abordatze epidemiologiko klasikoaren aurrean, epidemiologia sozialetik eredu konplexuagoak proposatu dira. Heise-k **“marko ekologiko integratu bat”** proposatzen du emakumearen aurkako indarkeriaren ikerketa eta ezagutzarako.



<p><i>Emakumearen jarreraren gaineko gizonaren kontrola ziurtzat jotzen duten arauak.</i></p> <p><i>Indarkeriaren onarpena gizarte mailan, gatazkak konpontzeko bide bezala.</i></p> <p><i>Nagusitasunari, ohore eta erasoari lotutako maskulinitatearen nozioa.</i></p> <p><i>Genero rol zurrunik. Haien eta amodioaren inguruko sinesmenak.</i></p> <p><i>Legedi falta.</i></p> <p><i>Desparekotasunaren eta genero indarkeriaren legitimatzaile diren eredu kultural eta sozialak.</i></p>	<p><i>Pobrezia, estatus sozioekonomiko baxua, langabezia.</i></p> <p><i>Emakumeen isolamendu sozial eta familiarra.</i></p> <p><i>Talde biolentoen kide izan.</i></p> <p><i>Gizarte eta instituzioen laguntza gabezia.</i></p> <p><i>Komunitate sareen gabezia.</i></p>	<p><i>Bikote-gatazka.</i></p> <p><i>Amodio-gidoiaren ereduak: amodio erromantikoaren mitoa.</i></p> <p><i>Diruaren kontrola eta erabakiak hartzeak gizonak soilik.</i></p> <p><i>Komunikazio estrategia eta gatazka-konpoketa estrategia disfuntzionala.</i></p>	<p><i>Jatorrizko familian indarkeriaren lekuko edo biktima izan.</i></p> <p><i>Lotura toxikoko ereduak jatorrizko familian: ez dagoen aita, aldentze emozionala...</i></p> <p><i>Alkoholaren edo beste droga batzuen erabilera.</i></p> <p><i>Balio eta rol tradizionalen barneratzea (gizonaren nagusitasuna eta emakumearen gutxiagotasuna).</i></p>
-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

**Horregatik, erreferentziazko marko teorikoa genero ikuspegi batean oinarrituta egon behar dela uste dugu, eta hurbiltze honen baitan:**

**Genero indarkeria gizon eta emakumeen arteko desparekotasunetik dator, gizona bizikide duen emakumearen gainetik dagoela, bere jabetzakoa dela eta gizonak nahi duen bezala tratatu dezakeela oinarri duen eta kultura gehienek sustatzen duten sinesmenaren ondorio izanez. Nagusitasun hori finkatzeko modua da, beraz genero indarkeria ez da berez helburu bat, kontrol sozial eta dominaziorako tresna bat baizik.**

Desparekotasuna gizon eta emakumeen KONDIZIO eta POSIZIO desberdinaren bitartez adierazten eta ikustarazten da. **Kondizioak** emakume batek duen egoera materiala hartzen du kontutan, haren pobrezia edo erosteko ahalmena, hezkuntza edo gaikuntza gabezia edo ez, lan zama, lanpostuetarako eta teknologiarako sarbide zailtasuna, hau da, bere bizi baldintzak. **Posizioak** hartzen duen lekua du kontutan: bere rola familian, gizartean eta kulturean, botere ekonomiko eta politikoan, bere ikusgaitasun soziala, lidergoa, adierazgarritasuna, erabakiak hartzeko gaitasuna eta ekitatea. Hitz batean, botere edo sumisio posizioa.

Desparekotasuna, sozializazio prozesua dela eta barneratzen ditugun eta emakume eta gizon bezala eraikitzen gaituzten (identitate femenino eta maskulinoen arabera) balio eta sinesmen sozialen bitartez dago barneratuta.

Miguel Lorenterentzat (2003) genero indarkeria gainontzeko erasoetatik desberdintzen duten ezaugarri bereizgarriak aurkezten dituen jarrera mota da: bidegabeko kausa edo kausa hutsalengatik aktibatzen da eta harremanean autoritatea zeinek duen agerian jartzea du helburu. Hasiera batean zauritzea ez da helburua, baizik eta menderatzea, beraz erasotzaileak bilatzen duena bere agintea argi uztea da. Jarrera honen helburua beldur eta ikara barneratuz irakastea da, horrela etorkizuneko mehatxuak eraginkorrago bihurtuz.

Indarkeria mota honek jatorri eta oinarria ezarritako ordena soziala zehazten duten arau eta balio soziokulturaletan duenez, balio-eskala jakin bat mantentzeko eta menderatzea eremu pribatura eramateko eta hari normaltasun izaera bat emateko sortzen den egiturazko indarkeria dela esan dezakegu.

Emakumeenganako erasoak, ikusten ari garen bezala, ez dira ezaugarri berezi batzuei egotzitako gertakari isolatu bezala aztertu eta ulertu behar, gertakari desberdinen bitartez gizon eta emakumeen arteko desparekotasun soziala mantentzen laguntzen duten ekintzak baitira. Emakumearen mendekotasunerako mekanismoa da, beraz, menderatze maskulinoaren statu quo-a mantendu eta errepikatze balio duena, eta gizon eta emakumeen arteko botere harremanak zehazteko eta iraunarazteko modu bat, eredu sozial baten barruan agertzen dena: Patriarkatuan.

**Eredu patriarkalak** egitura hierarkikoak sortzen ditu familian, gizartean, klase eta talde etnikoetan eta abarretan, pertsona batzuen gaineko beste batzuen nagusitasunean sinisten baita. Honek aberastasunaren, boterearen, ondare materialen, eskubide eta aukeren eta abarren banaketa desberdina dakarrena, lehen desparrekotasunetik hasiaz, jaiotzatik dugun sexuaren arabera dena eta non nagusi dena balio maskulinoak diren.

Luis Rojas Marcos-ek (1996) gure elkarbizitzaren izaera patriarkala eragin duten elementuak nabarmentzen ditu: erlijio monoteisten agerpena; gure oinarri kulturala diren filosofoen ekarpenak, Aristoteles bezala, emakumeak arrazoitzeko gaitasun gutxikoak eta gizon mutilatutzat zituena; sinesmen kaltegarri asko eraitsi ez dituen zientziaren ondorengo garapena; gure pentsamendua hedatzen duen hizkuntza, onerako ez diren esaeretan gauzatzen dena; denboran zehar ezarritako eta eutsitako erabilera eta ohiturak, etab.

**Botere harremanak.** Gizarte patriarkal honetan harreman eredu nagusitasun-sumisioarena da, botere harremanak deritzoguna sortuz, harreman guztietan pertsona guztien artean, egitura guztietan eta, batez ere, gizon eta emakumeen arteko harremanetan irudikatzen direnak, zehazkiago bikote harremanetan, hauetan emakumeenganako tratua txarra forma anitzetan adierazten den botere horren adierazpen argia da. Botere eta nagusitasun posizio hau gaur egun arte gizon eta emakumeen arteko harreman forma "natural" gisa baimendu da. Ideologia patriarkalak eta erakundeek gizonari indarra kontrol tresna bezala erabiltzea baimentzen diote, abusua salatua ez izatera eta biktima errudun eta arduradun sentitzera daramana.

Botere harreman hauen espresioa aldatzen joan da denboran zehar haren adierazpen moduari dagokionez, horrela gaur egun nagusitasun-sumisio espresioak gaitzespena sortu ohi du eta baliteke harekin bat etortzen ez den jendea egotea, baina, funtsean, argi dago indarrean jarraitzen duela eta gure eremu guztietan errepikatzen dela. Kontrol eta abusu harremanak dira, beste pertsonen aurrean nola kokatzen garen erabakitzen dute eta harremanak aurka egiteko edo neurtzeko gune bezala ikustea suposatzen dute, non bestearekiko erreferentziagatik definitzen garen. Ez dira gune solidarioak, ez berdintasunezkoak ez ongizate sotzaileak; aitzitik, bidegabekeria, mina eta indarkeriaren sortzaile dira.

Mendekotasun femeninoaren beharraren inguruko sinesmen hauek mendeetan zehar hedatu dira, oinarrizko hiru suposizio hauetatik abiatuz: emakumeen ustezko gutxiagotasun moral, intelektual eta biologikoa. Eta kredo erlijiosoan (erlijio monoteistak batez ere) zein postulatu sasizientifikoaren konplizitatea eduki dute.

Logika honen barne, jabetzaren kontzeptua agertzen da: emakumea gizonaren jabetza da, eta honek emakumearen gaineko eskubide emozional, legal eta fisiko-sexuala du, gizonezkoen babesa behar duen behe-mailako izakitzat hartuz.

Gizon eta emakumeen ikuspegi honek eta gizartean izango duten paperaren inguruan espero denak DESPAREKOTASUNA naturalizatzen du: balio desberdina, eskubide eta abantaila desberdinak. Horregatik indarkeria desagerrarazteko bitartekoa edozein arraza, adin eta baldintzako gizon eta emakumeen artean eta maila guztietan berdintasuna bermatzen duen gizartera iristeko lana da.

Desparekotasunak genero eta sexualitatearen eraikuntza sozialean eragina du eta eraikitzen dugun subjektibotasunean, gizon eta emakumeen harreman intimoetan, euren munduan “egote” eta kokatze horretan eta bakoitzak bere buruaz eta besteekiko duen kontzeptuetan eragin sakona du; horregatik, emakumeen gaineko gizonen indarkeria ulertzeko, barneratutako eta onartutako desparekotasun eta rolak aztertu behar dira eta generoen eta harreman sexualen berdintasuna laguntzen duten arau eta jarrerak ezarri, haur eta nerabeetatik hasita.





## GENERO IKUSPEGIA

--

Generoaren kontzeptuarekiko erreferentzia funtsezkoa izan da indarkeria matxista eta nagusitasun-sumisio harremanak nola errepikatzen eta justifikatzen ditugun ulertzeko. Horregatik, garrantzitsua da generoaren kontzeptuan, sexu/genero sisteman eta konstruktu hauek nola barneratzen ditugunaren inguruan sakontzea eta haiek ulertzea.

Gaur egun, sustraiak egitura soziala sexu-generoaren arabera antolatzeko modu berrietan dituen problematika baten aurrean gaudela onartzen da eta, ondorioz, gizarteko sektore guztiak barne hartzen ditu: judiziala, osasuneakoa, hezkuntzakoa etab. Arazoa bitzta pribatuaren berezko zerbait zela pentsatzeari utzi eta giza-arazotzat hartze-ra pasa izana oinarrizkoa izan da hura eszenatoki egokian kokatu ahal izateko, hau da, mundu mailan emakumeen egoera ebaluatu berdintasun printzipioari dagokionez. Pentsamolde aldaketa honek, botere publikoen esku-hartzea sustatzeaz gain, biktimen eskubideen aitortzea sustatu du.

Herri, kultura eta egoera desberdinetan emakumeek jasaten dituzten diskriminazio guztien artean, genero indarkeria larrienetako, iraunkorrenetako eta orokortuenetako bat da.

Clara Murguialday eta Norma Vázquez-en arabera (2005), mugimendu feministak, emakumeen erakundeak, erakunde publikoak eta nazioarte mailako erakundeak bat datoz indarkeria mota honek hurrengo hauek betetzen dituela onartzean.

- Emakumeen bizi-ziklo osoan zehar ematen da.
- Arraza, kultura, etnia, klase eta erlijio guztietan agertzen da.
- Hura jasaten duten emakumeengan ondoez psikologikoko ondorio gogorrak ditu.
- Eremu legegilearen eta administratiboaren esku-hartzea justifikatzen ez duen arazotzat dute egungo legedi gehienek.
- Estatu askok ez du hartaz arduratzeko nazio mailako politikarik eta, badaudenean, ez dute haiek bideragarri egiteko aurrekontuko partidarik.

Genero kontzeptuaren aurrekari intelektuala **Simone de Beauvoir**-en 1949. urteko bere “Bigarren sexua” azterlanean eta “**emakumea ez da emakume jaiotzen, bilakatzen baizik**” bere esaldi ospetsuan aurkitzen da, bilakatze hori ez da sexua zehazten duten baldintza biologikoen bitartez izango, prozesu indibidual eta sozial baten bitartez baizik. Hemendik aurrera, akademiko feminista anglosaxoiak dira, 70. hamarkadan, frantziar filosofoaren proposamen intelektuala sistematizatu eta hura genero kontzeptuan gauzatu dutenak. Kontzeptua gizon eta emakumeen jokoera, jarrera eta sentimenduen eraikuntza soziokulturari lotuta erabiltzen hasi zen. Kontzeptualizazio honi esker, ustezko “emakumearen behe-mailako izaera”-ri buruzko sinesmenak gainditu ahal izan ziren.

Psikologiaren ikuspuntutik, Money eta Stoller izan ziren genero kontzeptuaren sartzailleak, pertsona transexualekin egindako azterlanaren bitartez.

Genero kontzeptua azaltzeko ardu-za izandako lehen antropologoetako bat **Gayle Rubin** (1975) izan zen, zeinek emakumeen zapalkuntzaren kausak aztertzen zituen, genero hierarkiarik gabeko gizarte batetara iristeko aldatu beharreko elementuak zeintzuk liratekeen ezagutzeko helburuarekin.

Rubin-ek (1984) **sexo/genero sistema** desparekotasunezko harreman sozialen bitartez sexu eta giza ugalketa gizon eta emakumeentzako debeku, betebeharrak eta eskubide bereizgarrien sistema batean bihurtzen dituen modu bezala definitzen du, hau da, sexua eta ugalketa esku-hartze

sozialak osatzen ditu eta modu konbentzionalean betetzen dira.

**Sexu/genero sistemak sexua** - hau da, biologikoa dena - generoarekin, soziala denarekin, parekatzen du eta ezaugarri batzuk maskulinoak eta beste batzuk femeninoak direla zehazten du, zenbait ekintza emakume edo gizonentzat aproposak direla dio, hainbat arau ipintzen dizkie gizon eta emakumeen arteko harremanei eta eguneroko bizitzaren baldintzak eta gizartean gizon eta emakumeek hartu beharreko posizioa zehazten ditu.

Sistema honen jatorria hurrengo haue-  
tan dago: **lanaren sexuaren arabeko banaketan** - produktiboa eta ordaindua gizonentzat eta ugalketari dagokiona eta ordaindu gabea emakumeentzat - eta mundua bi **gunetan hierarkizatzean, publikoaren eta pribatuaren eremua** desberdinduz, emakumeak etxean gordez eta gizonaren menpeko eginez.

Mendeetan zehar indarrean egon zen sinesmena gizon eta emakumeek erakutsitako ezaugarri hauek – maskulino eta femeninoaren inguruko balio eta ideiak (emakumeak izaki emozionalak/gizonak izaki arrazionalak) zein jardute, jarrera edo portaera jarraibideak barne hartzen zituztenak- **natural eta aldaezinak** zirela zen, desberdintasun biologikoen edo jainkozko ordenak zehazten zituztelarik.

Aitzitik, generoaren teoriak sexuari egokitutako ezaugarri sozialak ikasitakoak direla esaten du.

## **Analisi honen bitartez bi alderdiak bereiz ditzakegu:**

**Sexua:** ezaugarri fisiko eta biologikoak eta ugalketarekin lotutako egiturak, biologikoki gizakiak ar edo heme bezala definitzea ahalbidetzen dutenak. Kategoria biologiko bat da. Sexu kromosomikoa, sexu genital eta sexu hormonalaz hitz egiten da.

**Generoa:** Sexu biologikoaren baitan pertsonen egokitutako ezaugarri sozial, kultural eta psikologikoen multzoa. Pertsonen identitatea egituratzen duen eta munduan gizon edo emakume bezala kokatzen dituen kategoria soziala da, munduaren ikuspegia, jarrera moduak, harremanak etab. antolatzen ditu.

Emakume eta gizonak nola eraikitzen garen, zer den femenino eta zer den maskulino definitzen duten sexu bakoitzari egokitutako arau, lege, sinbolo, tradizio, agindu sozial eta portaera moduen multzoa da.

Generoaren kontzeptua funtsezkoa izan zen argitasuna ekartzeko, ezaugarri batzuk besteetatik bereizteko eta euren izaera soziala ikusi ahal izateko, hartua den izaera eta, beraz, alda daitekeena, sexu biologikoari immanentea ez dena.

Genero terminoa sexuarena baino zabalagoa da, femenino edo maskulinoa denari egokitzen zaizkion ezaugarri soziokulturalak barne hartzen baititu. Egia da ezaugarri batzuk bereizgarri sexualetatik etor daitezkeela, baina generoak moldatu egiten du, hierarkizatu egiten du eta balioa ematen dio ezaugarri horri. Adibidez, amatasuna emakumean nortasun-bereizgarri unibertsal bihurtzen da (eztabaidatu ezin

daitekeena) eta zainketarako gaitasuna bakarrik femeninoa den zerbait bezala justifikatzen du, maite diren guztiei, edozein adinekoak, luzatuko dena, denboran luzatuko den eta jatorrizko ezaugarri batekin nahastuko den sakrifizioetik maitatzeko modua errepikatuz.

Beste adibide bat gorputz txikiak (fisikoa den zerbait) makaltasunarekin, ahultasunarekin erlazionatzen direla litzateke, maskulinoa denari, indartsu eta kementsua dena, lotutako hainbat ekintza burutzeko ezintasuna justifikatuz.

Gure genero sistemak bi taldetan biltzen ditu subjektuak: femeninoak eta maskulinoak. **Barne hartze eta baztertze** sistema bat da: alde batetik homogeneizatu egiten du, bestetik banatu egiten du eta horrela talde bakoitza bestearen ezaugarrien ukapenaren baitan definitzen da; emakumea bazara ez zara gizon, eta alderantziz. Ezaugarriak osagarritzat hartzen dira, ez dira partekatzen. Beraz, gizona bazara ezin dituzu bereizgarri emozionalak eduki eta edukitzekotan, zure “matxo” izaera zalantzan jarriko da, beste generoaren ezaugarri bat azaltzeak pertsonaren sexu-identitatea zalantzan jartzea ekartzen baitu. Homogeneizatzen duten ezaugarriak dira, eta, genero bakoitzaren barne, denok taldearen arauak jarraituz jokatu behar izatera behartzen gaitu.

Izendapena jaiotzeko unean bertan kanpo-genitalen baitan burutzen denez, sexua generoarekin nahasteko joera dago, hortaz, biologikoa soziala denarekin. Harreman bat ezartzen da gure gorputz fisikoaren eta esleitzen zaigun bizitzaren artean, nola izan irakasten zaigu. Eta he-

mendik aurrera bi nortasunak sortzen dira: femeninoa emakumeentzat eta maskulinoa gizonentzat. Bi estereotipo desberdin eratzen dira, balio-eskala desberdin batekin eta hierarkizatuak. Bi subkultura garatzen dira, femenino eta maskulinoa (Sanz, F.1997). Bi mundu-ikuskerak dira, bakoitzak bere burua hautemateko eta mundua bizitzeko bi era desberdin, rol desberdinekin eta posizio sozial eta erlazional desberdinekin.

Ezaugarri hauek **sozializazio prozesu** desberdinetan bereganatzen dira, zeintzuen bitartez genero identitatea, hau da, pertsona bakoitzak bere buruaz duen autopertzepzioa, geureganatzen dugun eta gure generoarentzat egokiak direla iritzi diren jokabide, balio eta sinesmen eta rol eta estereotipoak barneratzen ditugun.

### **Ez gara emakume edo gizon jaiotzen, izaten ikasten da.**

Generoak jaiotzaren unetik guztiz erakitzen gaitu, nola jokatzaren baldintzatzen du, nola hitz egiten dugun, zer erreprimitzen dugun, nola kokatzen garen harremanetan, zer pentsatzen dugun bizitzaren inguruan, emakume eta gizonen inguruan, zein ekintza burutu, zer espero izan, egin, pentsatu, baita desiatu ere, etab. Neurri handi batean gure subjektibitatea baldintzatzen eta eraikitzen du, gure “zein naiz ni”-a.

Generoaren baitako desberdintze honetan, maskulinoa denak nagusitasun eta

eskubide konnotazio bat du eta gizonek burutzen dituzten jarduerak positiboki baloratzen dira zehazki femeninoak direla pentsatzen direnen aurrean, zeintzuk, berriz, gutxietsiak diren.

Modu honetan emakume edo gizon izaten ikasten goaz, botere harremanak bitartekari dituen elkarreragin batean, sumisio-kontrol binomioa sustatuz. Gizon-tasunaren eredupean antolatutako mundu batean emakume izaten ikasteak mende-kotasuna barneratzea suposatzen du.

Hortaz, generoaren ikuspegitik ez bada, ezin diogula emakumeenganako indarkeriaren arazoari aurre egin baieztatu dezakegu (Sanz Fina, 2004, Lorente, 2006). Ikuspegi hau bere azterketa eta analisisarentzat egon behar du, baita autonomia eta burujabetasunetik pertsonen, emakume eta gizonen, garapenera laguntzen duten aldaketa pertsonal, sozial eta komunitate mailakoak burutzera bideratutako estrategiak ezartzeko ere.

Hau da, ikuspegi bat, generoarena, beharrezko estrategien garapena bultzatzeko aukera ematen duena, pertsonak baldintza berdintasunpean eskubide osoko gizaki izan ahal izatea bermatzen duten aldaketak bultzatzeko helburuarekin.



## GENERO-IDENTITATEAK

Sozializazio diferentzialaren teoriaren arabera, pertsonak, bizitza sozial eta kulturelarrako euren hastapenetan eta agente sozializadoreen eragina dela eta, **genero-identitate desberdinak** bereganatzen dituzte.

Identitateak, “eta zein naiz ni?” galderari erantzuten dio, eta erantzun horrek gure subjektibitate guztia antolatzen du. Gure barneraikitzeerako beharrezkoa da talde batekin edo batzuekin bat egitean oinarritzea eta horrek bere baitan beste tadeetatik bereizten gaitu. Identitatea etengabe eratzen ari den prozesua da, ez da ez estatikoa ez monolitikoa, esperientzia eta prozesu pertsonalek etengabe “zein naiz ni” hori berraztertzeraz derri-gortzen gaituzte.

**Genero Azterlanek, beraz, harreman ikuspegi bat barneratzen dute**, zeinen arabera gizonen esperientziak soilik emakumearenak aztertzen badira uler daitezkeen, eta alderantziz. Gaur egun, psikologiaren diziplinan Genero Azterlanek generoaren eraikuntza sozio-kulturala aztertzen dute, haren funtzio sinbolikoa eta eragiten dituen irudikapen sozialak, azterketa helburutzat ordena sozial patriarkalak sortutako desparekotasunengatik aldagai psikologikoetan sortutako efektuak eta ordena horren azpian dauden botere eta zapalketa harremanak argitzea dituelarik.

Zehazki, psikologian, lan kopuru handi batek pertsonalitate aldagaietan eta aldagai intelektualetan sexuen arteko desberdintasunen inguruan klixekak hausteko aukera eman du (Barberá, Martínez Benlloch, 2004).

Sexu desberdintasunak, korrante psikologiko batzuentzat psikismoaren eta bestetasunarekin -sinbolizazio intersubjektibo eta intrasubjektiboen prozesuen helburua- trukatzeko den sistemaren eraikuntzaren sustrai dena, (Pastor Carballo, Ocón Giménez, 1998), genero harremanak bultzatzen ditu, normatiboki bereganatutako sinesmen eta esleipenen sistema oso bat antolatuz, estereotipotik mundua antolatzen dutenak. Horrela, euren identitatearen eraikuntzarako gizabanakoek genero ereduak erabiltzen jarraitzen dute, hortaz, generoen eraikuntza, aldi berean, bere irudikapen sozialaren prozesu eta emaitza izango da.

Generoaren irudikapen sozialak eragina dauka bere eraikuntzan maila subjektiboan eta generoaren irudikapen subjektiboak bere eraikuntza sozialean du eragina.

Ikuspuntu kognitibo batetatik, generoa gizon eta emakume dikotomiaren inguruko prozesu intelektibo eta emozionalen aldagai modulatzailerak eta modelatzaileak da. Modelatze prozesu honetan, sexu eta generoaren arteko harreman dialektikoa ezartzen da (izendapena eta identitatea), zeinetan kultura bakoitzak, burutzen duen eraikuntza sinbo-

likoaren eta interpretazio sozio-historikoaren bitartez, sare bat ehuntzen duen, zeinetan subjektuak bere “ni”-a garatuz inkardinatzen diren, ondorioz euren berezko gorputz-identitatea eta identitate sozial eta psikologikoa nabaritzen (Martínez Benlloch, 2000, 2004).

Generoa, ideal erregulatzailerik bat bezala ulertuta, emakume eta gizonak nolakoak diren informatu baino gehiago, nolakoak izan behar diren esaten du (genero mandatuak), zentzu eta justifikazio sozialen berri emanez. Gure kulturaren genero kategoria hain garrantzirikoa denez, prozesu hau ia itzulezin bihurtzen da (Benhabib, 1992).

Identitate nozioa, subjektua autoerreferentziaz duen kodifikazio sistema bezala, izakiek ni-a eta bestetasunaren edo beste banakoen arteko desberdintasunak ezartzearen prozesu baten sintesia da; gai honetan desberdintasun sexualaren irudikapena funtsezkoa da.

Komeni da azpimarratzea identitatearen eraikuntzan pertsonak bere taldeko beste kide batzuekin duen harremanak-zeinen azpian antzematea dagoen- ez ezik, bere taldeak beste talde batzuekin duen harremanak ere parte hartzen duela. Zentzu horretan, identitatea ni-aren alderdi bateratu bat da, hortaz, norbere bururaren kontzeptu pertsonalaren zati bat da bakarrik (McAdams, 2006). “Identitate” kontzeptuak “ni neu”aren kontzientzia hartzea ahalbidetzen du, baita munduan eta gainontzekoei dagokionez betetzen dugun lekuarena ere (Woodward, 1997).

Gainera, ni-aren identitateari dagokionez, hurrengo paradoxa ematen dela kontutan hartu behar da: ni-a, pertsona den aldetik (publikoa), gainontzeko pertsonen berdina da, baina banakoa den aldetik (pribatua), funtsean gainontzeko banakoen desberdina da.

Identitate pertsonal eta sozialak bizi-baldintza desberdinei lotutako eraldatzeak sufritzen ditu, esperientzia subjektibo diferentziatuak sortzen dituztenak, baita subjektuak zein haren testuinguru kulturalak munduaz duten ikuskerei lotutakoak. Zentzu horretan, giza-aniztasunaren, identitate generiko, etniko, sozial, sexual eta abarren aurrean kontzeptu bateratzaile bat izango da.

Estereotipoek leku garrantzitsua dute identitate prozesuen osaketan,. **Estereotipo** kontzeptuak aurreiritzi eta diskriminazio kontzeptuak gogorarazten ditu haren zentzua negatiboa denean eta ezaugarri oso eskematikoaren sinplifikazioa haren zentzua positiboa denean.

Kasu batean zein bestean, gizarteko kideek partekatutako ezaugarri pertsonalei (normetasun ezaugarriak, atribuzioak, itxaropenak, motibazioak...) buruzko sinesmenen multzo zorrotz eta egituratuari edo talde zehatz baten berriazko jokabideak barne hartzen ditu, kategoria bat osatzen duten pertsonen ezaugarriak bateratuz eta, horrela, banakotasunaren mugak itxuragabetuz.

Kategoria bateko banakoak homogeneousatzea ahalbidetzen duten kulturalki eta sozialki onartutako sinesmenak dira, prozesu psikosozialak ulertzeko helburuarekin (Rosenkrantz P., Vogel S., Bee H., Broverman D. eta Broverman D. M. 1968).

Horrela, estereotipoek taldeen arteko harremanen izaera modu sinplista batean justifikatzea ahalbidetzen dute, zeren ezagutza estereotipatutik, zama emozional handikoa, errealitate objektiboa modu erredukzionistan filtratzen baita, talde bateko kideak homogeneousatuz.

Jarduera kognitibo honek subjektua bere sinesmenetako batzuk baieztatzen eta murgiltzen duen ingurunera egokitzen darama.

Estereotipoak ikasi egiten dira, beraz barneratu egiten dira, giza-interakzio prozesuetan, barnetaldearen balorazioaren zein kanpotaldea ulertzeko moduaren justifikazioaren mesedegarri izanez.

**Genero Identitatea** kontzeptua aurreko kontzeptuetan oinarrituta eratzen da. Dimorfismo sexualaren inguruko arau sozialak eta sozialki espero dena barnerarazten dituen prozesu ebolutibo baten emaitza da, eta banakoaren gizon edo emakume izatearen (gizarteak maskulino edo femenino bezala izendatzen dituen jarrera sozial eta psikologikoen arabera) zentzu psikologikoari egiten dio erreferentzia.

Genero identitatea sozial eta pertsonala da, soziala denaz jabetzen baikara, bakoitzaren berezko esperientziekin eraldatuz, "self"-a eraikitzeke. Identitatea, beraz, testuinguru partikular bakoitzean ekoiztako eta ekintzara eramandako subjektuari buruzko agindu sozial, diskurtso eta irudikapenen sintesi partikularra izango da, eta ez berezko izaera duen errealitate transzendentala.

Autore klasikoen arabera, genero identitatearen oinarritzko muina hiru urte eduki baino lehen lortzen da eta aldatze zailtasunak agertzen ditu. Hiru urtetatik sei urtetarako denboraldia garrantzitsuena izaten da genero identitatearen roletan sozializatzeko.

Esan dugun bezala, egiten den lehen izendapena jaiotzeko unean edo lehenago egiten da: sexuaren araberrako identifikazio eta izendapena (emakumea-femeninoa, gizona-maskulinoa). Izendapen honek ez ditu kontutan hartuko pertsona horren sentsibiltate, motibazio, sexu orientazio, lehentasun eta iritziak. Identitatearen osaketan gure kondizio sexuaren inguruko sinesmen sistemak sortzen dituen efektuak gure psikismoan adierazteaz gain, gure ahalmenen garapenean ere adierazten dira eta, ondorioz, baita gure ongizate psikologiko eta sozialean.

Bizitzako lehen urteetan, **sozializazio agenteen** bitartez - familia eta eskola lehen urteetan -, subjektu bakoitzak bere genero kategoriaren inguruan burutzen duen auto-

miaketa hau sustatzen da. Instituzio biek, familia eta eskolak, jokabide-eredu, rol, estereotipo eta genero sinesmenen, beste batzuen artean, bereganatzea laguntzen dute.

Nahiz eta prozesu honek identitate indibidualaren genesian eragina duten eskema kognitiboak sortzen dituen, rolen ikasketaren eta jarrera estereotipatuen arteko interakzio forma anitzek banakakoen aldagarritasuna eta talde artekoa azalduko dute.

Emakume eta gizonen genero identitatea identitate horiek gizartearen arabera modu erreala eta sinbolikoan bereizten dituen ezaugarri sozial, korporal eta subjektiboen multzoa da. Jada balio bat ematen zaio, posizio bat, ezaugarri batzuekin, rol batzuetan hezitzen zaio, bizitzan bere kondizioa erabakiko duten balio eta sinesmenekin.

Jada desparekotasunean oinarritutako identitatea da, barneratu eta errepikatu egiten dena, hura iraunaraziz.

Identitate prozesuen azpian dauden fenomeno konplexuek subjektibitatea eratzen dute, Lagarde-k (1998) dioen bezala, hartan subjektuaren ezagutza, ahalmen eta tre-beziak bere afektibotasun eta esperientziekin inbrikatzen baitira.

**Subjektibitatea subjektuaren kosmogonia, filosofia, balio eta arauen antolamenduaren emaitza da, laburbilduz, subjektoa indibiduo bezala onartzearen azpian dauden dimentsio etiko eta sozio-kulturala, gorputz biologiko batetan inkardintuak.**

Genero identitatearen onarpenarekin balorazio sistema konplexuak erakusten zaizkigu, desiragarria dena eta desiragarria ez dena, ona dena eta txarra dena, egiazkoa eta oker dagoena, barneratzen diren portaera kode estandarrak eta identitate kolektibo homogeneoak sortuz.

**Balioek** gure izateko era, bizitzeko era, sentitzeko era erabakiarazten dute, gure jarrera eta hartzen ditugun erabakiak gidatzen dituzte eta, azken finean, gure pertsona gisako autodefinizioa dira. Gizarteak zehazten dituen balioetatik **genero sinesmenak** eratzen dira (“emakume on bat sakrifikatu egiten da”, “emakume baten bizitzan garrantzitsuena bere senar eta seme-alabak dira”, “gizonak berez indartsuak dira” “hobe da isiltzea gatazka sortzea baino”, “gizon batek beti daki zer nahi duen”, “emakumeek biologiarengatik dakite zaintzen”, “sexualki aktiboak diren gizonen gizontasun gehiago dute” etab.), sinesmenek aurreiritziak eta **genero mandatuak** deritzoguna sortzen dituzte, (haiek “desobedituz gero” sentitzen den barne erruduntasunaren kausa direnak) eta, aitzitik, genero debekuak (emakume batek egin behar du edo ez du egin behar, eta gizonekin berdin).

Sozializarioaren bitartez, generoaren arabera estereotipo eta rol sozialak eratzen joango dira. **Gizonari** indarrerako, autonomiarako, segurtasunerako, agresibitaterako,



ekintzarako, lidergotzarako, independentziarako hezitzen zaio; bere interesen eta bere ni-aren adierazpenei dagokionez modu permisiboagoan jarduten da gizartea, ondasun material eta ekonomikoen hornitzaile rola, espazio publikoa eta emakumearen gorputz eta sexualitatearen gaineko eskubidea ematen zaio, ekoizpenerako eta eremu publikoan aurrera egiteko sozializatzen zaio eta, ondorioz, eremu horretan arrakastatsua izatea espero da, horretarako prestatzen zaie eta euren atsegina eta autoestima iturria kanpoko mundua izan dadin hezitzen zaie; **lorpenean, materiala den horretan, oinarritutako identitatea** da. Hori dela eta, eremu afektiboa erreprimitzen zaio, genero hezkuntza emozional eta afektiboa emakumeei ematen zaienaren desberdina da.

**Emakumeari** gizonaren kontrapuntu eta osagarritasun izateko hezitzen zaio, dependentzia eta ahultasunerako, samurtasunerako, sentokortasunerako, emozio eta empatiarako, mantsotasunerako, etsipenerako, pasibotasunerako, fribolitaterako; ama eta emazte rola ezartzen zaigu, behar emozional eta afektiboaren zaintzaile eta hornitzailearena, gure espazioa espazio pribatua da, ez gara gure eremu intimo eta gure gorputz eta sexualitateen jabe, atsegina emateko hezitzen zaigu eta ez gure desioak ezagutzeko; **erlazionala eta afektiboa den horretan oinarritutako identitatea** da (Altable, 1998).

GENERO NORTASUNAK		
NORTASUN FEMENINOA		NORTASUN MASKULINOA
Mantsoa, gozoa, maitekorra, neurritsua, obediente, polita	<b>ESTEREOTIPOA</b>	Oldarkorra, ausarta, langilea, menderatzailea, gogorra
Emazte, ama, zaintzaile, ugalketa lana. Zainketa, atsegina eman, afektuak kudeatu	<b>ROLA</b>	Ondasun materialak hornitu, ekonomi, lan produktiboa. Babestu, agintea.
Pribatua	<b>EREMUA</b>	Publikoa.
Besteentzat bizi, etsipena, mendekotasuna, eman, libre egon, amodioa oinarritzko ardatz gisa	<b>AMODIOA</b>	Independentzia, posesibotasuna, jaso, eskaera, lorpenak, amodioa ez da ardatz nagusia
Ukatua, ez da gurea	<b>GORPUTZ ETA SEXUALITATEA</b>	Sustatua, emakumearen gorputzaren gaineko boterea
Etsipena, ematea eta afektibitate.	<b>SINESMEN ETA BALIOAK</b>	Indarra, agintea eta mederatzea, agresibitatea, arrazionaltasuna.
Emakumeak sentitu behar duena, eta honen baitan zehazten dira genero debekuak, gaizki dagoena: samurtasuna sentitu, desira sexualik ez sentitu, isildu, obeditu, erbakirik ez hartu kontsultatu gabe eta abar.	<b>GENERO AGINDUAK</b>	Gizon batek sentitu eta egin behar duena eta sentitu eta egin behar ez duena, adibidez, ezin du samurtasunik edo ezintasunik sentitu, ez du negarrik egin behar edo ahultasuna adierazi, indartsua izan behar du eta abar.

Emakume eta gizonentzako sozializazio bereizgarria afektuz betetako harreman edo lotura pertsonalen bitartez garatzen da, arrasto emozional sakon bat dakarrena, bizitzako lehen urteetan ezartzen dena, gaitasun kognitiboa oraindik garatu ez den unean. Horren ondorioz ikuspuntu arrazional batetatik aldaketak eragiteko zailtasunak sortzen dira, inplikaturik dagoena arlo emozionala denean.

Marcela Lagarde antropologoak oso ondo definitzen du, Basaglia (1978,1983) aipatuz: “identitate femeninoa **“BESTEENA-ETA BESTEENTZAT-IZATEA”**-n laburtuko litzateke. Identitatearen eratzailerik den emakumearen desira besteenganako desira da. Kontrako aldean, izaki sozial eta kulturala den aldetik, **“NORBERE-BURUARENTZAKO-IZATEA”** bezala definitzen duen gizonaren maskulinitasuna dago (Lagarde, 2005).

Genero identitate sistema honek balio hierarkizazio batetan oinarritzen den desparekotasuna dakar. Hierarkizazio horretan femeninoa dena garrantziarik gabekoa eta egunerokoa da, maskulinoa denaren, beraz garrantzitsua, mendeko eta kontura dago eta, honen ondorioz, diskriminazioa sustatzen, justifikatzen eta errepikatzen da. Emakume izateak historian iraina eta ikusezintasuna dakar. Eta hau ohikoa da kultura, erlijio, arraza, adin eta sektore sozio-ekonomiko guztietan.

Eguneroko bizitzan, balioen hierarkizazio honek emakumeen garapen sozialean eragina duten ondorioak dakartza, eta patriarkatuaren historian diskriminazio, bazterketa, ikusezintasun, marjinazio, gutxiespen eta indarkeria moduan adierazi dira, soilik emakume izateagatik.

Hala ere, identitateak mugitu egiten dira, aldaketa sozialek aldaketak sortzen dituzte haiengan, “emakume eta gizon nola izan” hori berraztertuta eta aldatu egiten da eta errealitateak emakume eta gizon izateko moduen aniztasuna erakusten du.



# III . MODULOA

## GENERO INDARKERIA

### GENERO INDARKERIA MOTAK

#### INDARKERIA FISIKO, PSIKOLOGIKO, SEXUAL, SOZIAL ETA EKONOMIKOA

Ikusi dugu jada emakumeen aurkako indarkeriak sexu femeninoa edukitzean oinarritutako eta emakumeengan min edo sufrimendu fisiko, sexual edo psikikoa eragiten duen edo eragin dezakeen indarkeriazko edozein ekintza barne hartzen duela, baita min horrekin mehatxu egitea, hertsapena eta askatasun-gabetze arbitrarioa ere, bizitza publikoan zein bizitza pribatuan (Emkumearen aurkako Indarkeria Ezabatzearen inguruko Adierazpena. NBE 1993). Gure legedian, gainera, bikote harremanen testuinguruan kokatzen dugu.

Emakumearengan indarkeria hau modu zuzenean erabiltzen duten indarkeria motuak hauek dira:

**Tratu txar fisikoa:** biktimaren osotasun fisikorako arrisku edo/eta mina dakarten nahita burututako ekintzak. Indar, kolpe, bultzada, astindu, zauri eta abarren eta min emateko mehatxuen nahitako erabilera barne hartzen du.

**Tratu txar psikologikoa:** biktimaren osotasun psikologiko eta emozionalerako eta haren giza duintasunerako arrisku edo/eta mina dakarten nahitako ekintzak. Modu anitzetan adierazten da: irainak, apalkuntzak, mehatxuak etab., modu ireki edo modu estalian. Indakeria mota honek ez du arrasto fisikorik uzten gorputzean, baina biktimaren bizitzako eremu desberdinak okerrarazten ditu.

**Tratu txar soziala eta ingurunekoa:** tratu txar psikologikoak dira, lehena, biktimaren bizitza sozialaren gaineko kontrola da, itxialdia, harremanak hasteko edo edukitzeko debekua eta jendaurreko irainak barne hartzen ditu, eta, bigarrena, biktimaren ingurunearen okertzea, zikintasuna, objektu pertsonalen apurketa etab.

**Tratu txar ekonomikoa:** biktimaren bizitzako eremu ekonomikoa kontrolatzeko ekintza edo omisioa, ondare edo diruaren inguruko erabakiak mugatu edo debekatu, bere ondasunak kontrolatu, diruaren edo beste ondasun ekonomikoen erabilera edo haren inguruarekiko informaziorako sarbidea galarazi.

**Sexu indarkeria edo tratu txarra:** pertsona bat intimitate sexualak behartuta edukitza zera derrigortzen duten ekintzak (beldurrarazte, behartze –xantaia edo mehatxua- edo pertsonaren nahia anulatzen edo mugatzen duen beste mekanismo baten bitartez).

Tratu txar fisiko, ekonomiko, sexual edo/eta soziala dagoen bakoitzean, tratu txar psikologikoa ere ematen da.



*Guía de Ángeles Álvarez*

Itxurazko aldaketa sozialek eta emakume eta gizonen arteko berdintasun mailan emandako lorpenek tratu txarrak gauzatzeko modu berriak identifikatu ahal izatea oztokatzen dutenez, aurkezten zaigun erronketako bat jazarpenen, kontrol egoeraren adierazpenen eta tratu txarrak gauzatzeko modu berrien identifikazioa da.

## GENERO INDARKERIA MOTAK

### MIKROMATXISMOAK

--

**Mikromatxismoek** eguneroko matxismoa hautematen lagundu digute, erraz antzematen ez dena baina oraindik ezarrita dagoena, berdintasunezko jarrera eta sinesmenekin elkar bizi dena, baina iraunkorra eta denboran jarraia denean emakumeen osasunean arazoak sortzen dituena: autoestima baxua, ezinegon lausotua, hainbat somatizazio, nahasmena, ziurtasun-gabezia eta bikote lotura eta harremanari kalte eginez, hau berriro eremu toxiko bihurtuz, non agindu eta botereak gizonaren eskutan jarraitzen duten.

Mikromatxismo terminoak “Intentsitate txikiko” kontrol eta nagusitasun jarrerak barne hartzen ditu, naturalizatuak direnak, legitimatu eta ezkutatuak, gizon batzuek zigorrik jaso gabe, jakinaren gainean edo jabetu gabe, gauzatzen dituztenak. Oraindik legitimazioa guztiz galdu ez duen “Emakumeen gaineko autoritate” zaharrearaino oinarritutako jokaera sexistak dira, nahiz eta bere baitan ez onartu, gizon gehienek barneratuta dituztenak. Jokaera hauetako batzuk erresistentzia eta oztopo dira egunerokoan emakumeen berdintasunarentzat. Ohiko kontrol, inposamendu eta botere-abusu txikiak dira (Bonino, L. 2004).

Tradiziozko rol matxistak ematen diren harremanetan gauzatzen da, baina baita beste lotura-eredu bat jarraitu nahi duten harreman berrietan ere.

Mikromatxismoak identifikatu ahal izateak harremanetan ematen den abusu psikologikoa antzematen laguntzen gaitu; harreman gertatu berrietan botere desparekotasuna ezagutzeko adierazle bezala erabil ditzakegu; adiskidetze edo amodio faseetan eta emakumeak “dena ondo zijoala” esaten zuen denboraldietan indarkeria ikusarazteko (Bonino, L. 2008).

Matxismoa epe edo maila agresiboagoetara iritsi baino lehen hautemateko modu bat dira.

**Mikromatxismo erabilgarriek** jarrera hauek barne hartzen dituzte:

- Ez dago inplikaziorik etxe-eremuan.
- Sasi-inplikazioa edo/eta inplikazio onuragarria.
- Zaintzaile rola naturalizazio eta probetxu ateratzea.
- Zaintza-lanen delegatzea. Elkarrekikotasuna ukatzea.

**Mikromatxismo hertsagarri edo zuzenek** emakumea menderatzeko gizonak indar moral, psikiko, ekonomiko edo pertsonalitatezkoa erabiltzen duenean ematen diren mikromatxismoak barne hartzen dituzte:

- Beldurraraztea, emakumeak obeditzen ez badu zerbait gertatuko delako seinaleak emanez.
- Bat bateko agintaritzea; galdetu gabe erabakiak hartzea, gune komunak hartzea, galdetu izan gabe iritzia ematea edo monopolizatzea bezalako ekintzak barne hartzen dituena.
- Argudio logikoari deia, logika eta “arrazoiari” joaz emakumearentzat kaltegarriak diren ideia edo aukeraketak inposatzeko.
- Gehiegizko etengabekeria, emakumearen nekearen bitartez nahi dena lortzen saiatuz, horrela azkenean “bake” apur baten truke inposatutakoa onartuz.
- Diruaren kontrola.
- Espazio fisikoaren erabilera hedakorra.

**Isilpeko edo zeharkako mikromatxismoek** gizonak bere menderatze helburua ezkutatzen duenean ematen diren mikromatxismoak barne hartzen dituzte, oso erraz oharkabean pasatzen direnak. Hauen artean hurrengoak nabarmentzen dira:

- Emakumearen amateratzea, lehentasuna gainontzekoen zaintzari emateko baldintzak sortuz.
- Esplotazio emozionaleko azpijokoak, emakumearengan sentimendu ezkorrak, berearekiko zalantzak eta mendekotasuna sortzen dituztenak barne hartuz.
- Terrorismoa, emakumea babesgabe uzten duten bat bateko deskalifikazioen bitartez gauzatua.
- Indarra kentzeko azpijokoak, emakumearengan gutxiagotasun sentimenduak sortzen dituztenak.
- Paternalismoa, emakumea neskato bat balitz bezala tratatuz.
- Intimitategabeziaren sorpena.
- Gezurkeria, nabaria dena ukatuz, hitz emandakoa bete gabe...
- Norberaren jokabide kaltegarrien gaineko autobarkabertasuna, ekintzaren erantzukizuna saihestuz beti.

**Krisi mikromatxismoak**, emakumearen botere pertsonalaren areagotzea ematen den uneetan edo arrazoi fisiko edo lanezkoengatik gizonaren botere galera ematen denean, aurreko botere banaketa desberdina berrezartzeko erabiltzen dira. Hauetako batzuk:

- Sasi-laguntza, emakumeari laguntza iragaziz, baina inoiz burutu gabe.
- Deskonexio eta aldentzea.
- Merituak egitea, azaleko aldaketak eginez, batez ere emakumearen harremana hausteko mehatxuen aurrean.
- Pena eman, nork bere burua zaurituz edo suizidio mehatxuak erabiliz.

## GENERO INDARKERIA MOTAK

### BESTE INDARKERIA MOTA BATZUK

--

**Ziberjazarpena edo *Cyberbullying-a***, kaltea sortzeko helburuarekin eta formatu elektronikoan egiten den informazioaren, benetazkoa edo faltsua, erabilpen eta hedapena da. Hedapen hau hedabide digital desberdinen bitartez burutu daiteke, posta elektronikoz, berehalako mezularitzaz, sare sozialen bitartez, etab.

Hau da, teknologia berrien bitartez burututako jazarpen edo zirikatzea da. Whatsapp bitartez burututako jazarpena jada haurtzarotik oso zabaldua dagoen eta kontrol bezala identifikatu gabe dagoen jardutea da.

**Grooming-a**, adin txikiko bati, berriz ere sare sozial edo interneten bitartez, heldu bat helburu sexuarekin gerturatzen zaionean edo honek eraso egiten dionean ematen da. Haurarekin harreman bat lortzeko eta haren gaineko kontrol emozionala lortzeko, adin txikikoaren sexu-abusurako bidea prestatzeko helburuarekin, apropos burutzen diren ekintzak dira. Haien artean kontaktu fisikoa, harreman birtualak edo haur-pornografiaren lorpena daude.

---

## TRATU TXARRAREN ERAGINA EMAKUMEEN OSASUNARENGAN

--

Tratu txar kronikoaren ondorio psikologikoak suntsitzaileak izan daitezke tratu txarra jasaten duen pertsonaren emozioen erregulatzearentzat. Indarkeriaren biktimen portzentai handi batek estres kronikoak, trauma osteko estresak (TOEN) eta beste anahasmak klinikoez (depresioa, antsietatea, depresio sintomak, joera suizidak, autoestimua baxua, erruduntasun sentimenduak, etab) ezaugarritutako profil psikopatologikoa aurkezten du. Denboraldi luzeetan intentsitate altu edo baxuko genero indarkeriaren biktima izateak kalte biologiko zein psikologikoak sortzen ditu.

Genero indarkeria haren bertsio desberdinetan (emozionala, fisikoa, kognitiboa, ekonomikoa, sexuala) jasan duten emakumeen kalte psikologikoa azaltzeko, tratu txarraren biktimekin lan egiten duten profesionalak traumaren ikuspegia gehitu dute. Marko teoriko honek tratu txarrak jasan dituzten emakumeen pairamenak ulertzea ahalbidetzen du, haien gaitzak haien bizi-baldintzekin erlazionatuz.

## ONDORIOAK OSASUNEAN

- A. Heriotza eragiten duten ondorioak:
  - Hilketa
  - Suizidioa
- B. Heriotza eragiten ez duten ondorioak:
  - Zehatzak ez diren sintomak
  - Lesio traumatikoak
  - Gaixotasun urogenitalak
  - Arazoak haurdunaldiarekin
  - Arrisku jokabideak
  - Ondorioak buru osasunean
  - Ondorioak seme-alabengan

## ONDORIOAK BURU OSASUNEAN

- A. Larritutako patologiak
- B. Nahasendu kognitibo eta erlazionalak
- C. Depresioa, gehien diagnostikatzen den nahasmendua
  - Gogo-aldarteak
  - Itxaropen-eza
  - Autoestimua baxua
  - Erruduntasuna
  - Galerak
  - Etorkizuneko proiektzio gabezia
  - Suizidioa
- D. Trauma osteko estresagatiko nahasmendua
  - Berresperimentazioa:
    - a. Beldurra
    - b. Amesgaiztoak
    - c. Oroitzapen intrusiboak
  - Saihespena:
    - a. Urruntze emozionala
    - b. Bakartzea
    - c. Etorkizun proiektzioa urria
  - Aktibazioa fisiologikoa:
    - a. Lo egiteko zailtasunak
    - b. Arreta eta kontzentrazio arazoak
    - c. Sumingarritasuna
    - d. Hiperzaintza
    - e. Erne egotea eta izualdiak



## OSASUN PSIKIKOAN EMATEN DIREN BESTE ERAGIN BATZUK

Suntsipen emozionala	Biktimizazioa
Beldura	Autoestimua
Paralisia	Loarean nahasmenduak
Itxaropen gabezia	Arretaren nahasmenduak
Amorrua	Oroimenaren nahasmenduak
Bakartzea	Hiperzaintza
Errua	Adikzioak
Antsietatea	Auto-lesioak

Jasandako indarkeriak, zalantzarik gabe, eraginak izan ditu, batzuetan intentsitate handikoak eta iraunkorrak barne, horregatik, kasu bakoitzean sortu dituen eraginak modu zehatz eta eraginkorren diagnostikatu ondoren, esku-hartu egingo dugu biktimei tratu txarraren ondorioak gainditzen laguntzeko, askotan kroniko bihurtu direnak.

---

## INDARKERIAREN DINAMIKA

--

Funtsezkoa da indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeei, erruduntasun eta lotsa sentimendu sakona barneratuta dutenak, tratu txarra azaltzen duten kausak eta harreman mota hauen mantentzean eragina duten faktoreen azalpena itzuli ahal izatea.

Erruduntasun sentimendua, dakigun bezala, luzaroan daramate beraiekin; lehenik, erruduntasuna harremana “funtzionarazten” jakin ez izateagatik eta, ondoren, tratu txarra identifikatzen dutenean, denboran zehar berak eta, egotekotan, bere seme-alabek ondorioak jasaten hor egoteagatik. Arazoaren zein harremana mantentzearen ulerpenean maila kognitiboan laguntza handikoa da.

Harremanaren mantentzean, jakina, hainbat faktore elkartzen dira: ekonomia-mendekotasuna, lanik ez edukitzea, berezko ekonomiarik ez edukitzea, seme-alabak edukitzea, sostengu ekonomiko eta afektiboa falta kanpoan (norbaiti jotzeko edo norabaitera joa-

teko aukera eza), blokeora daraman beldur eta babesgabetasun ikasia, segurtasun eza eta nahasmena, antsietate-depresio egoera batetara daraman sintomatologia emozioa-nala, hartu duen autoestimua gabezia maila, etab. Guztia gure lanaren arrazoi eta berres-kuratu eta eraldatu beharreko alderdiak dira.

Bikotean ematen den tratu txarra ez da bat-batean sortzen, luzapen desberdineko prozesu baten ondorio izaten da, abusuzko jokaerekin hasten dena eta ondoren intentsi-tate eta maiztasunean gora egiten doazenak.

Batasun traumatikoaren teoriak (Dutton eta Painter, 1981) zein zigor paradoxikoarenak (Long eta McNamara, 1989) eta aldizkakotasunarenak (Dutton y Painter, 1993) bikote harremanean tratu onaren eta tratu txarraren arteko aldizkakotasun bat dagoela diote.

Azterlan asko bat datoz harremanean jarraitze hori ulertarazten laguntzen duten hainbat puntu azpimarratzean: indarkeriaren aldizkakotasuna (erasotzaile beretik dato-rreren indargarri positiboekin), harekiko mendetasun material eta emozionala (guda eta bahiketen biktimen kasuekin gertatzen den bezala), lotura afektiaboren inguruko sines-menak dituen lotura afektiboa eta ikasitako babesgabetasunaren teoria (Seligman, 1975; Walker, 1979).

Pertsona bat bere erantzunetatik at dagoen gertaera baten aurrean dagoenean, kon-trolaezina dela ikasten du. Biktima mugiezin mantentzen da harremanaren barne, indar-keria amaituko delako itxaropenik gabe eta lor ditzazkeen beste aukerarik ikusi gabe.



# INDARKERIAREN DINAMIKA

## INDARKERIAREN ZIKLOA

--

Teoria hauetatik abiatu zen Leonore Walker 1979. urtean hurrengo ondorioztatzeko: erasoak jasan dituzten emakumeen jarrerak erasoer aurreratzeko eta haietatik defendatzeko gaitasun pertsonalen errepertorioa entsaiatu ondoren soilik zirela pasiboak. Ondorioz, emakumeak guztiz babesgabe dagoela ikasten du, tratu txarra, egiten duena egiten duela, ezin delako aurreikusi eta jarraitu egingo delako.

Orokorrean, tratu txarra ez da jarraia izaten, eraso faseak maitasun edo barealdi faseekin txandakatzen dira. L. Walker-ek “**indarkeriaren zikloa**” deitu zuena da, bikotean indarkeria nola sortzen eta mantentzen den ulertzen laguntzen diguna.

Ziklo hau aldatu egiten da intentsitate, iraupen eta maiztasunari dagokionean, baina denborak aurrera egin ahala etapen arteko denbora murriztu egiten da.



**Tentsio metaketaren fasea:** Fase honetan emakumearen kontrako ekintza edo jarre-  
rak ematen dira, bikotearen barruan gatazkak sortuz. Gizonaren emakumeaVrenganako  
etsaitasuna handitzen doa emakumearentzako arrazoi ulergarri edo nabarmenik egon  
gabe. Hark indarkeria ahoz erakuts dezake eta, noizbait, eraso fisikoekin, bat bateko  
gogo-aldarte aldaketekin, emakumeak ulertzen ez dituenak eta justifikatu ohi dituenak,  
ez baita nahasita duen indarkeria prozesuaz kontziente.

Hortaz, biktima beti bere bikotea lasaitzen saiatzen da, hari atsegin ematen eta go-gaitzen duena saihesten saiatuz, horrela gatazkak saihestuko dituela eta bere bikotea kontrolatuko duela uste baitu, batzuetan gatazka horiek berak probokatuta direlako sinesmen okerra ere badu.

**Leherketa fasea.** Indarkeria pizten da eta eraso fisiko, psikologiko eta sexualak ematen dira. Fase hau motza izan ohi da eta hemen ematen da lesio larriak eta bizitzarentzat oso arriskutsuak diren lesioak jasateko probabilitate handiena. Emakumeak salaketa fase honetan egin ohi du, baita laguntza eskatu ere.

**Bakeak egiteko fasea.** “Eztei-bidaiko fasea” bezala ezagutzen dena: etapa honetan erasotzaileak damutu egiten dela adierazten du eta barkamena eskatzen du. Harremana hauts ez dadin afektibitate-manipulazioko estrategiak erabiltzen ditu (opariak, laztanak, barkamenak eskatu, promesak...). Gatazkaren errua emakumeari transferitu ohi dio baita ere, bere erantzukizuna ukatuz. Askotan emakumeak dena aldatuko dela pentsatzen du eta, maiz, salaketa kendu edota familiak edo osasun edo gizarte zerbitzuek eskainitako laguntza errefusatzeko erabiltzen du. Batzuetan, bere bikoteak arazoak dituela eta haiek konpontzen lagundu egin behar duela bezalako justifikazioak bilatzen ditu.

Indarkeriazko jokabideak finkatzen eta nagusitzen doazen heinean, bakeak editeko fasea desagertu egin ohi da eta indarkeriazko gertakariak denboran gerturatzen doaz.

Zikloa modu maltzur eta finean hasi ohi da (kontrol estrategien bidezko tratua txar psikologikoa), biktimaren autoestimuan eragina izanez. Ondoren ahozko erasoak ematen dira, tratua txar psikologiakoari gehituta gutxiespenaren intentsitatea handitzen dutenak. Azkenik eraso fisikoa ematen da, tratua txarraren intentsitate zein maiztasuna handituz. Indarkeria eskalada bat da (Jáuregui Balenciaga, I. 2006).

Ziklo hau kontutan hartu behar dugu, arretoa jasotzeko larritasunean eragina izango baitu (leherketa fasea) eta, batzuetan, salaketa kentzea dakar, eta baliteke ere bakeak egiteko fasean terapian jarraitzeko errezeloa agertzea. Horregatik, emakume bat kontsultara etorri bezain laster oso garrantzitsua da harekin lotura bat finkatzea eta hark gune seguru batean eta babestuta dagoela sentitzea, lana hobeto senti dadin eta bere sintomatetatik errekupea dadin burutzen dela ulertzea. Etorkizunerako itxaropenen inguruko gure adierazpenek edo “banantzean pentsatu beharko zenuke” bezalako aholku batek mesfidantza, deserosotasuna eta laguntza-harremanaren haustura ekarriko dute.

## INDARKERIAREN DINAMIKA

### HAUSTURA ZAILTZEN DUTEN FAKTOREAK

--

Indarkeriaren gora-egiteak, zikloak eta ikasitako babesgabetasunak indarkeria **ikusarazi eta aipatzea** zailtzen dutela eta ondoren harremana uztea zailtzen dutela ulertzeaz gain, badira tratu txarreko harremana uztearen zailtasunean eragina izan dezaketen beste faktore batzuk (Morillas, Patró eta Aguilar, 2011), hurrengo hauek aipa daitezke:

- Genero rolen inguruko sinesmen tradizionalen sistema.
- Indarkeriaren erabileraren normalizazioa familia barruan.
- Bikotearen mendekotasun ekonomikoa eta gizarte-laguntzen gabezia.
- Tratu txarraren dinamika eta zikloarekin lotutako faktoreak, lehen azaldu dugun bezala.
- Tratu txarraren zergatiaren inguruko esleipenak.
- Indarkeriaren etetean konpromezua edo ardura nork bere gain hartzea.
- Amodioaren boterean sinestea (amodio erromantikoaren mitoa).
- Traumatizazio kronikoa edo aurre egiteko gaitasunaren behera egitea.
- Erasotzailearen jazarpen edo errepresaliei beldurra.
- Amodio erromantikoaren mitoa.

---

## INDARKERIAREN DINAMIKA

### AMODIO ERROMANTIKOAREN MITOA

--

Amodioaz hitz egitea unibertsaltzat dugun, baina, ordea, ikaskuntza kultural eta baldintza sozialen baitan dagoen sentimendu batetaz hitz egitea da. Abesti, film, eleberri eta abarrek mitifikatua, emakumeak tradizionalki amodioa erabateko entrega bezala ulertu izan du, maitalea bere existentziaren oinarri bihurtuz, beregatik moldatzen da, justifikatu eta barkatu egiten du, berarekin duen harremanari balio gorena ematen dio, “amodioagatik” sakrifikatzen da.

Amodioa lehentasunezko eta funtsezko proiektu bezala oinarrizkoa izaten jarraitzen da emakume askorentzat eta hura gabe haien existentziak zentzurik ez duela sentitzen dute eta, azken hamarkadetan zalantzarik gabeko aldaketak eman diren arren (mende-

baldeko gizarteetan behintzat), amodioarekin zerikusia duen oro (sinesmenak, mitoak...) bere sozializazioan indar bereziarekin agertzen jarraitzen da, ardatz bateratzaile eta lehentasunezko bizi-proiektu bihurtuz (Altable, 1998; Ferreira, 1995; Lagarde, 2005; Sanpedro, 2005).

Bikotearen barruko amodioa, kateorraz baten moduan gogorki heltzen diren mitoen bitartez lotzen zaio gure imajinarioari eta itxaropen, ilusio, ziurtasun-gabezia, fantasia, beldur eta abarren sare bat eraikitzen du, errealitatea idealetik aldendu ahala erraz frustrazio bihurtzen den sarea.

Amodio-hezkuntza gako garrantzitsu bihurtzen da, gure egungo gizartean bikote harremana **amodio erromantikoaren idealean** oinarrituta eraikitzen baitugu. Amodio erromantikoaren eredu hau eta bertatik sortzen diren mitoak onartzeak bikoteko genero indarkeriarekiko kalteberatasuna handitzen du, amodioa baita bizitzari zentzua ematen diona eta bikotea hausteak porrota suposatzen du (Bosch, Ferrer, García, Ramis, Mas, Navarro, Torrens, 2007).

Ideal honen arabera, emakumeentzat, tradizionalki eta bereganatutako identitate ereditik, amodioa bere bizitzaren funtsezko helburu bihurtzen da. Bikote bat sortu, ezkondu, familia bat sortu eta seme-alabak edukitzea hil edo biziko helburuak dira. Belén Nogueiras-ek (2005) bikoterik ez edukitzeagatik osatugabe sentitzeak hainbat exigentzia pertsonal dakartzala jakinarazten du, amodioagatik guztiz entregatzea edo norberaren interesei uko egitea bezala. Honen arabera, amodioa euren bizitzen erdigune bihurtzeko hezitako emakumeek eurak salbatuko dituen, babestuko dituen eta euren beharrak asetuko dituen printze urdina bilatuko dute. Baina emakumearen ardura izango da harremanen arreta eta mantentzea, gatazkak edo harremanaren porrota ematen denean harengan erruduntasun sentimenduak sortuko dituen.

Eta mito, fantasia eta sinesmen hauek indarkeriaren zikloak boterea edukitzea ahalbidetzen dute, aldizkotasunak damutasunarekin batera emakumeak erasoak justifikatzea eragiten baitu, "nere amodioak aldatuko du" horren ahalmenean sinetsiz, barkamenari gogor helduz bere afektibitate-bizi proiektua ez galtzeko. Horrela, aukera berriak ematen ditu eta berriro "amodioak guztiari aurre egin diezaioke" ideian oinarritutako itxaropen faltsuak sortzen ditu.

M<sup>a</sup> Luz Esteban-entzat (Esteban eta Távora, 2008; Esteban, 2011), *"amodioa orokorrean, eta bikotekoa bereziki, gure gizartean eraikitzen den eta bizitzen garen moduan, emakumeen mendekotasun sozialaren zutabe nagusi bat da. Amodioak **estatus desberdinak** edukitzera garamatza. Erabakigarria da genero-sistema honetan; batzuentzako eta besteentzako guneak desberdintzen dituen, botere posizio desberdinak egokitzen dizkigun eta emakumeak izaki emozional bezala eraikitzen dituen genero-sistema batean"*.

Emakumeak tratu txarren emailea uztea pentsatzen duenean, berea ez den testuiguru batean eraiki behar du bere biografia berria eta orain arte bere lekua zena, zeinetan emazte eta ama maitale jarrera zuen, utzi egin behar du. Bere bizitza-proiektua bertan behera utzi behar du.

Amodioari uko egitea bere bizitzako erabateko porrota bezala bizi du. Emakumeek ezkontza-hausturak banakako arazo bat bezala interpretatzen jarraitzen dute, egoera estresagarri eta arraro bat bezala.

Azken finean desparekotasun eredu bat da, nagusitasun/sumisio harremanak errepikatu eta zirkulu perbertso bat sortzen duten estereotipo, genero-arau, itxaropen... eta abarrez betetako ereduak da: emakume bezala zure kabuz erabakitzeak ahalmena kentzen dizun eta zenbat eta zure buruari uko gehiago egin betetasun handiagoa "segurtatzen" dizun amodio perfektu bat lortzean errealizatuko zarela pentsatzea.



# IV . MODULUA

## TRATU TXARRETIK TRATU ONERA

### AHALDUNTZETIK EKINEZ

--

Emakumeen aurkako indarkeriaren jatorria patriarkatuak gizon eta emakumeen artean ezartzen duen desparekotasunaren adierazpen bezala agertzen bada, desparekotasunean oinarritutako harremana berdintasunezko harreman bihurtzeko ahalduntze prozesua deritzoguna eman beharko da.

Horregatik, prozesu eta harreman terapeutikotik bertatik jada, emakumea ahalduntzea ahalbidetu behar da eta hori izango da helburu nagusia: bere bizitza eta erabakien jabe izan ahal izatea, desparekotasunen zergatiak ulertzea eta haiek aldatzeko prozesua hastea, horrela berdintasunezko harremanak sortzeko gai izanez.

Ahalduntze terminoa ingeleseko *empowerment* terminotik dator. Kontzeptua hegoaldeko estatu popularretako erakundeetan, haien artean emakumeen erakundeak eta erakunde feministak, jaio zen, hurrengo hau izendatzeko: pertsona eta talde baztertu eta zapalduak mendekotasun posizioan mantenez dituzten botere egiturak aztertzeko, zalantzan jartzeko eta iraultzeko gaitasuna garatzeko prozesua.

Termino hau jada Psikologia Komunitarioan jasotzen da; Julian Rappaport (1977) psikologo komunitarioak 70. hamarkadan *empowerment-aren* teoria garatzen du, esku-hartze komunitarioa sostengatzen duten balioak erakustez gain, diziplinaren helburuaren gaineko ezagutza antolatze balio duten kontzeptu eta printzipio batzuk ematen ditu. Pertsona, erakunde eta komunitateek euren patuen gaineko kontrola, maisutza edo nagusitasuna irabazteko mekanismoari buruz dihardu modu orokorrean (Mendoza Sierra, León Jariego, Orgambidez Ramos eta Borrego Alés, 2009). Benetazko boterea berreskuratzeko eta errealitate sozial eta politikoa eraldatzeko estrategia bezala ulertzen da.

*Empowerment-aren* ikuspegia hartzeak aldaketa sozialak sortzeko eta esku-hartzeak garatzeko zenbait balio, helburu eta estrategien onarpena dakar. Aldaketa hauek sistema sozial baten egituraren aldaketa esanguratsu bezala definituko lirarteke, gizakideen



bizitza eta harremanak (horizontal eta bertikalak) gobernatzen eta eragiten dituzten arau, erlazio eta teleologia sistemak aldatuz. Ikuspegi honek arazo sozial gehienak baliabideen banaketa desberdinen ondorioztat ditu eta eraldaketa ahalduntze pertsonal eta kolektiborako tresnez hornitzean ematen dela dio (Buelga, S. Musitu, G. eta Murgui, S. 2009).

Emakumeari ezarritako ahalduntze kontzeptua 1984. urtean agertzen da Indian, nahiz eta bere metodologia Paulo Freire brasildarrak garatutako hezkuntza popularretik (1970) datorren. 1985eko Nairobiko ospatutako Mundu Mailako Emakumearen III. Konferentzian barneratu zen. Ondoren, Beijingo IV. Konferentzian aurrera jartzen da indarrean.

Margaret Schuler (1997) soziologo iparramerikarrak, bere “Emakumeen eskubideak giza-eskubideak dira: Ahalduntzearen nazioarteko agenda” liburuan, ahalduntzea **“emakumeei euren bizitza eta ingurua antolatzeko gaitasuna handiarazten dien prozesu bat, emakumeen berekiko kontzientzia hartzean, euren estatusen eta elkarrekintza sozialerako eraginkortasunean garapen bat”** bezala definitzen du, emakumeen eskubideak ezagutzeaz gain, aldaketa eragozten duten oztopoak antzema-tea beharrezkoa dela azpimarratuz.

Ahalduntze prozesuaren beharrezko adierazpenak, Schuler-ek dioenez, hurrengoak dira:

1. Segurtasun sentimendua eta etorkizuneko ikuspegia.
2. Bizitza irabazteko gaitasuna.
3. Eremu publikoan modu eraginkorrean ekiteko gaitasuna.
4. Etxean erabakiak hartzeko ahalmen handiagoa.
5. Informazio eta euskarri moduan elkartasun taldeetan parte hartzea.
6. Mugikortasuna eta ikusgaitasuna komunitatean.

Guzti honekin emakumeen banakako eta taldeko kontzientzia hartzeaz dihardu:

**Banakakoa** da, emakumeen euren mendekotasunaren gaineko kontzientzia hartze prozesu pertsonal bat baita, zeinetan emakume bakoitzak bere eskubide, indar eta interesen kontziente egiten den eta bere autonomia eta botere pertsonala kontsolidatzen dituen, euren eragite eta erabakitze gaitasuna gauzatzeko helburuarekin. Honek botere jardunera heltzeko prozesuetan eta erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzea handitzeko eta eragin-ahalmena handitzeko aukera ematen die emakumeei. Beste modu batetara esanda, menderapen egoera batetik bakoitzak norberaren bizitzari eragiten dioten erabakien gaineko kontrola duen egoera batetarako pausua litzateke, boterea ez edukitzetik boterea edukitzera pasatzea.

**Taldekoa da**, emakumeen interesak erlazionatzen dituen prozesuari dagokiolako, talde eta genero kontzientzia hartze bati dagokio, horrela banakotasunetik eta subjektibotasunetik burututako lanak desparekotasunari aurre egiteko eta gizartea eraldatzeko balio dezan.

Gita Sen-entzat (1994), “benetazko ahalduntzea kontzientziaren barneko aldaketa bat da, talde-prozesuetan adierazten den arren, sakon eta biziki pertsonal eta banakoa dena”.

Interesegarria da ahalduntze femeninoa prozesu bat bezala ulertzen dela eta “behetik gora” edo “barrutik kanpora” ematen dela behatzea, hau da, ez da ematen, aitzitik garatu egiten da, **lortu egiten da**.

Honekin jarraituz, Marcela Lagardek (2005) hurrengoa adierazten du: genero ikuspegitik, autonomia emakumeen hiritartasun betea eratuz eraiki behar dela, non hauek euren bizitzaren autore izan behar duten, erabakitze, bizitzaren zentzua definitzeko eta sortzeko ahalmenarekin.

Indarkeria matxistaren eremuan, arazoa ezabatzeko lan egiteak hurrengoa dakar: emakumeak gizonarekiko duen egoeraz (bere kondizio eta posizioa) eta mezu hauek barneratzeko moduz (genero-identitatearen eraikuntza) jabetzea eta baita ere norberaren autonomia, autoestimua eta bizitzaren kudeaketa ahalbidetzen duten eta sinesmen, hezkuntza eta botere egituraren errepikapen eta harremanen aldaketa mailan aldaketa soziala garatuko duten estrategia eta trebetasunak garatzeko gaitzea.

**Generoak analisirako begirada bat ekartzen badu, ahalduntzea autonomiaranzko eta berdintasunezko harremanen eraketarako sustatuko den prozesu eta helburua da.**

Pentsaera feministak ahalduntzearen filosofiari ekarpen nagusiak “botere” kontzeptuaren definizioan egin dizkio. Zenbait autore feministek ahalduntzea menperatze eta “bestearekiko boterea” bezala ulertu beharrean, garapen prozesuetan eragin **ahal izateko** beharrezkoak diren baliabide material eta sinboliko desberdinen kontrola bezala identifikatzen dute: baliabide material fisikoak, gizatiarrak eta finantzariak; baliabide intelektuak; **boterea barrutik eginez**, era kolektiboan, beste emakumeekin batera, eta prozesu sozialak barne prozesuekin elkar eragiten dutela eta hauek kanpo prozesuak sustatzen dituztela ulertuz.

Beijingo Konferentzian emakumearen egoerak izan dituen aurrerapenak aitortzen dira, baina onartzen da ere aldaketa hauek ez direla homogeenak, gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak irauten dutela eta herri guztien ongizaterako ondorio larriak dakartzaten garrantziazko oztopoak daudela oraindik. Horregatik, azken adierazpenak zioen: *“argi eta garbi muga eta oztopo hauek eragozteko konpromisoa hartzen dugu,*

*munduko emakume guztien aurrerapen eta **ahalduntzea sustatuz**, eta bat gatoz eginkizun honek premiazko ekintza eskatzen duela, espiritu ausartarekin, itxaropen, lankidetzaz eta elkarkidetasunezkoa, orain eta bista datorren mendean jarriz*". Eta bi estrategia osagarriak bultzatzen ziren gizon eta emakumeen arteko botere harreman desberdinen aldaketan aurrera egiteko eta genero berdintasuna lortzeko: gendermainstreaming estrategia eta ahalduntze estrategia.

---

## AHALDUNTZETIK EKINEZ AHALDUNTZEA JARDUTE PSIKOLOGIKOAN

--

Terapia psikologiko ororen helburu da gizakia ulertu eta azaltzea eta euren teoria eta tresnen bitartez haiek hobeto, osoago, osasuntsuago, jatorrago, orekatuago eta askeago sentitzen laguntzea.

Ahalduntze pertsonala pertsonaren eta honen botere eta gaitasunen arteko konexioa da, desparekotasunak antzeman eta eraldatzea.

Esparru pertsonalean, barrukoa, eta harremanetan eta sozial eta kolektiboa den horretan ematen den prozesua da.

Ahalduntzea ez da soilik:

- Autoestimua eta autokonfidantza sustatzea.
- Nork bere burua ezagutzea.
- Komunikaziorako, gatazkak konpontzeko eta erabakiak hartzeko gaitasun sozialak garatzea.

Honako hau lortzen ere lagundu behar du:

- Nagusitasun/sumisioko genero harremanetaz jabetzea.
- Sinesmen sexisten aldaketa.
- Emakume izaten nola ikasi dugun eta genero identitateko zein alderdik desahalduntzen gaituen ulertzea.
- Harremanen eraldatzea, gure posizioa aldatuz, gure autonomia sustatuz eta berdintasunezko harremanak sortuz.

--

Adierazleen ezarpenaren helburua ebaluazioa behagarri eta ebaluagarri diren alderdietan ardaztea da.

### **Ahalduntze pertsonalaren adierazleak:**

- Informazioa, ezagutza.
- Prestakuntza eta trebakuntza.
- Erantzukizuna.
- Genero rolen, identitatearen eta genero harremanen kontzientzia hartze eta berrikusketa.
- Bere barruko ni-arekin elkartu, bere norberekotasuna.
- Autoestimua, autokontzeptua.
- Autozaintza gaitasuna.
- Autobaieztapena, autokonfidantza.
- Bere kasa agendaren ezarpena, behar eta lehentasunen zehaztapena.
- Aukeratzeko eta erabakiak hartzeko gaitasuna.
- Trebetasun sozialak, Asertibotasuna eta Gatazka-konponketak.
- Mugak ezartzeko gaitasuna.
- Negoziatzeko eta akordioetara iristeko ahalmena.
- Elkarrekikotasun eta erantzukidetasuna harremanetan.

### **Ahalduntze adierazleak harremanetan:**

- Bakoitzaren autonomia maila. Autobaieztapen eta ahalduntze pertsonalaren maila.
- Lengoaiaren erabilerak harremanean.
- Emozioak kudeatzeko eta erregulatzeko moduak.
- Harremanean dagoen komunikazio mota: erasokorra, pasiboa, asertzioskoa.
- Gatazken Konponketarako Estrategiak: autoritarismoa, mehatxuak, komunikazioaren ukapena, elkarrizketa.
- Erantzukidetasuna: rolen adierazleak, zeinek egiten duen zer.
- Gune eta denboraren kudeaketa: zeinek daukan berezko gune eta denbora. Denbora eta zereginen grafikoak landu.
- Diruaren gestioa. Bikotearen barruan zeinek duen diruaren kontrola eta zeinek hartzen dituen erabakiak.

Adierazle horiek oso modu grafikoan azaltzen dituzte ardura eta botere mailen banaketa eta emozio eta komunikazio estiloak. Horrela harremanean ematen den desparekotasuna agerian jartzen da, hau ez da beti tratu txarren sinonimo, nahiz eta, jakina, indarkeria barne hartzen duten harremanetan nagusitasun/sumisio profila argia den. Emakumeari desparekotasunak nola eszenaratzen diren, matxismoa nola adierazten den eta zein alderdi landu behar diren erakusteko ere erabil ditzakegu.

## AHALDUNTZETIK EKINEZ

# AHALDUNTZE PERTSONAL ETA ERLAZIONALEKO ADIERAZLEAK

--

Adierazle hauek jasoaz programaren oinarrizko helburuak antolatu ditugu, ahalduntzearen helburu nagusia ezarriz eta, aldi berean, honen barruan hainbat lan eremu ezartzen ditugu, bakoitza laburki azalduko dugun helburu zehatzago bat izanik.

### AHALDUNTZEA:

- Mito eta sinesmenen aldaketa.
- Autobaieztapena.
- Erregulazio emozionala.
- Asertibotasuna, gatazka-konponketak eta erabakiak hartzea.
- Autonomia eta berdintasunezko eta tratu oneko harremanak sustatu.

### AHALDUNTZEAREN HELBURUAK

A. MITO ETA SINESMENEN ALDAKETA	<ul style="list-style-type: none"><li>· Identitate femeninoaren, estereotipoen eta aginduen inguruko bere sinesmenak antzeman eta eraldatu.</li><li>· Despareko eta osasungaitz diren bere fantasia eta amodio-gidoiak antzeman eta eraldatu.</li><li>· Amodio itxaropenak, mitoak, sinesmen faltsuak eta erotizatu-tako fantasiak aztertu.</li></ul>
B. AUTOBAIEZTAPENA	<ul style="list-style-type: none"><li>· Bere NI-arekin, bere nahiarekin, konektatu.</li><li>· Arnasketa eta gorputz-kontzientziako ariketak.</li><li>· Autozaintza landu. Tratu ona barneratu.</li><li>· Bere autoestimu eta autokontzeptua sustatu.</li><li>· Errespetua, mugak jarri.</li><li>· Bere jokabide, jarrera eta iritzia sendotu.</li><li>· Norberan oinarritutako helburuak finkatu.</li></ul>
C. ERREGULAZIO EMOZIONALA	<ul style="list-style-type: none"><li>· Kontzientzia emozionala: emozioak identifikatu.</li><li>· Erregulazio emozionala: arnasketa eta erlaxazioa.</li><li>· Emozio positiboak sustatu.</li></ul>
D. ASERTIBOTASUNA, GATAZKA-KONPONKETA ETA ERABAKIAK HARTZEA	<ul style="list-style-type: none"><li>· Entrenamendu asertiboa eta trebetasun sozialetakoa.</li><li>· Gatazka-konponketak.</li><li>· Alternatiben sorkuntzan eta erabakiak hartzean entrenamendua.</li></ul>
E. AUTONOMIA ETA BERDINTASUNEZKO ETA TRATU ONEKO HARREMANAK SUSTATU	<ul style="list-style-type: none"><li>· Bere maitasun itxaropenen azterketa.</li><li>· Bere autonomia, erantzukidetasuna eta rolen trukea sustatu.</li><li>· Bere gune pertsonala garatu (euskarriak, zaletasunak, bere denbora...).</li><li>· Birlanketa afektiboa loturaren bitartez.</li><li>· Berdintasunezko eta tratu oneko harremanak garatu.</li></ul>

# AMODIO-LOTURAK ETA BERDINTASUNEZKO ETA TRATU ONEKO HARREMANAK

--

## AMODIO ERROMANTIKOAREN EREDUA ETA HONEN ONDORIOAK

Gai honi, amodioarena, arreta berezia eskaintzea merezi du, esan dugun bezala, “amodio erromantikoaren idealak” indarkeria ikustea ezinezko egiten duten fantasia eta itxaropenak sortzen baititu, nagusitasun-sumisio harremanak birsortzen dituzten portaeretan hezitzen duen bitartean. Horregatik, funtsezkoa da ereduak sortzea eta lotura osasuntsu, pozgarri eta berdintasunezkoak sortzen dituzten jarreretan hezitzea.

Egia esan, pertsona mota bezainbeste amodio mota daude, eta amodio mota bezainbeste definizio. Bestalde, gizon eta emakumeek, modu desberdinean sozializatuak izan garenez gero, batzuetan gauza desberdin samarrak ulertzen ditugu amodiotzat; beraz, amodio erromantikoaren analisiari genero ikuspegia ezarri beharko diogu hura ulertu ahal izateko eta pertsonen bizitzan duen benetazko eragina ebaluatu ahal izateko.

Sozializazio prozesuan zehar, gure ingurunean bikote harremanaren eredu “egokia” zein den, maitemintzea zer den, zein sentimendu eta jokabide eduki behar ditugun eta zeintzuk ez, zeinetaz maitemintu behar garen eta zeinetaz ez, zein den edo ez den erakargarri (tradiziozko genero rolen ereduarekin bat etorri ohi dena), bikotekideen arteko harremana nola izan behar den (asimetrikoa, berdintasunezkoa), eta abar ikasten dugu. Kasu honetan, berriro, jada aurreratu dugun bezala, tradiziozko sozializazio prozesuak desberdinak izan

dira emakume eta gizonentzat.

Erakarpen eta desira prozesuetan faktore biologiko, kimiko, bat dago, jakina, baina haien gaineko kultura eta hezkuntzaren baldintzapena ukazina da, erakargarri zer den esaten duten eruedetatik, garai bakoitzean aldatu egiten direnak, amodio harremanean egoki eta moldagarritzat jotzen diren jokabideetaraino. Azken hau da interesatzen zaiguna.

Eragina dute baita ere, noski, bakoitzaren historiak, bizitako ikaskuntzek eta lotura ereduak.

Harremanaren eraikuntzan garrantzia handia izango dute familiako lotura ereduak (Bowlby, 1951; Ainsworth, Bowlby 1967; Hazan eta Shaver, 1990), esperientzia goiztiarrek, inguruan dauzkagun ereduak eta norberak berea bezala sentitzen duen generoak, genero bakoitzari egokitutako rol eta mandatuak onartuko baitira, disfuntzioak eraginez sexu-amodio identitatea hartaz espero denarekin bat etortzen ez denean.

Amodio eta sinesmenen gaineko ditugun genero mandatu guztiak “Amodio erromantikoaren mitoa edo ideala” deitzen dugun eredutik datoz, behin barneratuta jarraitu beharreko bizitza-gidoia bideratzen duten berriazko ezaugarriak dituen (Távora, 2007).

Ipuin, abesti, film eta abarren bitartez hezkuntza ereduak behin eta berriz

errepikatutako amodio ideal hau gizarte patriarkalak aitortu, legitimotzat hartu eta onetsi duena da, amodioa bizitza guztirako dela azpimarratzen duena, zorientasuna amodio hori lortzetik datorrela eta amodio horretan bi erdi osatugabe batu eta osatzen direla dioena. Bere muga ezkontza da, testuinguru ezin hobea familia bat sortzeko eta ondorengoak edukitzeko. Beraz, heterosexuala da ere (Altable, 2001).

Horrela, amodioaren lorpena eta bere garapena (maitemintzea, bikote harremana, ezkontza...) emakume askoren bizitzaren oinarritzko ardatz izaten jarraitzen dira, haien bizitza guztiz edo ia guztiz horien inguruan biratzen delarik, “amodiorik gabe bizitza inolako zentzurik gabekoa” dela pentsatzera iritsiz. Bitartean, gizonezkoen bizitzan lehentasunezkoa izaten jarraitzen dena onarpen soziala da, eta, gehienaz ere, amodioak edo bikote harremanak behin lortuta bigarren maila bat betetzen duen “norberaren errealizazio” esparru zentzu bat du (gogora dezagun emakumeen sozializazioaren lehentasunezko norabidea pribatua dena den horri bideratuta dagoela eta gizonena publikoa den horri).

Pilar Sanpedro-ren (2005) iritzitan kulturalki eraikitako ideal erromantikoak XIX. mendean du jatorria, nahiz eta XII. mendeko amodio adeitsuaren idealean inspiratzen den eta gizabanakoari faktore sozial eta psikologikoen inguruan antolatutako amodio jokabide eredu bat eskaintzen dion.

Elementu batzuk prototipikoak dira: **bat-bateko hasiera** (bat-bateko maitemintzea), **bestearekiko sakrifizioa**, **maitasun frogak**, **bestearekin fusioa**, norberaren

bizitzaz ahaztea, **itxaropen magikoak** (guztiz osagarria den izakia (laranja erdia) aurkitzekoa bezalakoa), banakakoek beneran arnasteko eta mugitzeko batak bestearen beharra izango balute bezala portatzen direnean ezartzen den sinbiosi batean bizitzea. Bizitza osorako dela suposatzen den afektu batetaz ari gara, beraz **behin betikoa** (“beti maitatuko zaitut”), **exklusiboa** (“ezingo dut inoiz norbait zu baino gehiago maitatu”, laranja erdiaren mitoa), **baldintzarik gabekoa** (“oztopoak oztopo maitatuko zaitut”), **uko egite** maila handia dakarrena (“nere bizitza baino gehiago maite zaitut”) eta **heterosexuala** da.

Josetxu Riviere (2011) ere bat dator analisi berean: emakumearen uko egitearen neurritz kanpoko balioztatzea, baldintza gabezia, guztizko osagarritasunaren mitoa, bereganatzean gizonaren rol aktiboa eta nola emakumearen ezezko erantzunak erronka edo aitzaki bezala ulertzen diren (emakumearen “ezetza” ez da errespetatzen), jabetza eta jeloskortasuna amodio froga bezala eta menpekotasunaren balioztatze baikorra. Autorearen arabera amodio erromantikoaren imajinarioak gizonezkoentzat gordetzen dituen rolak zerikusi handiagoa dute heroi eta limurtzaile figurarekin, rol aktibo batekin.

**Amodioa bizitzeko eredu honek gizonak eta emakumeak toki desberdinetan kokatzen ditu.** Honekin aurkitzen gara: gizon askoren erabakiak bere bikotearekin baino pisu handiagoa dutela, bere uko egiteak txikiagoak direla eta garrantzia gutxiagoko eremuetan gertatzen direla. Hitz batez, desberdintasun eredu bat izaten jarraitzen du, gizon askorentzat egoera pertsonal hobea bat mesedetzen duena.

Clara Coriak (2011) bere aldetik, Marcela Lagarde parafraseatuz honako hau gehitzen du: besteentzako izaki bezala hezi diren emakumeak, askotan maitatuak eta baloratuak izateko aukerak iritzi zilegitua berarengandik at dagoela egitzat hartzeko bere gogo edo ahalmenaren baitan dagoela pentsatzera iristen dira. Emakumeak menpekotasunarentzat programatzen dira eta, horrela, batzuetan menpekotasun hori bestearenganako/besteenganako baldintzarik gabeko amodioarekin nahasten bukatzen dute.

Hori dela eta, oinarrizkoa da eredu hau ezagutzea, arakatu, aztertu eta emakumearengan eragiten duten sinesmen, jarraera, fantasia edo aginduak antzeman ahal izateko.

Haien antzematearen ondoren, zalantzan jarri behar dira eta tratu oneko eta berdintasunezko harremanak bideratzeko beharrezkoak diren aldaketak garatu. Hau helburu erabakigarria izango da gure esku-hartzean.

## AMODIO ERROMANTIKOAREN MITOA

**Amodioa sentimendu bat da, baina maitatzen ikasi egiten da.**

- XVIII. mende bukaeran agertzen den eta guztiz indarrean XIX. mendean jartzen den eredia da.

- Aldaketa bat suposatzen du bikote harremanen ikuspegiari dagokionez, orain bikotea amodio bikain eta sakratu horretatik sortu nahi da.

- Harreman eredu patriarkala jarraitzen du.

## EZAUGARRI OROKORRAK

- BIZITZAKO OINARRIZKO HELBURUA.
- BETIKO.
- ESKLUSIBOA, pertsona bat bakarrik maitatu daiteke. Ez da soilik monogamia kontutan hartzen, baita harremana apurtu ostekoak; “beti maitatuko zaitut, ez zaitu inork ni bezala maitatuko...”.
- HETEROSEXUALA.
- BAT-BATEKO HASIERA, bat-bateko amodioa goستن da.
- PREDESTINAZIOA.
- BAT EGITEA, “bat” izan.
- AMODIO FROGAK, oztopoek amodioa indartzen dutela uste da... eta frogapenak exijitzen dira: “maite banauzu orduan...; hau egiten ez baduzu maite ez nauzula da...”.
- SAKRIFIZIO JARRAITUA
- JELOSKORTASUNA ETA NAGUSITASUNA amodio adierazpen gisa.

## SINESMENAK

- LARANJA ERDIA. Osagarritasunean sinesmena, osagabea zarela delako ustepean.
- ARIMA BIKIA. Bi izakiak berdinak direlako sinesmena.
- “PRINTZIPE URDINA” Gizon hobeezina eta, gainera, salbatuko zaituena.
- “PRINTZIPE BIHURTUTAKO IGELA” Emakumeen amodioak igel bat hoberean bihurtzea lortzen du...printzipe batean.
- AMODIOAK DENA GAINDI DEZAKE. Amodioa edukiz dena gainditzen da... nahikoa da maitatzearein?



## GENERO SINESMENAK, EMAKUMEENTZAT

- JOMUGA da, osatzeko eta errealizatzeko bere bizitzan emakume orok bilatu behar duen oinarritzko helburua... zentzua ematen dio emakumearen bizitzari.
- Amodioa, maitatzea eta maitatua izatea · BIZITZAREN ERDIGUNE bihurtzen da
- PASIBOTASUNA goستن da.
- ZAINTZAILE ROLA esleitzen zaio, ugalketa beharrei, behar emozionaleri eta abarrei dagokionez, besteari atsegina emanez. “Beste-batentzat-izan”.
- EMOZIO-KUDEATZAILEA.
- Bakoitzaren bizitza, nahi, proiektu, denbora eta lekuari UKO EGITEA.
- SAKRIFIZIO gehiego espero da emakumean.
- SAMURTASUNA, leuntasuna eta abar eta OBEDIENTZIA goستن dira maitatzeko modu bezala.
- MENDEKOA eta beharduna.
- SEXUALKI EZ OSO AKTIBOA, “kastoa”.
- FIDELA, urratzea gogorki zigortzen da.

## EREDU HONEN ONDORIOAK

- HETEROSEXUALA. Beste errealitate eta aukerak ukatzen ditu.
- NAHASMENA. JUSTIFIKAZIOA: Amodioarekin nahasten diren jarrerak onartzen dira: xantaiak, mehatxuak, kontrola, jelskortasuna, posesibotasuna.
- Beste helburu batzuei UKO EGITEA sustatzen da.
- GIZABANAKOAREN ASKATASUNA mugatzen da.
- MENDEKOTASUNA bultzatzen da.
- SUFRIMENDUA beharrezkoa eta baikorra dela onartzen da.
- TRATU TXARRA IKUSEZIN bihurtu.
- Es da bestea den bezala ikusten eta onartzen, AUTOENGAINUA ETA BESTEA ALDATZEKO NAHIA dago.
- Soilik “maite zaitut” esatearekin nahikoa da, lotura berriro aktibatzen da.
- DESPAREKOTASUNA ETA ERANTZUKIDETASUN EZA sustatzen eta indartzen da.
- Ez da GATAZKEN KUDEAKETA egokia ikasten. Agintzea/Obeditzea da proposatutako eredia.
- Ez da komunikazioa, mugak ezartzea ezta negoziaketa ere sustatzen.
- Ez da BAKOITZAREN BIZITZAREN GAINEKO ARDURAN trebatzen.
- Emakumea DESAHALDUNTZEN da.

## GIZONENTZAT

- EZ da HELBURU BAKARRA, errealizatzeko honek beste alderdi batzuk garatzea espero da.
- Amodioa EZ da BIZITZAREN ERDIGUNE.
- AKTIBOA.
- ONDASUN MATERIALEN HORNITZAILE rola esleitzen zaio.
- KUDEATZAILE EKONOMIKOA, MATERIALA. Ez da uko egite maila berdina espero, alderantziz, bikotea norberaz arduratzeko eta harremanetik kanpo garatzeko egoera aproposa bezala ikusten da “bakoitza norberarentzat izan”.
- AUSARDIA, INDARRA, NAGUSITASUNA eta AUTORITATEA goستن eta exijitzen da. Familiaren gainontzekoentzat “komenigarria” dena zer den jakiteko ahalmen handiagoa ematen zaio eta bere esana betetzea espero da... “Zerbait inposatzen dizu amodioagatik”.
- ELKARREKIKO MENDEKOA. Nahiz eta maila batean bere Independentzia ondo ikusia den eta sustatu egiten den, mendeko da.
- ARRAZIONALTASUNA.
- SEXUALKI AKTIBOA.
- Fidela, URRATZEA ZIGORTZEN EZ den arren.

## AMODIO-LOTURAK ETA BERDINTASUNEZKO ETA TRATU ONEKO HARREMANAK

### BERDINTASUNEZKO ETA TRATU ONEKO HARREMANAK ETA AUTONOMIA SUSTATU

--

Gizarte egiturak, esan dugun bezala, mundua ulertzeko modua eta harekin eta pertsonekin erlazionatzeko era mugatzen ditu. Gizarte bateko banakakoak afektiboki lotzeko duten era gizarte egitura ulertzeko giltza da; edo, beste era batera esanda, gizarte bakoitzak bere kideak afektiboki ere hezitzen ditu agindutako ordena errepikatu eta mantendu dezaten.

Berdintasunezko harremanak edukitzeko oinarrizko alderdia da sinesmen hauek aldatzea eta beste imajinario kolektibo bat sortuko duten eredu eta erreferentzia maitekor eta erromantikoak sortzea. Hau gizarte osoari dagokion zerbait da, eta borondate politiko bat dakar berekin, osasun, gizarte eta kultura eragile guztiena.

Alderdi pertsonal eta intimoan zein alderdi sozial edo lanekoan, kolektiboan, erlazionatzeko era desberdin bat garatzen lagunduko duten eredu sendo eta koherenteak sortu behar ditugu. Amodio era berriak, pertsona arteko harremanen eta lan esparruko harremanen modu berriak, lidergoak erabiltzeko era berriak, gatazkak konpontzeko modu berriak eta abar behar dira, eremu parekideak sortuko dituztenak (Arango Cálad, 2002).

Psikologiaren esparrutik ere, bai prebentzio mailan, bai esku-hartze mailan, harremanetan tratu oneko eta berdintasunezko jarrera eta jokabideak bultzatu eta trebatu behar ditugu; baita bikotearen barnean ahalduntze pertsonala sustatu ere (Fernández-Llebrez, F. y Caro, M<sup>a</sup>. A. 2010).

Tratu txarra eta tratu ona ardatz berdineko bi puntu dira. Tratu ona sustatzeko garrantzitsua da ikasitako elkartzeko modua berrikustea eta osasuntsuagoak diren beste moduak indartzea.

Horregatik **“aldaketarako oinarrizkoak dira baterako hezkuntza afektibo-emozionala, doluak egiteko ikaskuntza, frustrazioarekiko tolerantzia, esparru pertsonala eta tratu onetatik abiatutako amodio eredu baten sorkuntza”** (Sanz, 2004).

Maila terapeutikoan, Ahalduntze adierazleak harremanetan kontuan hartu eta berritu behar ditugu eta, bertatik abiatuta, esku-hartze programa diseinatu.

### **Tratu oneko eta berdintasunezko harremanak sortzeko jardunbideak**

- Amodioaren inguruko mito eta sinesmenak berraztertu.
- Elkarrekikotasuna: ematen eta jasotzen ikastea.
- Rolak trukea eta erantzukidetasuna.
- Amodio gidoi eta fantasiak berraztertu: amodio harremanaren inguruan zein itxaropen zituen edo dituen, nola kokatu ohi den harreman afektiboetan.
- Fusio-banantzea. Alde batetik, konfidantza sustatu, beste pertsonarekin irekitzea, eta, bestetik, autonomia sustatu, jarduerak bakarrik edo beste pertsona batzuekin burutu, erabakiak hartu, etab. (Sanz, 2000).
- Gune pertsonalak, bakoitzaren gunea sortu, sare afektiboak afektu eraikitze gunea gisa.
- Doluak: prozesua lagundu.
- Muga osasuntsuak ezartzen ikastea.

Emakume eta gizonak aldakuntzan gaude, erduei eta genero identitateei esanahi berria ematen (Coria, Freixas eta Covas, 2005). Maitatzeko eta elkartzeko beste modu batzuk eraikitzen ari gara eta benetazko tratua ona suposatzen duen BERDINTASUNETIK MAITATZEKO eredu berria eta duintasunaren, elkarrekikotasunaren eta norberaren askatasunaren zentzuan sakontzen jarraitu behar dugu (Castells eta Subirats, 2007; Bergara, Riviere, Bacete 2008).

Gizon eta emakumeen arteko harreman ereduak kanpotik barrutik baino azkarrago aldatzen ari dira. Eta hau honela gertatzen da barne edo banakako mailan txertatutako botere harremanak planteamendu ideologikoak baino iraunkorragoak direlako aldaketan aurrean, barne mailan aldaketak erritmo desberdinean gertatzen direlako, motelagoak dira (Lorente, 2003; Lomas 2004).

Hezkuntza afektibo-sexual-emozionalak berdina izan behar du bi sexuentzat; gure emozioak era egokian maneiatzen utzi behar gaitu, baita modu asertiboan adierazten, gure desioak sentitzen eta bestearekin negoziatzen, gatazkak bien interesak kontuan hartuta konpontzen, frustratzen eta doluak egiten ikasten utzi behar gaitu, agurtzen eta berria dena jasotzen ikasten, askatasun guneak ematen, elkarzaintza eta haztea ahalbidetzen duten loturak sortzen eta harreman pozgarri eta parekideak ahalbidetuko dituen amodio-irajinariorik berri bat garatzen ikasten uzten duena.

Eta norberarekiko maitasuna oinarrizko ikasketa bat da. Azken finean, gure burua maitatzea pertsona bezala dugun duintasuna eta duintasunezko egoeran bizitzeko eskubidea aitortzea da, gure muga, gure historia eta gure garapen erritmoarekin. Bakoitzarekiko maitasun eta errespetuak gainontzekoak maitatzen eta errespetatzen laguntzen du.

Azken finean gure bizitzaren jabe izaten uzten ez digun guzti hori aztertzea da helburu, berdintasunezko harremanak ezartzeko, alderdi pertsonalean lan eginez eta alderdi kolektiboaz jabetuz hura aldatzeko.

# V. MODULUA

## ESKU-HARTZE TERPEUTIKOAREN INGURUKO MODULUA

### HELBURU TERAPEUTIKOAK

--

Gipuzkoako Aldundiak eta Gipuzkoako Psikologia Elkargo Ofizialak garatutako Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako Esku-hartze Psikologikoko Programak hurrengo helburu terapeutikoak ebaluatzea erabaki du.

#### HELBURUAK:

1. Arriskuaren ebaluazioa.
2. Tratu txarraren hautematea.
3. Ahalduntzea.
4. Sintomatologia klinikoa.
5. Aldaketak eremu sozialean.

#### 1. ARRISKUAREN EBALUAZIOA

- a. Autobabeserako neurriak.

#### 2. TRATU TXARRAREN HAUTEMATEA

- a. Indarkeriaren zikloa aztertu.
- b. Bere VAD'i adierazleak aztertu.
- c. Pairatutako indarkeria aztertu.
- d. Seme-alabengan edukitako eragina aztertu.

#### 3. AHALDUNTZEA:

- a. Mito eta sinesmenen aldaketa.
- b. Autobaieztapena.
- c. Erregulazio emozionala.
- d. Asertibotasuna eta erabakiak hartzea.
- e. Autonomia eta berdintasunezko eta tratu oneko harremanak sustatu (Mendekotasun emozionala).

#### 4.SINTOMATOLOGIA KLINIKOA

#### 5. ALDAKETAK ERREALITATE SOZIALEAN

- a. Trebetasun sozialetan entrenamendua
- b. Jarduera sozialen garapena eta laguntza sozialeko sarea
- c. Lan Eremuari dagokionari aurre egin

#### 6.AURREGOGOETAK

- Kontaktu mota eta profesionalean duen eragina
  - Kontzientzia maila
  - Indarkeria edo/eta ondorioen mota eta larritasuna
  - Arreta non jarri erabaki
  - Indarkeriaren fasea
  - Gatazka eremuak
  - Esku-hartzearen norainokoa
  - Segurtasuna
- 

## PROGRAMA TERAPEUTIKOKO ESKU-HARTZEA

--

- **Harreman psikologikoa**
  - Lasaialdia ahalbidetu
  - Entzute aktiboa
  - Lasaitasun eta segurtasuna eman
  - Bere emozioak bideratu eta eutsi
  - Enpatia azaldu
  - Itxaropena transmititu
  - Indarkeriaren aurkako jarrera hartzea azaldu
- **Ekintzara lagundu**
  - Arazoa aztertu
  - Indarkeria aztertu
  - Bitarteko eta eskubideak jakinarazi
  - Erabakiak hartzea sustatu
  - Arriskuaren balorazioa
- **Segurtasuna eskaini**
  - Erasotzailetik urrundu.
  - Harrera baliabideak eman.
  - Etxera itzulera.
  - Autobabeserako baliabideak eman.
  - "Haustura ebolutibo" bati eutsiz.

- **Suspertze emozionala**

- Indarkeria ikusgai egin
- Lan espezifikoak hauen inguruan:
  - o Sinesmen okerrak
  - o Genero rolak
  - o Alderdi emozionalak
  - o Gaitasunak
  - o Laguntza sareak
- Lan intrapsikikoa: gertaera traumatikoario esanahi berri bat eman.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUAK	HELBURU TERAPEUTIKOAK
1. ARRISKUAREN EBALUAZIOA a. Autobabeserako neurriak.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aurre-egite estiloak ezarri.</li> <li>• Bere baliabide pertsonalak sustatu.</li> </ul>
2. TRATU TXARRAREN HAUTEMATEA a. Indarkeriaren zikloa aztertu. b. Bere VAD adierazleak aztertu. c. Pairatutako indarkeriaren tipologia aztertu. d. Seme-alabengan edukitako eragina aztertu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Informazioa itzuli: Eredu esplikatiboaren azalpena eta tratamendu proposamena.</li> <li>• Trauma ondoko estresaren nahasmenduaren (TOEN) inguruko Psikohezkuntza. Ohiko erantzun traumatikoen inguruko informazioa.</li> <li>• Indarkeria Zikloaren inguruko Psikohezkuntza.</li> <li>• Abusua aipatu. Bere tratu txarreko esperientziak balioetsi.</li> <li>• Indarkeriak seme-alabengan duen eraginaren inguruko Psikohezkuntza.</li> </ul>
3. AHALDUNTZEA: a. Mito eta sinesmenen aldaketa. b. Autobaieztapena. c. Erregulazio emozionala. d. Asertibotasuna eta erabakiak hartzea. e. Autonomia eta berdintasunezko eta tratu oneko harremanak sustatu (Mendekotasun emozionala).	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sinesmenen berrikusketak.</li> <li>• Arazoen berrikusketak.</li> <li>• Erruduntasun eta lotsa sentimenduei arreta jarri.</li> <li>• Gauza onen balorazioa. Norberaren inguruko inbentarioa (Guia/diario de una mujer libre pdf.).</li> <li>• Lan intrapsikikoa: gertaera traumatikoari esanahi berri bat ematea.</li> <li>• Asertibotasunaren inguruko Psikohezkuntza.</li> <li>• ARI-aren erabilera. Aztertu eta baloratu.</li> <li>• Loturaren bitarteko berreraikuntza afektiboa.</li> </ul>
4. SINTOMATOLOGIA KLINIKOA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Arnasketaren kontrol-teknika.</li> <li>• Ariketa fisikoa.</li> <li>• Erlaxamendu teknika.</li> <li>• Harremanaren hausturagatiko doluaren lanketa.</li> <li>• Tratu txarren biktima den emakumearen Sindromearen inguruko informazioa.</li> </ul>
5. ALDAKETAK ERREALITATE SOZIALEAN a. Trebetaun sozialen entrenamendua. b. Jarduera sozialak garatu eta gizarte laguntza sarea. c. Lan eremuari dagokionari aurre egin	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zeregin eta jarduera atseginen programazioa.</li> <li>• Afektua adierazten eta jasotzen entrenamendua.</li> <li>• Harreman sozialak hasi eta mantentzean entrenamendua.</li> </ul>

## ARTATUTAKO PERTSONEN SEME-ALABEI ARRETA

--

Familia-eremuan ematen den emakumeenganako indarkeriak eragina du ere familia osatzen duten adin txikikonegan. Haurrak amen gaineko indarkeriaren biktima dira, eta biktima dira indarkeria psikologikoko kasu guztietan eta, batzuetan, baita ere indarkeria fisiko zuzeneko kasuetan. Hauek dira genero indarkeriak adin txikikoengan dituen ondorioetako batzuk:

- Sozializazio arazoak: isolamendua, segurtasun-gabezia edo agresibitatea.
- Eskolan integratzeko arazoak: kontzentrazioa falta, errendimenduaren gutxiagotzea, etab.
- Trauma ondoko estresaren sintomak: loezintasuna, amesgaiztoak, fobiak, antsietatea.
- Depresio-sintomak: negarra, tristura, isolamendua.
- Afektibitate-garapenaren aldaketak, emozioak maneiatzeko zailtasunak eta genero rol okerren barnerapena bezala.
- Kasu batzuetan, heriotza.

Baldintza hauetan eman daiteke adin txikikoen genero indarkeriarekiko esposizioa:

- Indarkeriazko gertakaria ematen den unean adin txikikoa aurrean dago modu zuzenean.
- Beste gela batetan egonda, “beste aldean gertatzen ari dela uste duena” entzuten du.
- Entzuten eta ikusten ez duen beste batzuetan, gertatzen ari daitekeena susmatzen du.

Egoera hauetako edozeinetan eragindako kaltea ebaluatu behar da, eta hasiera batean, ez dago onberagoa denik. Beharrezko bihurtzen da, beraz, jarduera profesionalaren bitarteko jardunbide egokien eransketa, antzematen diren kasuak modu egokian artatu eta lantzea ahalbidetzen duten jarduketa-protokoloen sorpena eta sareko lana sustatuz.

Genero indarkeriaren biktima diren adin txikiko seme-alabei buruzko atal hau burura datorkigun galdera batekin hasi nahi dugu. **Zer behar du haur batek emozionalki osasuntsu hazitzeko eta besteekin harreman onak ezartzeko gai izateko?** Lotura osasuntsu eta segurua behar du bere bizitzako lehen urteetan bere hazkuntzaz arduratu diren helduekin.

Oso txikia denetik, haurtxoa bere guraso-figuren gogo-aldarte hautemateko gai da, begirada, irribarrea eta kontsolamendua bilatuz lasai eta alai sentitzeko. Aitzitik, haurrak lasaitasun eta bere gurasoen jasotze (kontentzio) onik ez duenean bizitzako lehen hila-beteetatik aurrera antsietate eta urduritasuna sortzen joaten da. Haurtxoak bere guraso-figurekin sortzen duen harreman motak eta euren artean ezartzen den harremanak eragin zuzena du haurraren garapen emozionalean.

Haur bakoitzak, igarotzen ari den etapa ebolutiboaren arabera, gaitasunak eskuratzen doa bere garapen eremu desberdinetan, heltzearekin zuzenean lotuta daudenak. Haurrek etapa hauek igarotzen dituzte, baina jokabide hauek agertzen direnean desberdindu egiten dira familia eta inguru sozial desberdinetan murgilduta bizi direlako.

Haur-psikologiako ikerketek garrantzia handia ematen diote lehen haurtzarotik haurraren eta bere atxikimendu-figuren arteko lotura mota desberdinek garapen prozesuaren gainean duten eraginari.

Genero indarkeriaren biktima diren emakumeekin lan egiteak euren seme-alaben garapen-baldintzen zaintzaren gainean arreta jartzera behartzen gaitu. Genero indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alaben arretan erantzun egokiak bermatzeko gomendagarria da haurraren garapen ebolutiboaren azterketa egitea, garapen psikomotorra, kognitiboa eta sozioafektiboa aztertuz.

## **HAURREN GARAPENAREN ETAPAK** **BEHARRAK ETA ADIERAZLEAK**

Egokia gertatzen da haurren garapen ebolutiboaren inguruko ideia orokor bat eskaintzea, haurrak bere hazkuntzan zehar eskuratzen dituen lorpenen inguruko zenbait adierazle bitartez.

Hiru eremu hausnartu dira: eremu psikomotorra, gaitasun fisikoak barne hartzen dituena, eremu kognitiboa, pentsamendu, lengoia, ikasketa eta memoriari dagokiona, eta, azkenik, eremu sozio-afektiboa, afektibitate-harremanak, sozializazioa eta identitatearen osaketa barne hartzen dituena.

## **0 - 2 URTE BITARTEKO HAURREN GARAPENA**

### **Garapen psikomotorra**

- Bularraren bilaketa eta xurgatze erreflexua (Jaiotzaren unean)
- Oratze-erreflexua (Jaiotzaren unean)
- Objektu bat sostengatzen du bere eskuetan (4 hilabete)



- Bira osoa ematen du (6 hilabete)
- Ahoz behera etzanda burua altxatzen du (6 hilabete)
- Eseri egiten da (8 hilabete)
- Arrastatu egiten da (9 hilabete)
- Pilota jaurtitzen du (10 hilabete)
- Lau hankan ibili (10 hilabete)
- Koilara hartu eta ahoan sartzen du (urte 1)
- Euskarri batekin zutik jartzen da (10 hilabete)
- Bakarrik ibiltzen hasten da (urte 1)
- Oso ondo erabiltzen ditu eskuak eutsi eta askatzeko (urte 1 eta 6 hilabete)
- Oso ondo ibiltzen da (urte 1 eta 7 hilabete)
- Esfinterrak entrenatzen hasten da (urte 1 eta 8 hilabete)
- Erori arren, korrika egiten du (2 urte)

### **Garapen kognitiboa**

- Jaiotzerakoan mundua zentzumenen bitartez aztertzen du, ahoaren eta objektuen maneiatzearen bitartez.
- Irribarre erreflexua du jaiotzaren unetik.
- Negar egiten du bere beharrak adierazteko.
- Aurpegi eta soinu ezagunak antzematen ditu (4 hilabete)
- Objektu bat jarraitzen du begiekin (4 hilabete)
- Heldu batekin kontaktuan dagoenean zizakatu eta barre egiten du (4-6 hilabete)
- Joan den objektu bat bilatzen du (8 hilabete)
- Soinuak imitatzen ditu (9 hilabete)
- Lehen hitz edo soinuak (urte 1)
- Ikusi ezin dituen arren gauzak existitzen direla ulertzen du, hau da, bere buruaz harantzago mundua dagoela onartzen du (18 hilabete)
- Agindu errazak ulertu eta burutzen ditu (1-2 urte)
- Bigarren urtearen amaieran interes komunikatibo handia sortzen da haurraren, 50 hitz inguru ezagutzen ditu eta bi hitzeko esaldiak egituratzen ditu.

### **Garapen sozio-emozionala**

- Bere atxikimendu figurarekiko erabateko mendekotasuna, zainketa fisiko, higiene eta laztanen bitartez jasotzen den konfidantzaren eraikuntza.
- Begirada, keinu eta ahoskatzeen trukea.
- Negarra edo/eta lotsa ezezagunen aurrean (8 hilabete)
- Atxikimendu loturen eraikuntza.
- Negar, keinu, zizakadura eta lehen hitzen bitartez, haurrak bere nahi eta beharrak jakinarazten ditu. Gurasoek eskaera hauek asetzeak segurtasuna eta indarra ematen dio haurrari.

- Objektuen ezaugarriak ezagutzen hasten da.
- Jolasa esploratzeko da.

#### **Alderdi larriak:**

- Haurra gauean hainbat aldiz esna daiteke.
- Negar iraunkorra aurkez dezake dagoeneko jana emanda eta oihala aldatuta dagoenenan.
- Negarra ezezagunen aurrean eta oso gertukoak ez diren pertsonengatik altxatua izateko errefusa.
- Eskura dituen objektu guztiak ikutzeko nahia
- Etengabe jolasteko edo jarduerak burutzeko eskaera
- Amorrualdi edo haserrealdien gehitzea.

### **0 - 2 URTE BITARTEKO HAURREN BEHARRAK**

#### **Behar fisikoak:**

- Amagandiko edoskitzea edo horren ezean edoskitze artifiziala.
- Elikagai berrien eransketa haurraren adinaren baitan (janaria inoiz ez erabili sari edo zigor moduan).
- Osasun eta garapenaren gaineko pediarraren aldizkako kontrolak.
- Adin bakoitzari dagozkion txertaketak.
- Higiene fisikoari arreta (Gauero bainatzea gomendatzen da).
- Baldintza klimatikoei egokitutako jantziak.
- Lo eta atsedenaldirik ordu kopuru egokia. Ordutegi egonkorra eta haurraren beharrekin bat datozenak. Ohera joateko, bainua emateko eta jateko orduen errutina bat ezartzea funtsezkoa da haurraren antsietatea ondo kontrolatzeko.
- Beste zaintzaile batzuen jokabidearen gainbegiratzea.
- Etxean ariketa eta jarduera eskaintza.
- Tabakismo pasiboaren saihestea.
- Segurtasuna automobiletan.
- Istripu prebentzio eta segurtasunari egokitutako etxe-ingurua, jolas askea eta lau hankara eta zutik ibiltzen ikasteko aukera eskainiz (entxufeak babestu, eskaileren segurtasuna).

#### **Afektibitate-beharrak:**

- Lotura afektiboen eraikuntza. Zaintzaile bat edo gehiagoren presentzia egonkorra. Helduaren gogo-aldarte haurtxoari kutsatzen zaio, bere negarrarekin ez larritzen saiatu behar da eta bere adineko alderdi normal bat dela ulertu.
- Zaintzaile bat baino gehiago egon dadin saiatu, hazkuntza zereginak banatu eta nekea saihesteko.

- Jolas denbora eta tokiak eta haur eta helduekin interakzioa:
  - Musika jarri.
  - Objektu disdiratsuak eta mugitzen direnak erakutsi.
  - Ikutu, jaurti eta kosk egin ditzaketen objektuak eman.
  - Haurtxoa entzun eta bere soinuak errepikatuz erantzun.
  - Maiz hitz egin haurrari. Haurtxoek hitz egin ahal izan aurretik ulertzen dute, ezin da dena errepikatzea eta ulertzea espero.
- Norberaren gorputzaren miaketa.
- Autonomiaren eraikuntza: “nik bakarrik egin dezaket” bezalako jarreretan lagundu.
- Indarkeriarik gabeko berdinen arteko harremanen sustapena.
- Urte bateko adinetik aurrera, bakarrik mugitzeko eta bere hitzekin komunikatzeko gaitasuna dela eta garatzen doan independentzia sena finkatzen hasi behar zaie.
- Pixontzia erabiltzen erakusten hasteko unea abisatzeko mintzaira duenean eta bere gorputza sabel-hustuketarako prest dagoenean da.

## **2 - 7 URTE BITARTEKO HAURREN GARAPENA**

### **Garapen psikomotorra**

- Koilara eta edalontzia erabiltzen daki (2 urte).
- Bi oinekin egiten du salto (2 urte eta 6 hilabete).
- Dorreak eraikitzen ditu sei kuborekin (2 urte eta 6 hilabete).
- Esfinterren gaineko kontrola (2-3 urte).
- Korrika egiten du, salto egiten du, eskailerak igo eta jaisten ditu, objektu pisutsuak hartzen ditu (3 urte).
- Begien eta mugimenaren koordinazioaren garapena fina (3 urte).
- Oin-puntetan ibiltzen da (3 urte).
- Eskailerak jasiten ditu oinak txandakatuz (3 urte).
- Liburu baten orriak pasa ditzake (3 urte).
- Bakarrik janzteko gai da (3-4 urte).
- Pilota urrutira jaurtitzen du (4 urte).
- Mugimendu eta bulkaden kontrol ona (4 urte).
- Jaurtitzen dioten pilota bat har dezake (5 urte).

### **Garapen kognitiboa**

- Pertsonak edo objektuak IRUDIKATZEKO hitzak bezalako sinboloak erabiltzeko gaitasuna, edo objektu bat beste objektu bat gororarazteko, koilara bat telefono bat izan daiteke (2 urte).
- Esaldi errazak egituratzen dituzte (2 urte eta 6 hilabete)
- Esaten zaion ia guztia ulertzen du (2 urte eta 6 hilabete).

- Ikusten ari ez den ekintzak imitatzen ditu (3 urte)
- Gauzen zergatiarekiko jakin-min handia agertzen da (3 urte)
- “Ni”aren kontzeptua agertzen da (4 urte)
- Genero eta kopuruen nozioa (4 urte)
- Lengoaia ondo eratua, esaldi konplexuak egituratzen ditu (5 urte)
- Irakurtzen eta idazten ikasten du (5-6 urte)
- Memoria eta arreta modu adierazgarrian handitzen dira.
- Bere hiztegia handitzen da.
- Kausa-ondorio harremanak ulertzen ditu,
- Pentsamen intuitiboa garatzen du.

### **Garapen sozio-afektiboa**

- Autonomia garatzen du mungimendu eta lengoaiaren bitartez.
- Autozaintza ohiturak hartzen ditu: jantzi, garbitu eta dutzatu.
- Egozentrismo eta bestearen lekuan jartzeko zailtasun handiko etapa (4 urte arte).
- Amorrualdi eta haserraldiak agertzen dira, bere lotura-figuretatik aldendu nahi duelako, baina hauek bere zerbitzura egoten jarraitzea nahi du.
- Lagunekin partekatzen dute eta modu kooperatiboan jolasten ikasten dute.
- Genero identifikazioa.
- Gorputz eta sexualitatearekiko jakin-mina. Haurren jaiotzagatik eta bikote harremanengatik kezkatzen dira.
- Madarikazioek grazia egiten diete.
- Heldu gertukoenen eredu eta irakaspenen bitartez arauaren kontzeptua ulertzen eta onartzen du.
- Bere lotura figura nagusietan oinarritutako ideala eraikitzen du.
- Fantasien garapen handia, bere jolas eta idealak hauetan oinarritzen dituzte.
- 5 urtetatik aurrera, haserraldiak gutxiagotu egiten dira, bere ingurunean integratu daitekeelaz ohartzen da eta bere inguruneak onartzea bilatzen du.
- Etxeko zereginetan laguntzeko nahia eta irakasleari laguntzeko nahia agertzen dira.
- Gaueko beldurra agertzen dira, animaliekiko beldurra, munstroekiko beldurra, etab.

### **Alderdi larriak:**

- Gurasoen atsedena eteten duten gaueko ikara gehiago.
- Amorrualdi eta haserraldien bitartez heldua zirikatatu bere nahiak bete ditzan, helburu duna lortzeko manipulazioa.

## 2 - 7 URTE BITARTEKO HAURREN BEHARRAK

### **Behar fisikoak:**

- Bere adinaren arabera elikaduraren egokitzapena.
- Lo egiteko ordutegi egokien arautze eta ezarpena.
- Bakarrik jaten erakutsi.
- Eman litezkeen zentzumen-urritasunen gainbegiratzea.
- Motrizitate fin eta larriaren gainbegiratze eta sustapena.
- Esfinterren kontrolaren gaineko heziketa. Haur-oihala hasieran egunez kendu eta ondoren gauez. Gogoratu behar da gaueko oihala kentzen zailagoa dela eta esfinterrak kontrolatzeko mutilek neskak baino denbora gehiago behar dutela.
- Bere adinaren eta talde arriskuen edo arrisku pertsonalen arabera txertaketak.
- Bere higiegi fisiko mantentzen erakutsi, aho-hortzetakoa barne.
- Tabakismo pasiboa sihestu.
- Automobiletako segurtasunaren egokitzapena.
- Segurtasunari egokitutako eskolaren antolaketa.
- Bide-hezkuntza, igeri egiten eta bizikletan ibiltzen erakustea.
- Lotara joateko errituak eta loaren higiegi sustatu.

### **Afektibitate-beharrak:**

- Arauen ezarpena:
  - Guztien artean erabakitzen da, baina azkeneko hitza gurasoek dute; hau haurrak parte har dezan, ulertu dezan eta erabaki duenaren ardura har dezan egiten da.
  - Gutxi izan daitezela.
  - Argi eta errazak, haiek idatzi edo marraztea lagungarri izan daiteke.
  - Haietaz etxeko kide guztiekin hitz egiten eta guztiek dagokiena bete dezatela: koherentzia eta eredia.
  - Modu lasaiean behar adina aldiz errepikatu.
  - Gatazka dagoenean haien inguruan ez hitz egin.
  - Jarraipena eman.
- Berdinen arteko parte-hartze eta elkarrekintza.
- Jolas sinbolikoak eta arau jolasak.
- Estimulazio egokia, fisikoa zein intelektuala.
- Harreman gune zabal eta askotarikoa
- Sexu-nortasun baten eskuratzea.
- Indarkeriarik gabeko berdinen arteko harremanen sustapena.
- Sexuaren inguruko jakin-minaren adierazpenak eta norberaren eta berdinen arteko lehen jolas sexualak onartu eta ez zentsuratu. Haien galderak erantzun eta informazioa eman euren inguruan hautematen dutena uler dezaten.

- Sexu-abusuaren aurkako autobabeserako tresnak garatzea.
- Webgune eta telebistaren bitartez jasotzen duten informazioaren gaineko kontrol eta babesa.
- Lo egiteko arazoak baditu, hurrengoa gomendatzen da:
  - Bere beldurrak entzun eta babes sentsazioa eskaini, lo ikarak izatekotan hura lasaitzeko.
  - Babestu laguntza eskatzen duenean.
  - Ura edatera eraman eta ohera lagundu lo gelditzen den arte.
  - Lo egin baino lehen larrituko duten filmak ikusi ez ditzan saiatu eta egunean zehar norbaitekin borrokatu baldin bada haiekin adiskitzen lagundu. Horrek lasaigo lo egiten lagunduko dio.

## **7 - 12 URTE BITARTEKO HAURREN GARAPENA**

### **Garapen motorrra**

- Pisu eta alturari dagokionez azkar handitzen da.
- Mugimendu ahalmen finak nabarmenki garatzen ditu (margotu, moztu, idatzi)
- Normalean taldekoak diren joko, kirol edo beste jarduera fisiko batzuen bitartez (dantza, futbola, bizikleta) indarra, bizkortasuna eta bere gorputzaren gaineko kontrola eskuratzen ditu.

### **Garapen kognitiboa**

- Bere egozentrismoa jaitsi egiten da eta besteengatiko eta bere inguruagatiko jakin-min handiagoa agertzen da, kontzeptu berriak ulertu eta erabiltzera daramana.
- Gauza bat aldatu eta ondoren berriro lehen zegoen bezala egotera bueltatu daitekeelako kontzeptua (itzulgarritasuna) ulertzen du.
- Gauzak formaz aldatu arren, euren konposaketa, pisua, bolumena, altura, kopurua eta espazioa mantentzen dutela (kontserbazioa) ulertzen dute.
- Eztabaida eta argudiaketa agertzen dira.
- Gauzak kategoriatan sailkatzen eta hierarkizatzen ikasten du.
- Moral eta arauen inguruko gogoeta.
- Jardun baino lehen pentsatzen ikasten du.

### **Garapen sozio-afektiboa**

- Gizarte-funtzionamendua eta bere arau eta eskakizunak ikasten ditu.
- Bere adineko jendearekin elkar bizitzeko behar handiagoa. Mutilak mutilekin elkarbizi dira eta neskak neskekin, ez dituzte atsegin aurkako sexuko pertsonak.
- Bere nukleo-sozialean leku bat lortu nahi du, etxean zein lagunekin, besteen onarpena (batez ere gurasoena) funtsezkoa da bere autoestimuaentzat.

- Gutxiagotasun sentimenduak eduki ohi ditu eskolan, familia-nukleoaren laguntza oso garrantzitsua da bere krisiak geldiarazteko.
- Bere energia jarduera kreatibo eta konplexuetan kanalizatzen du fase honetan, honek bere identitatearen gaineko segurtasuna sentitzera darama.
- Emankortasunak eta lehiak garrantzia gehiago hartzen dute, eta osasuntsuak dira neurrizkoak badira.

#### **Alderdi larriak:**

- Eskolako etxeko lanak egiteko motibazio falta.
- Haurrek beti etxetik kanpo lagunekin jolasten egon nahi lukete.
- Aurre egiten hasten dira eta independentzia gehiago lortzeko borroka egiten dute.

### **7 - 12 URTE BITARTEKO HAURREN BEHARRAK**

#### **Behar fisikoak:**

- Elikadura eta nutrizioaren inguruko hezkuntza.
- Laguntzarik gabeko aho-hortzetako higieena.
- Lo ordutegi egokien arautze eta ezartzea.
- Ohitura toxiko edo mendekotasun ohituren prebentzioan hezkuntza.
- Bide-hezkuntza bakarrik doazen haurrentzat.
- Kanpoko ariketa eta jarduerak.
- Bakarrik daudenean janzkera eta etxearen garbiketa beharrak asetzen erakutsi.
- Adinari dagozkion txertaketak.
- Pubertaroko garapenaren, zentzumen-urritasunen edo ikaskuntza aldatzen duten kausa fisikoen gainbegiratzea
- Esfinterren kontrol okerrean esku-hartzea.
- Elikadura-higieena eskoletako jangeletan eta istripuen prebentzioa eskolan.
- Segurtasuna jolasleku eta lorategietan.

#### **Afektibitate-beharrak:**

- Bere adinari egokitutako sexu-hezkuntza.
- Eskola barneko eta kanpoko hezkuntza.
- Aisialdi guneak.
- Parte-hartzea familiako erabakietan.
- Berdinen taldearen eraikuntza eta sendotzea.
- Indarkeriarik gabeko berdinen arteko harremanen sustapena.
- Arauen ikasketa.
- Aldaketa emozionalen adierazpen eta kontrola.

## 12 - 18 URTE BITARTEKO HAURREN BEHARRAK

### **Garapen motor eta fisikoa**

- Funtzio motorrak heldu egin dira jada, nahiz eta etaparen berezko aldaketa fisikoek baldartzen dituzten.
- Bigarren mailako karaktere sexualak agertzen dira (11-13 urte): biloa, ahots aldaketa, gorputzaren aldaketa.
- Ugalketa funtzioen heltzea (menarkia emakumeetan, espermaren agerpena gizonetan).
- Gosea, suminkortasuna, izerdia eta gogo-aldartearen ezgaraiko aldaketak sortzen dituen hormonen jarduera handia.

### **Garapen kognitiboa**

- Nebareek pentsamendu abstraktua garatzen dute.
- Presente dauden edo ez dauden egoera desberdinen inguruko hipotesiak burutzen ditu.
- Norberaren eta bere idealen inguruan amets egin ohi du.
- Fenomeno bat osatzen duten hainbat faktorez osatuta dago.
- Norberaren eta honen inguruaren gaineko arazo intelektualak eman daitezke.
- Bere hezkuntza eta kultura mailaren arabera maila desberdinetan arrazoiketa moralak garatzeko gai da:
  - Hasiera batean, nerabeak arau moralak besteen atseginekoa izateko onartzen ditu.
  - Gero barneratu egiten ditu eta sozilaki onartutako bi arauen arteko gatazka batean sar daiteke.
  - Aurrerago, bere ongizateaz gain, gainontzekoenaz ere interesatzen da.
  - Azkenik, modu unbiertsalean ezartzen dituen barneratutako arauak onartzen ditu, horrela jardungo ez balitz bere burua zigortuko lukeela jakinez.

### **Garapen sozio-afektiboa**

- Bere zeregin garrantzitsuena identitatearen bilaketa da. Honek nolabaiteko konfusioa dakar, heroi eta idoloekiko gurtza, haur-inpulsibotasun eta gainontzeko pertsonetikiko intolerantzia islatzen dena.
- Bere erreferentziatzko figuretatik desberdintzeko duen beharra dela eta jokabide menderakaitzak aurkezten ditu, haien mendeko izaten jarraitu arren.
- Badira ere ingurunearen eskakizunen aurrean lotsati eta beldurti bihurtzen direnak, nahiago dute bakarrik edo identifikatzen diren beraien adineko jende gutxi horrekin egon.



- Oinarrizkoa da beraien adin berdineko lagunen talde bateko kide izatea, talde-identitateak “munduan leku bat zihurtatzen” dion pertenezia-sentimendu hori sendotzen baitu.
- Gauza berriak bizi eta sentitu nahi ditu eta rol desberdinak (bikote rola barne) jokatu nahi ditu. Orokorrean, hau emakumeetan ematen da gizonetan baino lehen.

### **Alderdi larriak**

- Desberdintzeko beharra duela eta, guraso edo irakasleak bezalako figuren aurrean kontrakoak eta kritikoak diren jarrerak aurkezten ditu.
- Bat-bateko aldarte aldaketak.
- Itxura fisikoaren gaineko gehiegizko kezka.
- Berdinen taldera egokitzeko kezka gehiegi.
- Batzuetan heldu bezala eta beste batzuetan haur bezala tratatua izatea exijitzen du.

## **12 – 18 URTE BITARTEKO HAURREN BEHARRAK**


### **Behar fisikoak:**

- Adinaren araberako elikadura eta nutrizioaren inguruko hezkuntza.
- Aho-hortzetako higieena.
- Sexu-heltzeari egokitutako higie fisikoa.
- Segurtasuna kirol jardueretan.
- Adin talde honetarako sexu-orientabidea.
- Sexu-transmisiozko Gaixotasunen (STG) eta haurdunaldiaren prebentzioa.
- Adinari dagozkion txertaketak.
- Gaixotasunen baten aurrean nerabearen autozainketa gaitasuna.
- Lo egiteko jarraibide erregularrak.

### **Afektibitate-beharrak:**

- Indarkeriarik gabeko berdinen arteko harremanen sustapena.
- Bere guraso eta erreferentziazko figurekin jakin-mina sortzen dioten gaien inguruko hizketaldi irekiak (sexua, drogak, bidaiak...).
- Arau eta zigorren birplanteamendua bere adinaren arabera, beti bere iritzi eta kezkak kontuan hartuz.
- Afektu edo bikote harremanak.
- Eskola barruko eta kanpoko hezkuntza.
- Tabako, droga eta alkoholaren gehiegizko erabileraren inguruko informazio egoki eta egiazkoa.

## HAUR-GARAPENAREN INGURUKO HAIZEA-LLEVANT TAULA



Behin adin txikikoen garapenaren alderdi garrantzitsuak errepasatuta, genero indarkeriarekin eta honek haurrengan dituen ondorioekin erlazionatu nahi dugu.

Genero indarkeriaren aurrean egoteak ondorio kaltegarri nabarmenak izan ditzake haurren garapen emozional, sozial, kognitibo eta akademikoan. Azken ikerketek espozizio horrek epe luzerako ondorioak eduki ditzakeela eta bere helduaroaren funtzionamenduari eragin diezaikeela iradokitzen dute.

Euren etxe barruan genero indarkeriaren eraginpean dauden haur askok ezer esan gabe sufritzen dute eta ez dute arretarik jasotzen, gurasoek arazoak bikotearenak direla eta haurrei eragiten ez diela uste baitute.

Indarkeriak haurrengan dituen ondorioen inguruko ikerketa eta dokumentu desberdinen berrikusketaren ondoren, garrantzitsuenak hauek direla esan genezake:

**1. Sozializazio arazoak:** Isolamendua, segurtasun-gabezia, agresibitatea, trebetasun sozialen gutxiagotzea.

**2. Depresio sintomak:** Negarra, tristura, autoestimua, isolamendua.

**3. Beldurak:** Beldur zehaztegabeak, txarra den zerbait gertatuko delako bihozkadak, heriotzari beldurra, ama galtzeko beldurra, aita galtzeko beldurra.

**4. Loaren aldaketak:** Amesgaiztoak, bakarrik lo egiteko beldurra, gaueko ikarak.

**5. Sintoma erregresiboak:** Enuresia, enkopresia, atzerapena lengoaiaren garapenean, duten adineko haurrak baino haur txikiagoak balira bezala jardun.

**6. Integratze arazoak eskolan:** ikasteko arazoak, kontzentratze eta arreta zailtasunak, eskola errendimenduaren gutxiagotzea, beste hurrekin partekatzeko zailtasunak.

**7. Emozio eta jokaera erantzunak:** Amorrua, bat bateko umore aldaketak, antsietatea, babesgabetasun sentazioa eta mundua mehatxuzkoa den zerbait bezala ikustea; erruduntasun sentimenduak (bere gurasoen arteko gatazken edo gertatutakoaren erantzule izan edo indarkeria ekiditeko ezer egin ez izanaren erantzule izan); zailtasunak emozioen adierazpen edo maneiatzean, indarkeriazko egoeraren ukapena edo bizi duten egoerari garrantzia kentzea; sufrimendu eta eraso harreman modu natural bezala normalizatzeko joera, indarkeriazko eredu ikasketa eta haiek errepikatzearen posibilitatea, biktima zein erasotzaileena genero-rol okerren barneratzearekin; gurasoen gatazkekiko esposizio kronikoak nerabea adikzioak eta harreman gatazkatsu gehiago sortzera eramanezake; etxeko indarkeriarekin lotutako estresak nerabea jokabide arriskutsu eta iheskorak hartzera eramanezake, baita etxe barruan indarkeriazko jokabideak hartzera ere, etxetik ihesaldia; gurasoen harremanek eragin handia izan dezakete nerabeen lehen harremanak ezartzeko moduan. Zenbat eta eraso maila handiagoa, gainontzekoen portaeran etsaitasunezko asmoak ikusteko eta babes moduan indarkeriaz erantzuteko aukera gehiago.

**8. Trauma osteko estresaren sintomak:** Loezintasuna, hondar-amesgaiztoak, fobiak, antsietatea, traumaren berpiztea, disoziaziozko nahasmenduak.

**9. Haurren gurasotzea. Anai-arreba txikiekin guraso-rol eta rol babeslea hartu, amarekiko guraso-rol babeslea hartu.**

**10. Kasu batzuetan heriotza.** Indarkeriak eragina du haurrak munduaz eta bere buruaz duen ikuspegian, bizitzaren helburu eta esanahiaren inguruko bere ideietan eta etorkizuneko zorientasun baten bere itxaropenean.

Haurrek portaera psikopatologikoak garatzera eraman ditzaketen arrisku-faktoreak nabarmendu nahi ditugu:

- Bikote bakoitzak bere gatazkak maneiatzeko duen moduak, haiek kanporatzeko moduak eta seme-alabei jakinarazteko moduak eragina du hauek pertsonen arteko harremanak ulertzeko duten moduarengan.
- Substantzia psikoaktiboen gehiegizko erabilera, alkohol gehiegi edatea, amaren depresioa, aitaren nortasun antisoziala, egoera ekonomiko kaltegarria edo isolamendu soziala bezalako beste arrisku-faktoreen presentzia.
- Egoerak bikoteko kideetako bat edo biak pertsonalki patologiaren bateko sintomak garatzeko punturaino erasaten baditu (depresioa, antsietatea, egoera paranoidea etab.), bere seme-alabekin duten lotura eta ematen dieten hezkuntza aldatzera eramango ditu.
- Haurren erasoekiko gertutasuna, haren lekuko zuzena baitira.
- Indarkeriaren gogortasun eta kronizitatea.
- Haurra egoeraren partedun egiten bada, edo gatazka egoeren “zergatia” denean, edo triangulazioa eman eta gurasoetako baten “alde egitera” behartua ikusten bada.
- Gurasoen semeekiko zainketa gabezia dela eta haurrak arduragabekeria egoera bat bizitzen badu, adibidez bere garapenerako baliabide fisikoei uko egitera behartuta ikustea, edo bere behar fisiko, emozional edo sozialak asetzen ez badira.
- Genero indarkeriaren ondorioz egunerokotasuna nabarmen aldatu eta haurra gurasoengandik banandua egon behar bada.
- Haurra, gainera, bere guraso-figuraren baten tratu txar fisiko edo emozionalen biktima zuzena bada.
- Haurren berezko ezaugarriak: jenioa, adina, errealtate honetaz egiten duen interpretazioa, bere loturen segurtasuna, trebetasun sozialak, emozioak adierazteko eta laguntza eskatzeko gaitasuna.
- Emozionalki babestu edo lagundu diezaioketen eta gurasoen seme-alabenganako zainketaren gabezia paliatu dezaketen beste lotura-figura batzuk edukitzeko aukera.
- Haiek artatzeko ardura duten instituzioen erantzun azkar eta eraginkorra.

Halaber, genero indarkeriaren eraginpean egotearen ondorio ematen den kaltea haurrengan ahalik eta txikiena izaten lagun dezaketen babes faktoreak jaso nahi ditugu:

- Izaera lasaia eta tenperamendu erraza bezalako haurraren ezaugarriak, gaitasun kognitibo handiak.
- Haurraren erresilentzia gaitasuna sendotzen duen eta haurraren berezko baliabideak sustatzen dituen helduren bat egotea.
- Haurraren behar fisiologiko, afektibo eta sozialak asetzen dituen guraso-jarrera trebe bat.
- Amaren erantzun ona. Euren arazoak eduki arren, ama askok euren

seme-alabentzat egoteko, dauzkaten baldintzak edukita ere afektua agertzeko eta haurren hezkuntza osasungarri bat lortzekotan mugak jartzeko gaitasun emozionala dutela ikusi da. Ama askok ahalegin handiak egiten dituzte etxean bizitako indarkeriak haurrengan izandako eragin negatiboak konpentsatzeko.

- Emakumearen gizarte sarean parte hartzeko eta honen laguntza onartzeko gaitasuna. Zentzu honetan, genero indarkeriaren biktima diren emakumeak la guntzen dituzten zerbitzu eta baliabideek garrantzia handia dute emakumearen suspertzean eta bere autoestimua eta amatasun gaitasunen indartzean.

- Amek euren seme-alabekin azken hauek ikusi dituzten gatazken inguruan hitz egiteak hurrek agerizko indarkeria eta portaera arazoak aurkezteko aukerak gutxitu egiten ditu, beti ere elkarrizketa hori bikotearekiko etsaitasun, erruduntasun edo amorruez laguntzen ez denean.

-Familia zabalaren eta hezitzaile eta emakumeak artatzen dituzten profesionalen laguntza lasaitasun iturri bat izan daiteke haur eta amentzat.

- Gurasoen aldetik indarkeria zikloaren haustura eta behin banantzea erabaki dutenean gurasoen arteko indarkeriarik gabeko harreman adeitsu bat.

- Nerabezaroan, berdinen arteko taldearen kohesio eta elkartasunak eragin onuragarri bat eduki dezake.

- Familia-sistemen teoriak dioenez ezkontideen azpisistema eta seme-alaben azpisistemaren arteko mugaketa (horrela seme-alabak gurasoen gatazken tartean egotea saihestuz) haurraren funtzionamendu hoberekin lotzen da, muga zehaztugabeek, ostera, disfuntzioen garapen aukerak handituko lituzkete.

-Babes faktore garrantzitsu bat amak edo aitak haurrari gatazka egoeraren barne esleitzen dion papera da. Hau da, haurrak gehiago hunkitzen dira gurasoen arteko bitartekari papera betetzen dutenean edo haiei gurasoen elkarren arteko komunikazio agresiboen bitartekaritzarako tresna gisa jartzen zaienean edo gurasoek hurrei euren amorrua irain edo kritika hondagarrien bitartez azaltzen dietenean.

- Genero indarkeriaren biktima diren emakumeak artatzen dituzten profesionalen prestakuntza babes-faktore bat da euren etxeetan indarkeria honen eraginpean dauden haurrentzat.

Amaitzeko, 2015eko uztailaren 23ko Estatuko Aldizkari Ofizialean (175 zk., I. atala, 61871. orria) argitaratutako eta onartutako legearen aldaketa eduki beharko dugu esparru bezala.

Lege horretan Genero Indarkeriaren Babes Osorako Neurrien abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren aldaketa azaltzen da.

Modu laburbilduan, aldaketa honetan hurrengo azpimarratzen dela nabarmendu nahi dugu: genero indarkeria pairatzen duen familia inguru batean hazitzen eta bizitzen direnek pairatutako indarkeria bereziki krudela dela, haurrengan eragin desberdinak dituelarik:

- Lehenik, haien ongizate eta garapena baldintzatzen du.
- Bigarrenik, osasun arazo larriak eragiten ditu.
- Hirugarrenik, emakumearengan indarkeria eta nagusitasuna gauzatzeko tresna bihurtzen ditu.
- Eta, azkenik, emakumearenganako bikote edo bikote ohien indarkeriazko jarreraren belaunaldien arteko transmisioa mesedetzen du.

Etxean, non hurrek babestuen egon beharko luketen, indarkeria mota honen eraginpean egoteak, haren biktima bihurtzen ditu hauek ere. Honen guztiagatik, beharrezkoa da, lehenik, genero indarkeriaren adin txikiko biktimak 1. artikulua dakarren moduaren bitartez aitortzea, haiengan eman daitekeen indarkeria mota hau ikusarazteko helburuarekin. Haiek genero indarkeriaren biktimatzat aitortzeak 61. artikulua dakar, argitasun gehiago lortzeko eta segurtatze eta kautelazko neurrien inguruan, bereziki indarkeria pairatzen duen emakumearen mende dauden adin txikikoei eragiten dieten neurri zibilen inguruan, azaltzeko Epaileek duten derrigorrezkortasuna nabarmentzeko. Halaber, genero indarkeriaren biktima den emakumearen zaintzapean aurki daitezkeen adin txikikoen babes objektu diren egoeren kopurua handitzeko helburuarekin 65. artikulua aldatzen da. Azkenik, 66. artikulua idatzera hobetzen da, bisita-araubidearen ikusmoldea gaindituz eta hura modu orokorrean haiek adin txikikoekin komunikatzeko edo harremanetan jartzeko modu edo egonaldi gisa ulertuz.



**Hirugarren azken xedapena.** Genero Indarkeriaren Babes Osorako Neurrien abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren Aldaketa.

Genero Indarkeriaren Babes Osorako Neurrien abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa modu honetan aldatuta gelditzen da:

**Bat.** 1. artikuluko 2. atala aldatzen da, horrela idatzia gelditzen dena: «2. Lege honen bitartez indarkeria hau saihesteko, zigortzeko eta ezabatzeko eta indarkeria honen biktima diren emakumeak, hauen adin txikiko seme-alabak eta bere tutelaren edo zaintzaren baitan dauden adin txikikoak laguntzeko helburua duten babes osorako neurriak ezartzen dira»

**Bi.** S61. artikulua 2. atala aldatzen da, horrela idatzia gelditzen dena: «2. Genero indarkeriarekin lotutako prozedimendu guztietan eskudun den Epaileak bere iritzia azaldu beharko du beti, ofizioz edo biktimak, seme-alabek, haiekin bizi diren edo bere guarda custodiari lotuta dauden pertsonel, Fiskaltzak edo biktimen arreta edo haien harrera zerbitzuei dagokion Administraritzak eskatuta, kapitulu honetan hausnartzen diren segurtatze eta kautelazko neurrien hartzearen egokitasunaren inguruan, bereziki 64., 65. eta 66. artikuluetan jasotakoak, haien epea, betetze araubidea eta, egokia balitz, hauen beharrezko neurri osagarriak zehaztuz.»

**Hiru.** 65. artikulua aldatzen da, horrela idatzia gelditzen dena: «65. artikulua. Guraso-agintea edo adin txikikoen zaintza kentzearen inguruko neurriei buruzkoa. Epaileak genero indarkeriagatik erruztatukoari, honen mendeko dauden adin txikikoei dagokionez, guraso-agintea, zaintza, harrera, tutoretza, kuradoretza edo egitatezko zaintza ken diezaiokie. Kentzea adostuko ez balu, Epaileak beti guraso-agintea edo bestela zaintza, harrera, tutoretza, kuradoretza edo egitatezko zaintza nola gauzatuko den esan beharko du. Halaber, adin txikikoen eta emakumearen osotasun, segurtasun eta suspertzea bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu eta haien eboluzioaren aldizkako jarraipen bat burutuko du.»

**Lau.** 66. artikulua aldatzen da, horrela idatzia gelditzen dena: «66. artikulua. Bisita-araubidea, egonaldia, harremana edo komunikazioa kentzeko neurriaren ingurukoa. Genero indarkeriagatik erruztatutakoaren mende dauden adin txikikoei dagokionez, Epaileak erruztatuari bisita-araubidea, egonaldia, harremana edo komunikazioa kentzea agindu dezake. Kentzea adostuko ez balu, Epaileak beti guraso-agintea edo bestela zaintza, harrera, tutoretza, kuradoretza edo egitatezko zaintza nola gauzatuko den esan beharko du. Halaber, adin txikikoen eta emakumearen osotasun, segurtasun eta suspertzea bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu eta haien eboluzioaren aldizkako jarraipen bat burutuko du.»



# VI . MODULUA

## IDENTIFIKATU BEHARREKO ALDERDIAK ETA BALORAZIO TRESNAK

### IDENTIFIKATU BEHARREKO ALDERDIAK

--

- **INDARKERIA MOTAREN EBALUAZIOA**
- **ARRISKU EGOERAREN EBALUAZIOA**
- **TRATU TXAR MATXISTAREN ONDORIOEN EBALUAZIOA:**
  - Trauma osteko estresaren nahasmendua (TOEN).
  - Depresioa.
  - Autoestimu arazoak.
  - Egokitzapen pertsonal, familiar eta soziala.
  - Antsietate arazoak (Fobia soziala, Orokortutako antsietatea, Agorafobia...).
  - Gertakari traumatikoaren inguruko, norberaren inguruko eta munduaren inguruko trauma osteko kognizioak.
  - Substantzien gehiegizko erabilera eta mendekotasuna (alkohola, lasaigarriak, beste droga batzuk...).
  - Lo egiteko arazoak

### **BALORAZIO FASEAN EBALUATU BEHARREKO ELEMENTUAK**

#### **INDARKERIA MOTAREN EBALUAZIOA**

Biktimak zein indarkeria mota edo motak jasan dituen, honen iraupena, maiztasuna eta intentsitatea nolako bilakaera izan duen, etxeko beste kideei eragiten dien eta emakumeak bizitako egoerak bere bizitzan izan duen eraginaren inguruan nola pentsatzen duen. Halaber, aurre egiteko zein estrategia jarri dituen martxan eta haiekin zein emaitza lortu dituen, era berean gizarte laguntza duen - bereziki arazo honi aurre egiteko- eta zein mailataraino. Hau ezagutzeak arazoaren ezaugarriak modu zehatzean zehaztea ahalbidetuko du, baita esku-hartzean edukiko diren konponbide aukera edo baliabide zehatzak ere.



## **ARRISKU EGOERAREN EBALUAZIOA**

Arrisku edo eman daitekeen arriskuaren egoera baloratu. Arriskua baloratzeaz gain, garrantzitsua da suizidio edo saiakera autolitikoen arriskua ebaluatzea.

## **INDARKERIA MATXISTAREN ONDORIOEN EBALUAZIOA**

Jasandako indarkeriak, zalantzarik gabe, ondorioak izan ditu, batzuetan baita intensitate handikoak eta iraunkorrak, hori dela eta, garrantzitsua da kasu bakoitzean zein ondorio eman diren aztertzea, biktimak tratu txarraren ondorioak, askotan kronifikatuak, maneiatzen eta gainditzen modu zehatz eta eraginkorrean lagundu ahal izateko. Ondorio psikopatologiko ohikoenen artean, zeintzuen presentzia aztertzea komenigarria den, hauek aurki ditzakegu:

- Trauma osteko estresaren nahasmendua (TOEN).
- Depresioa.
- Autoestimu arazoak.
- Egokitzapen pertsonal, familiar eta soziala.
- Antsietate arazoak (Fobia soziala, Orokortutako antsietatea, Agorafobia...).
- Gertakari traumatikoaren inguruko, norberaren inguruko eta munduaren inguruko trauma osteko kognizioak.
- Substantzien gehiegizko erabilera eta mendekotasuna (alkohola, lasaigarriak, beste droga batzuk...).
- Lo egiteko arazoak.

Desregulazio iraunkorrak bere ni-aren antolaketa eta kohesioa kaltetzen ditu; maila kognitiboan. Informazioa maila kortikalean prozesatu ezin denez, tratu txarren emaitza-aren esanahiaren egoztea txertatzen da. Bere jokaerak zurrun eta zorrotzak bihurtzen dira eta honen ondorioz bere eta gainontzekoen egoera emozionala hautemateko zailtasunak sortzen dira. Pertsonak ezin du bere buruaren inguruko ezagutza kontziente bat garatu, eta garatzen dituen jokabideak oldartsu eta buruarinak izango dira.

### **EBALUAZIO FASEA: 3 SESIO**

Gida hau, Gipuzkoako Psikologia Elkargo Ofizialak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean hitzarmendutako Indarkeria Matxistaren edo/eta sexu askatasunaren kontrako delituen Biktima diren Emakumeentzako Arreta Psikologikoko Programaren esparruan eta erantzun bateratu baten bilaketan, balorazio, diagnosi eta tratamenduari ekiteko metodologia bat eratzeko beharretik dator.

Eredu honek hasierako hiru sesio ezartzen ditu balorazio eta diagnosiaren faserako. Hauetako bi ebaluaziokoak dira eta bestea itzultze, txostenaren irakurtze eta baimen informatuarena. Honen ondoren, koordinazio bat kasua deribatu duen Udaletxearekin.

Sesioei aurre egiteko modua kasuistika pertsonalaren baitakoa izango da, paziente

bakoitzak bere bakartasuna du, eta erritmoak aintzat hartu beharko ditugu gure estilo terapeutikoa erabiltzeko.

**LEHEN SESIOA.** Funtsezkoa da ondoren harreman terapeutikoa mesedetuko duen konfidantza-lotura bat sortzea, ezinbestekoa da pazientea egungo egoerara eraman duen esperientzia traumatikoa ezagutu eta ebaluatzeko.

Egungo egoeraren aurrekari pertsonalak ebaluatzen eta indarkeriaren analisisan zentratzen saiatu behar gara; erasotzailearen arriskugarritasun potentzialaz eta gizarte laguntzaz eta aurre egiteko estiloez arduratuko gara.

HELBURUAK	EBALUATU BEHARREKO ALDERDIAK
Programaren barne kokatu.	
Biktimari harrera.	Adierazpen emozionala.
Adierazpen emozionala.	Genero indarkeriaren egungo egoera.
Egoeraren egungo ezaugarriak ezagutu.	Erasotzailearen arriskugarritasuna.
Biktimaren arrisku-maila hauteman.	Suizidio arriskua. Biktimaren egungo egoera.

**BIGARREN SESIOA,** bizitako tratu txarraren ondorioen ebaluazioan zentratuko gara. TOEN-ari, depresio eta antsietateari, autoestimuari, egokitzapen-mailari, trauma osteko kognizioari, osasun fisikoari eta bizi-kalitate arazoaren ebaluazioari emango diogu lehentasuna. Inbentarioak bete ditzazkete sesioa bukatzean, pazienteari jarraibideak eman eta sesioa modu horretan amaitu.

Batzuetan ezinezkoa da ezarritako lerroa jarraitzea eta pertsona eta kasu bakoitzari moldatu beharko gaitzaio.

HELBURUAK	EBALUATU BEHARREKO ALDERDIAK
Ezaugarriak hauteman.	Etxeko tratu txarraren historia.
Indarkeriari aurre egiteko erabilitako estrategiak eta hauen eraginkortasuna hauteman.	Jasandako tratu txar edo indarkeria motak.
Baliabide pertsonalen hautematea.	Egoerari aurre egiteko gaitasun eta baliabideak eta hauen eraginkortasuna.
Emakumearen egungo bizi-kalitatea ezagutu.	Gizarte laguntza.
Bizitako tratu txarreko egoerarekin bateragarria den sintomatologia identifikatu.	- Sintomatologia psikologikoa baloratu. - TOEN baloratu. - Substantzien gehiegizko erabilera eta mendekotasuna baloratu

**HIRUGARREN SESIOA.** Burututako txostenaren itzulera egiteko erabiliko dugu, pazienteari ebaluazioaren emaitzak azaltzeko, tratu txarreko egoerari marko teoriko bat jartzeko eta elkar ulertze esparru bat emateko.

Garrantzitsua da azalpenak pertsonaren kontzientzia maila desberdinetara egokitzea. Lan ildoak:

- Bere egoera testuinguruan jarri.
- Emaizten itzultzea.
- Helburu terapeutikoen planteamendua.

---

## TEST ETA GALDETEGIAK

--

Alderdi zehatzen ebaluaziorako diagnosi tresna batzuk

**ARRISKUAREN EBALUAZIOA:** Bikotearen aurkako indarkeria larriko arriskuaren aurre-sate eskala.-Berrikusia-(EPV-R) Echeburua

**JASANDAKO INDARKERIA MOTAREN EBALUAZIOA:** Indarkeriaren inguruko Egitura-tutako Elkarrizketa.

**ANTSIETATE ETA DEPRESIOAREN ADIERAZLEAK INDARKERIAN:** VAD adierazleak .Herstura eta depresioaren adierazleak indarkerian (2014)

**LSB-50, Sintomen zerrenda laburra:** Psikopatologiako 13 indize eskaintzen ditu. OSASUN EGOERA OROKORRAREN SINTOMA PSIKOPATOLOGIAKOAK: 90 sintomako galde-sorta. Espainiar egokitzapena.

**AUTOESTIMUA:** EAR, Rosenberg, 1989 (Rosenberg Autoestimua Eskala)  
**TRAUMAREKIKO ERRESISTENTZIA:** Traumarekiko erresistentziaren inguruko Testa (2012). J. Urra Portillo eta S. Escorial Martin.

**TRAUMA OSTEKO ESTRESAREN NAHASMENDUA:** (EGEP) Trauma osteko estresaren ebaluzio globaleko eskala (2012) M. Crespo eta M. Gómez.

**DEPRESIOA:** BDI-II Beck-II-ren depresio Inbentarioa (Espainiar egokitzapena 2011)  
**ANTSIETATEA:** STAI Egoera- eta ezaugarri-hersturaren galde-sorta (Espainiar egokitzapena 2011)

# INDARKERIAREN INGURUKO EGITURATUTAKO ELKARRIZKETA

--

INDARKERIA PSIKOLOGIKOA	
<b>Ahozko indarkeria</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Askotan egiten dizu garrasi?</li> <li>2. Modu autoritarioan hitz egiten dizu?</li> <li>3. Iraindu egiten zaitu?</li> <li>4. Mehatxatu egiten zaitu?</li> <li>5. Xantaia egiten dizu?</li> <li>6. Barregarri uzten zaitu?</li> <li>7. Mespretxatu egiten zaitu?</li> </ol>
<b>Indarkeria Soziala</b> Hirugarren pertsonen aurreko ahozko tratatu txarra edo tratatu txar psikologikoa eta kanpo-harremanen kontrola.	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Ikastea, lan egitea edo etxetik kanpo bakarrik gauzak egitea zailtzen dizu?</li> <li>2. Jeloskor eta posesiboa da?</li> <li>3. Arrazoirik gabe desleiala zarela leporatzen dizu?</li> <li>4. Zure lagunekin harremana edukitzeko gogogabetzen zaitu?</li> <li>5. Gaizki tratatzen al ditu zure senide, lagun edo zuk maitatzen dituzun pertsonak?</li> <li>6. Jendaurrean biktimarena egiten du edo barregarri uzten zaitu?</li> <li>7. Zaildu egiten du zure jatorriko familiarekin eta maitekor azaltzen zaren horiekin harremana?</li> <li>8. Leku isolatu batetan bizitzera edo zure ingurutik aldentzera behartzen zaitu?</li> <li>9. Interneteko sare sozialen bitarteko, telefono bitarteko edo telematika bitarteko komunikazioak kontrolatzen dizkizu?</li> </ol>
<b>Indarkeria Emozionala</b> Autoestimua gabetzera zuzendua.	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Noizbait ero, ergel, alfer edo puta deitu dizu?</li> <li>2. Berataz arduratzeko zure loa, jana edo jarduerak eteten al ditu?</li> <li>3. Txandaka goraiatu eta apaldu egiten zaitu?</li> <li>4. Gauzak egitera behartzen zaitu? Zure janzteko moduaren kontra agertzen da? Zure ohiturak gaitzesten ditu?</li> <li>5. Neskato txiki bat bezala tratatzen zaitu?</li> <li>6. Zure presentziaren aurrean ezikusiarrena egiten du?</li> <li>7. Noizbait suizidatu egingo delako mehatxua egin dizu? Suizidatzera bultzatu zaitu?</li> <li>8. Haserretzen bada botata uzten zaitu? Abisatu gabe botata uzten zaitu?</li> <li>9. Gertatzen den guztiaren errua botatzen dizu?</li> <li>10. Balioa kentzen dizu zure jendearen aurrean? Amak, ahizpak, lagunak, alabak...</li> <li>11. Mugikorra kentzen dizu?</li> <li>12. Zure gutunak ireki edo zure gauzak begiratu, zure mugikorrean deiak begiratu, zure mugikorreko mezuak irakurri edo zure motxila, poltsa edo gauzak begiratzen ditu?</li> </ol>

<b>Indarkeria ekonomikoa eta ondarearen gaineko Indarkeria</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Zuen diru-sarrerak (ordainketak, aparteko paga...) bateratzera behartzen zaitu?</li> <li>2. Zure lanarekin sartzen da? Zure lan-planak oztopatzen ditu?</li> <li>3. Zure gastuak kontrolatu edo haien inguruko azalpenak eskatzen dizkizu?</li> <li>4. Elkarrekin erabakitzen dituzue erosketa eta inbertsioak?</li> <li>5. Autonomia ekonomikorik gabe sentiarazten zaitu?</li> <li>6. Bere onurarako erabiltzen ditu zure ondasunak zu kontuan hartu gabe?</li> </ol>
<b>Ingurumen-indarkeria.</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Gauzak hautsi, objektuak bota edo ateak kolpekatzen ditu?</li> <li>2. Nahita nahastu edo zikintzen du edo zaborra zabaltzen du?</li> <li>3. Soinuak egiten ditu zu gogaitzeko?</li> <li>4. Bere haserrea adierazteko zure gauza edo guneak inbaditzen ditu?</li> <li>5. Etxea gauza ezatsegin edo gustoko ez dituzun gauzez betetzen du? (material pornografikoa, suzko armak...)</li> </ol>
<b>SEXU-INDARKERIA</b>	
<b>Sexu-indarkeria</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Zure borondatearen kontra sexu-harremanak edukitzera behartzen zaitu?</li> <li>2. Bere sexu-baldintak asetzera behartuta zaudela sentiarazten dizu?</li> <li>3. Zuk burutu nahi ez dituzun jarduera sexualak burutzera behartzen zaitu?</li> <li>4. Sexu-indarkeriak indar fisikoa erabili edo ez erabili dezake. Indar fisikoa erabiltzen du?</li> </ol>
<b>INDARKERIA FISIKOA</b>	
<b>Indarkeria fisikoa</b> Eraso edo eraso egiteko mehatxua	<ol style="list-style-type: none"> <li>8. Bultzatu egiten zaitu? Zure kontra indar egiten du? Mehatxuzko begiradak zuzentzen dizkizu?</li> <li>9. Noizbait eraso egiteko mehatxu egin dizu?</li> <li>10. Jo egin zaitu edo masaileko bat eman dizu?</li> <li>11. Noizbait heriotza mehatxua egin dizu?</li> <li>12. Zer egiten du liskartzen zaretenean?</li> <li>13. Inoiz zeundeten lekutik bota zaitu?</li> <li>14. Nolabaiteko indarkeria fisikoa erabiltzen du? Zure edo besteen kontra...</li> <li>15. Objektuak jaurtitzen dizkizu edo ukabilkadarenbat eman dizu? Lepotik edo eskuetatik heldu zaitu?</li> </ol>

# VAD adierazleak: ANTSIETATE ETA DEPRESIOAREN ADIERAZLEAK INDARKERIAN.

--

*Antsietatearen sintomatologiaren adierazle psikikoak. Depresioaren sintomatologiaren adierazle psikikoak. Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen tratu txarren adierazle fisiko eta sexualak.*

## ADIERAZLE PSIKIKOAK: Antsietatearen sintomatologia

- Arnasa nezkez hartzea (disnea) edo itotasun sentsazioa.
- Zorabioa, ezegonkortasun sentsazioa, konorte galtze sentsazioa.
- Palpitazioak edo bihotz-erritmo azeleratua (takikardia).
- Dardara edo astinduak.
- Izerdia.
- Itolarria
- Goragalea edo sabeleko mina.
- Despertsonalizazioa edo desrealizazioa.
- Inurridura edo kilika sentsazioa gorputzeko zati desberdinetan (parestesia).
- Hotzikarak.

## ADIERAZLE PSIKIKOAK: Depresioaren sintomatologia

- Jatuntasun edo jateko gogo gutxi.
- Lo ezintasuna edo hipersomnia.
- Energia galera edo nekea.
- Autoestimua gutxiagotzea.
- Etsipen sentimenduak
- Harreman-sozial urriak (familia edo/eta lagunekin).
- Hitzezko adierazpen negatiboak, engainagarriak edo/eta ulergaitzak.
- Ez oso hiztuna.
- Erruduntasun sentimenduak.
- Seinale somatikoak.
- Saiakera autolitikoak.
- Tratamendu psikiatriko edo psikoterapeutikoaren indize altua.
- Arazoak konpontzeko zailtasuna.
- Trebetasun sozial urriak.

## ADIERAZLE FISIKOAK

- Hematomak hurrengo lekuetan: aurpegia, ezpainak, gorputz-enborra, sorbalda, izterrak, lepoa...
- Hausturak: garezurrean, sudurrean, masailezurrean...
- Erredurak eskuetan, oinetan. Sokak hanketan, gorputz-enborrean, lepoan. Objektuak, seinale zehatzak.
- Mozte edo/eta sastadak.
- Gizakien hozkadak.
- Barne organoen lesioak.
- Zauriak.
- Artatu ez diren arazo fisiko edo medikuntza beharrak (sendatu gabeko zauriak edo infekziodunak).
- Atzamarkadak.
- Belarriaren zulaketa.
- Hortzetako arazoak: ahoko ehun bigunetako lesioak.

## SEXU-ADIERAZLEAK

- Hematoma edo/eta zauriak: izterraren barnealdea.
- Genitaletako edo uzkiko odol-ateratzea. Uzkiko fisurak.
- Genitaletan mina.
- Kontusioak / hematomak: pubis, bulba eta bularrak.



# DIAGNOSI ETA JARRAIPEN EDO ITXIERA TXOSTEN EREDUAK

--

## DIAGNOSI TXOSTENA ETA TRATAMENDU PSIKOTERAPEUTIKOAREN PROPOSAMENA

**HASIERAKO TXOSTENA ETA HELBURUEN PROPOSAMENA** Txosten hau psikologoaren profesioaren deontologia-kodeko 40. artikuluari lotuta dago, zeinetan konfidentzialtasunaren behar eta eskubide orkorrak esplizitatzen diren. Horrela, erakunde hau txostena bere helburu zehatzetik kanpo ez hedatzera behartuta gelditzen da eta txostenaren balioa informatiboa besterik ez da. Ez du peritu izaerarik eta ezingo da erreferentziazko programaren eremutik kanpo erabili.

### **1-PROFESIONALAREN IDENTIFIKAZIOA. ELKARGOKIDE ZENBAKIA.**

**2-ARTATUKO DEN PERTSONAREN IZEN-ABIZENAK. EXTRANET-EKO ESPE-DIENTE ZENBAKIA.** *Sexua eta adina zehaztu eta, adin txikikoen kasuan, dagokion baimena gehitu.*

**3-TXOSTENAREN ARRAZIOA.** *Eskaera egiten duen Udaletxea eta Gipuzkoako Psikologia Elkargoaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean hitzarmendutako Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako arreta psikologikoko Programaren helburuaren azalpena.*

### **4-BALORAZIO ETA DIAGNOSI PROZESUAREN DESKRIBAPENA**

Alderdi zehatzen ebaluaziorako diagnosi tresnak.

- Ebaluazio elkarrizketak, zenbat, iraupena eta datak. 3+1
- Alderdi zehatzen ebaluaziorako diagnosi tresnak.

**5-ARTATUKO PERTSONAN DAUDEN TRATU TXARREN ADIERAZLEEN DESKRIBAPENA** *Indarkeriazko egoera batekin bateragarri diren adierazleak dauden zehaztu. Ez egotekotan ez daudela adierazi.*

- Adierazle fisikoak.
- Antsietate-sintomatologiaren adierazle psikikoak.
- Depresio-sintomatologiaren adierazle psikikoak.
- Tratu txarren sexu-adierazleak.



## 6-HAUTEMANDAKO INDARKERIA MOTA ZEHAZTU

1. Indarkeria psikologikoa.
  - Hitzezkoa.
  - Soziala: hitzezko tratu txarra edo tratu txar psikologikoa besteen aurrean eta kanpo-harremanen kontrola.
  - Emozionala: Emakumea autoestimuz gabetzera zuzendua.
  - Ekonomikoa/Ondarearen gainekoa.
  - Ingurumenekoa.
2. Indarkeria fisikoa
3. Sexu-indarkeria

## 7-EBALUAZIO PSIKODIAGNOSTIKOAREN BALORAZIO ETA EMAITZAK KONTUAN HARTU BEHARREKO ADIERAZLE KLINIKO, EMOZIONAL ETA ERLAZIONALAK.

*Ebaluazioaren objektu den pertsonaren sintomatologia klinikoaren eta hautemandako indarkeria motaren arteko korrelazioa jakinarazi. 5. eta 6. ataletan deskribatutako datuen diagnosi-integrazio bat burutu behar da, hau da, diagnosi-hipotesi bat proposatu behar da lehen azaldutako adierazleen arabera. Artatutako pertsonaren egoeraren ikuspegi orokor bat eskainiko da, ikusitako emaitzak kontsultaren arrazoia eraiki duten baldintze-kin zuzenki edo zeharka lotuz.*

### ADIERAZLE KLINIKOAK:

- Izan litezkeen jokabidearen nahasmenduen presentzia adieraz dezaketen sintoma edo seinale klinikoen hautematea.
- Jarreran aurkeztutako antsietate-mailak.
- Nork bere buruari eusteko gaitasuna.
- Ekintzara igarotzea atzeratzeko gaitasuna.
- Frustrazioarekiko tolerantzia.
- Jokabide siruptiboen presentzia.

### ADIERAZLE EMOZIONALAK:

- Jazoera traumatikoen intzidentzia bere bizitzan.
- Eman litezkeen antsietate depresiboak.
- Auto-kontzeptua esploratu.
- Autoestimu-maila.
- Amorrutik eta frustrazio sentimenduak.
- Motibazio falta edo gogogabetasun adierazleak behatu

- Guraso-funtzioen jardutearen porrotarekin lotutako amorru sentimenduak eta depresioa eman daitezke.
- Ezinegona landu eta adierazteko gaitasuna.
- Sentimendu eta emozioak identifikatzeko gaitasuna.
- Introspekzio bat burutzeko gaitasuna.
- Barne-munduko edukiak azaltzeko gaitasuna.

## **ADIERAZLE ERLAZIONALAK**

- Gizarteratze-maila.
- Loturak egituratzeko gaitasuna.
- Famili-giroarekin loturak.
- Jatorrizko familiarekin harremana.
- Ezkontza edo bikote harremana.
- Guraso eta seme-alaben arteko harremana.

## **8-BERTARATZE MAILA, KOLABORAZIOA ETA ESKU-HARTZEAREN AURREKO JARRERA.**

## **9-TRATAMENDU PROPOSAMENA: ESKU-HARTZEAREN HELBURUAK, TRATAMENDU FASERAKO SESIOEN AURREIKUSPENA EDO KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE ORIENTAZIO BATZUK.**

## **10-PERTSONAREN IRITZIA TXOSTENA IRAKURRI ONDOREN**

**Psikologoak sinatuta. Osasun-zentroaren Erregistroa.**

## **AMAIERA TXOSTENA LUZAPEN ESKAERAREKIN**

Txosten hau psikologoaren profesioaren deontologia-kodeko 40. artikuluari lotuta dago, zeinetan konfidentziasunaren behar eta eskubide orkorrak esplizitatu diren. Horrela, erakunde hau txostena bere helburu zehatzetik kanpo ez hedatzera behartuta gelditzen da eta txostenaren balioa informatiboa besterik ez da. Ez du peritu izaerarik eta ezingo da erreferentziazko programaren eremutik kanpo erabili.

### **1.PROFESIONALAREN IDENTIFIKAZIOA.**

Izen-abizenak eta elkargokide zenbakia.

### **2. ARTATUTAKO PERTSONAREN IDENTIFIKAZIO DATUAK.**

Aldundiko espediente zenbakia, artatutako pertsonaren IZENA, eskaera egiten duen Udaletxea eta erreferentziako Gizarte langilea.

**3. TXOSTENAREN ARRAZIOA: Zeinek egiten duen deribazioa eta zertarako.**

**4. TERAPIAREN GARAPENA.**

- Burututako sesio kopurua: bakarkakoak, bikotekoa, familiakoak.
- Planifikatutako sesioetarako bertartaze-maila.
- Esku-hartzearen aurrean izandako jarrera eta parte-hartze maila.
- Erabilitako teknikak.
- Prozesu terapeutikoaren deskribapena.

**5. BEHATUTAKO EBOLUZIOA ETA HASIERAKO FASEAN PROPOSATUTAKO HELBURUEN ARABERA LORTUTAKO EMAITZAK**

- Adierazle emozionalak.
- Adierazle kognitiboak.
- Adierazle erlazionalak.
- Portaera-adierazleak.

**6. KONKLUSIO PSIKOTERAPEUTIKOA ETA /EDO PROZESUAREN ITXIERAREN KONKLUSIOA** Tratamenduaren eboluzioa: egokia/desegekia. Balorazio honen deskribapen laburra.

**7. LUZAPEN FASEAN LANTZEKO HELBURU ZEHATZAK.**

**8. ARTATUTAKO PERTSONAREN IRITZIA TXOSTENA IRAKURRI ONDOREN**



# VII . MODULUA

## SINTESIA: JARDUNBIDE EGOKIAK

### DATUEN BABESERAKO LEGEA ETA BAIMEN INFORMATUA

--

#### **DATUEN BABESERAKO LEGEA**

Pazienteen euren esku-hartzearen inguruko informaziorako eskubidea ziurtatzekotan eta Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa (BOE 298 zk., 1999/12/14) betetzekotan, hurrengo jardunbideak jarraitu beharko dira:

- Datu pertsonalen edozein erabilera Datu Pertsonalen Babeserako Legearen babes printzipioei egokitu beharko zaio. Printzipio hauen arabera datuak eguneratuta egon beharko dira eta soilik bere tratamendurako jasoko dira, ezingo dira datu bilketaren helburuarekin bateraezinak diren asmoetarako erabili.
- Ez dira beharrezkoa den denbora baino gehiago gordeko interesatuaren identifikazioa ahalbidetu dezakeen moduan, baina legalki ezeztatuak izan ezean, datuetara sartzeko eskubidea ahalbidetzen duen moduan gordeko dira.
- Datu pertsonalak eskatzen dizkiegun pertsoneri aldez aurretik modu zehatz eta argian hurrengoak jakinarazi beharko diegu: datu pertsonalen tratamendurako fitxategiaren existentzia, datuak jasotzearen edo ez ematearen ondorioak, datuetara sartzeko eskubidea edo hauen aldaketa, ezeztatze edo aurkaritza eskubidea, tratamenduaren arduradunaren identifikazio eta helbidea.
- Fitxategi hauek Datuen Babeserako Espainiar Agentzian (AEPD) ofizialki aitortu beharko dira, honetan erregistratuta geldituko dira erregistro-zenbaki zehatz batekin.

## **BAIMEN INFORMATUA**

Legeak beste zerbait agindu ezean, datu pertsonalen tratamendurako artatutako pertsonaren zalantzarik gabeko baimena beharko da.

Adin txikikoen kasuan, gurasoetako bien edo legezko tutore edo arduradunen idatzizko baimen informatua jaso beharko da.

### **BAIMEN INFORMATUAREN EREDUA**

\_\_\_\_\_ (e)n 201\_\_ (e)ko \_\_\_\_\_ ren \_\_\_\_ (e)an

\_\_\_\_\_ Jaun /Andreak

\_\_\_\_\_ NAN/AIZ/Pas.-arekin

### **ADIERAZTEN DU:**

psikologoak, NAN zenakiduna eta Gipuzkoan GZ  
zenbakidun elkargokidea dena, (e)ko \_\_\_\_\_ kalean  
kokatutako Psikologia Zentroan artatzen duela.

Psikologo horrek \_\_\_\_\_ Arreta Psikologikoko  
Programaren esparruan artatzen duelako jakinaren ganean dagoela.

Ematen den zerbitzuaren funtzionamendua egokia izan dadin eta DPBL Legea errespetatuz dadin, aipatutako Programaren bilakaeran zehar psikologoak \_\_\_\_\_ (e)ra bidaliko diren emakumearen historia klinikoaren inguruko txostenak burutuko dituela jakinarazi zaiola.

Terapia eta eman beharreko jarduera guztiak konfidentziasun osoa errespetatuz burutuko dira.

Andrearen tratamenduaren inguruko jarduera guztiak aipatutako tratamenduak bilatzen duen helburua jarraituz, terapeutikoa dena, garatuko dira, beraz profesional honek ez du inolaz ere txostenik edo informaziorik lehen aipatutako Instituzioetatik kanpoko hirugarren pertsonari zabalduko, eta inolaz ere ezingo du Auzitegiarentzako txostenik burutu, guzti hau profesio hau zuzentzen duten deontologia-arauen arabera.

Halaber jakinarazten zaio, bere datuak ..... zenbakiarekin erregistratutako fitxategiaren baitan babestuta daudela.

Baita ere fitxategi hau datu pertsonalen babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Legearen bermepean eta historia kliniko eta paziente eta profesionalen dokumentazio klinikoaren inguruko eskubide eta betebeharrei buruzko martxoaren 13ko 38/2012 Dekretupean egon beharko dela.

Guzti hau aintzat hartuz, nere BAIMENA EMATEN DUT terapia hau deskribatutako zehazpenen baitan burutzeko.

(e)n 201 (e)ko \_\_\_\_\_ ren (e)an \_\_\_\_\_ Izpta.

## GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEN ESKU-HARTZERAKO GOMENDIOAK

--

Esku-hartzeak, pazientearen egungo beharretan oinarritzen bada eta bere psikismoa nola funtzionatzen den azaltzen badio, balio transformatzaile bat izango du. Mundua haien ikuspegitik ikusten saiatu behar gara (Serrano 2012).

Garrantzitsua da haiekin psikoheziketa lana burutzea, honek tratu txarrak euren buru, emozio eta gorputzaren gain izandako ondorioak ulertzen lagunduko die.

Funtsezkoa da emakumeak euren suspertzearen subjektu bihurtzea, oraindik eraikiak izan ez diren defentsen eraikuntza eta kaltetuak izan direnen konponketa sustatuz.

Tratu onek indarkeriak eragindako kalteen kontra egitea eta, ikuspegi zaintzaile eta paternalista baino, ikuspegi suspertzaile bat edukitzea ahalbidetzen dute. Hori dela eta, indarkeriaren testuinguru honetan burutuko den esku-hartzea biktimei tratu on ereduak ematera zuzendua dago, eredu horretan emakumeak erresilientziaren sustatzaile bezala senti daitezke eta horrela genero indarkeriaren ondorioetan berreraikuntza eragin.

Azkenik, emakumeei proposatzen dizkiegun helburuek haien egoeran eskuragai izan behar dute eta berarekin negoziatu behar dira, bestela emakumeak berriro traumatizatzeke arriskua egongo da.

Emakume bat laguntza eskatzera doanean, sufrimenduzko epe luze batez biktima gisa bizi ondoren izaten da (batezbestekoa 7 urte baino gehiagokoa da).

**Psikologoaren lehen helburua bizitzako barne-barneko alderdietan (bikote-harremana, familia, etxea) eragina duen sufrimenduzko historia luze bat duen emakume bat artatzea izango da.**

Horregatik, kontuan hartu behar da kasu askotan ebaluazio psikologikoak edo, behintzat honen hasierak, laguntza eske doan pertsonaren **onartze, harrera eta laguntza** profesional eta pertsonaleko formatu bat eduki behar duela.

Ondorioz, berehala nabarmendu behar da lasaitasun eta segurtasunezko gune baten ezarpena.

Tratamendua aurrerapausu eta atzerapausuak edukiko dituen prozesu ez lineala dela eta bere suspertzea eragingo duena elkarrekin sortzen dugun lotura emozionala dela azaldu behar diegu,

**Ageriko egin behar da**, une horretan psikoterapeutarekin, **babeseko egoera** batean dagoela, **ez dagoela bakarrik**, helburu nagusia **orain gainditu ezinak direla uste duen arazoak gainditzen laguntzea** dela, gune honetan **esaten duena (nahi duen erritmoan)** onartuko dela, **arrazoia duela bere kexa eta ezinegonaren inguruan eta ez dela batere bere arazo eta sufrimenduaren erantzule.**

## **ELKARRIZKETA**

### **INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEKIN KOMUNIKAZIOA ERRAZTEKO ALDERDIAK:**

- **Arreta:** Pazienteak arretaz entzuten ari garela nabaritu behar du, gure gorputz-jarrerak (tente eta emakumeari begira) interes hori egiaztatu behar du. **Hitzik gabeko komunikazioa zaindu.**
- **Enpatia:** Entzute aktiboa, etenik gabekoa, iritzirik gabekoa, emakumeak bere kontaketa interesatzen zaigula nabaritu behar du, ulertu diezaiokegula eta bere sufrimendua ulertu dezakegula. Garrantzitsua da emakumeak entzuten ari gatzaiola sentitzea.
- **Hizkeraren argitasuna:** Indarkeriaren eraginpeko diren emakumeen kasuan arreta berezia eduki behar da, ulermena eta komunikazioa zailtzen duten antsietate maila altuen eraginpean egoten baitira.
- **Isiluneen erabilera:** Elkarrizketan zehar isiluneak errespetatzeak landutako edukien gaineko gogoeta eta lanketa errazten du eta sentimenduak adierazteko aukera ematen da. Pazientearen isiltasunak profesionalaren akonpainamendu adeitsu bat behar du.
- **Feedback-a:** Elkarrizketan zehar emandako informazioa emakumeak ulertu duen jakiten lagunduko digu. Horretarako, landutako alderdi zehatzei buruzko galderak egin daitezke, emakumeak identifikatu eta bere egoerarekin erlazionatu ditzan.
- **Galderen eraginkortasuna:** pazienteari galderak egiterakoan, azalpenak beharko duen zehaztasun mailan pentsatuko dugu eta egokiena aukeratu. Elkarrizketaren momentuaren arabera, emakumea zehaztasun maila desberdineko kontaktak egitera gonbidatuko dugu, gogoeta egiten eta bere egoera lantzen laguntzeko.
- **Errespetua:** Oso garrantzitsua da pazientearentzat juzgatua ez dela eta ulertua dela sentitzea. Beharbada bere balio eta uste osoak dira indarkeriazko harremanean harrapatuta egotearen zergatia. Gure jarrerarekin indarkeriazko prozesutik ateratzeko babesa transmititu behar dugu, bere menpekotasunaren ordeztu bere autonomia sustatzen duen harreman baten bitartez.

## ELKARRIZKETAREN GIRO ONA MESEDETUKO DUTEN ALDERDIAK:

- Gomendagarria da emakumea bakarrik hartzea.
- **Emakumea sinetsi eta horrela dela jakinarazi.**
- **Bere sentimenduak baliozkotzat jo:** Ohikoa da emakumeak bere bikotearekiko sentimendu anibalenteak edukitzea: amodio eta beldurrezkoak, erru eta amorrukoak, tristura eta itxaropena. Ohikoak eta ulergarriak direla ikusten lagunduko diogu.
- **Mezu positiboak eskaini eta bere gaitasun eta lorpenak seinalatu:** Seguruenik jaso duena, salatu eta gutxietsi egiten duten horiek, indargabetzen dituztenak.
- **Konpondu dituen arazoak nabarmendu,** baita garatu dituen estrategiak ere, nahiz eta bere esfortzuak arrakastarik ez izan. Bere baliabide pertsonalak berreskuratu eta bultzateko helburuarekin.
- **Emakumearen erabakien alde agertu:** Behin erabaki bat hartu duelarik, pazient eta adeitsua izan, erabakiarekin ados ez egon arren.
- Gertatzen ari dena **ulertzen lagunduko dioten informazioak eskaini,** eta lagundu egin diezaioketen beste profesional aditu batzueganako bidalketa landu.

## ELKARRIZKETAN ZEHAR EKIDIN BEHARREKO JARRERAK

- *Zergatik jarraitzen duzu berarekin? Zer egin duzu zuk gizona hain biolento izateko? Egoerarekin benetan amaitu nahiko bazenu, joan egingo zinateke bezalako esaldien bidez pazientea errudun egin.*
- Arazoa bikote gatazka soiltzat jo edo bikote terapiara bidali. **Bikote terapia guztiz kontraindikatu dago,** emakumearen bizitza arrisku handiagopean jarri baitaiteke, baterako bitartekaritza sesioekin bezala.
- Ezin dira norberaren irizpide eta erabakiak inposatu. Inposaketaren bitartez bultzatzea erasotzailearen estrategia berdina erabiltzea suposatzen du.
- Indarkeria matxistaren inguruko aurreiritziak adierazi. Ezinbestekoa da indarkeriarekiko norberaren balio, sinesmen eta jarreraren inguruko gogoeta egitea.
- Presazko erantzunak edo erantzun azkarrak ematea saihestu.
- Dena erraz konponduko delako ustea ematen saiatu, itxaropen faltsuak eman.
- Patologizatu, emakumea juzgatu, aholkuak eman, guraso-jokabideak eduki edo azalpen edo esaerekin hura biktimizatu.



- Genero indarkeriaren edo biktimen inguruko mito eta estereotipoetan erori.
- Emakumeak hartu behar lituzkeen erabakiak hartu.
- Momentu horretan edo modu horretan lagunduta izan nahi ez duen edo ezin duen pertsona bat lagundu nahi izateagatik etsipena adierazi.

## **ESKU-HARTZE OSOAN ZEHAR EZARTZEKO GOMENDIOAK**

- Interesa, konfidantza eta segurtasuna transmititu, konfidentzialtasuna nabarmenduz.
- Eskuragai dauden baliabide guztiak jakinarazi.
- Aukerak baloratzen lagundu.
- Ahotsaren tonu baxua, errespetuzko jarrera eta jarrera lasaia, pertsonan zentratua, aurpegi-adierazpen leuna, elkar ulertze jarrera.
- Ukitze fisikoa eraginkor eta egokia izango da soilik emakumeak hitzez eskatzen duenean edo berak hasten duenean.
- Profesionalak bere izen eta laneko telefonoa emango ditu.
- Gertaerak kontatzen utziko zaio, modu nahaspilatsuan bada ere. Biktimak ematen duen informazioa argitu eta antolatzen duen arte itxaroten jakin behar da, bereziki indarkeriaren justifikazio gabeziarekin erlazionatutako informazioa denean. Ondoren profesionalak egituratuko du.
- Denbora emango zaio bere emozioak adierazteko. Negarraren agerpena, amorrutxoak, hitzezko agresibitatea eta garrasiak onartu, baldin eta baretasuna berbidieratzen bada. Profesionalak lasaitasuna eman behar du, tonu lasaian hitz egin.
- Prozesu, baliabide eta zerbitzuen inguruko bere zalantza eta beldurrak adierazteko tartea emango zaio.

## **GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEAK ARTATZEN DITUGUNONGAN EMATEN DIREN ONDORIOAK**

Puntu honetan indarkeriaren inguruan lan egiteak gudan eragin dezakeen higadura emozionalari buruzko gogoeta egin nahi dugu, zeren sufrimendu eta jazoera traumatikoen kontaketeekin harremana edukitzeak gu sentibera bihurtu eta izaera emozionaleko higadura bat eragitera irits baitaiteke.

Alde batetik, artatzen ditugun pertsonen erantzun desberdinei aurre egin behar diegu (laguntza eskaerak, eskuordetzea erabaki hartzeetan, eskakizunak, hainbat proposamenekiko errefusa, konpromisorik gabeko mendekotasun pasiboa keza, axolagabekeria...), eta, bestetik, esku-hartzearen izaerari, premiazkoa edo krisialdikoa.

---

## **ESKU-HARTZEAN GENERO IKUSPEGIA GEHITZEKO GOMENDIOAK**

--

Berdintasunean eta sexu, sexu –orientazio, arraza, erlijio eta abarren inguruko diskriminazio eta indarkeria ezan sinesten duen gizarte baten eraikuntza gure gizarteko pertsona eta estamentu guztiei dagokien erronka da.

PSIKOLOGIAK, pertsonen buru, portaera eta emozioen dimentsioaren inguruan, inkontziente eta barnekoenetik sozial eta komunitatearena dena arte, jarduten den jakintza arlo gisa, bere jakituria eta zereginaren bitartez pertsona guztien erabateko galarpena galarazten duen oro aldatzen laguntzeko beharra eta ahalmena du.

Honek hurrengo suposatzen du: edozein diskriminazioren, hauek iraunarazten dituzten egituren eta hauek justifikatzen dituzten sinesmenen inguruan gogoeta egitea eta aldi berean gizakien artean eta inguruarekin harremanak edukitzeko eredu desberdin bat, **BERDINTASUN ETA TRATU ONEKO** eredu bat, eratzen joatea.

Hurrengo hauetan sakondu beharko dugu: mundua eta gainontzeko pertsonak ulertzeko beste modu hau gehitzeak dakartzan ondorioak, desberdintasunak beldurra eta mesfidantza sortzen duten zerbait bezala barneratu ordez gehitzen eta aberasten duten zerbait bezala nola txertatu, botere harremanak berdintasunezko harremanetan nola bihurtu.

Gure lanean gehitu beharreko **GOMENDIO** batzuk:

1. Terapeuta bezala norberaren JARRERA ETA SINESMENAK BERRAZTERTU, AURREIRITZIAK sortzen baitituzte eta hauek JOKABIDE zehatz batzuk eragiten dituzte.
2. Genero-identitateak zalantzan jarri behar dira eta ez ziurtzat eman gaur egun ezagutzen ditugunak osasuntsuenak direnik, eta ESTEREOTIPO ETA ROLAK eta hauen ondorioak berraztertu egin behar dira, baita artatzen dugun pertsonaren aukeratutako edo hartutako identitatearekiko egokitzapena ere.
3. DESBERDINTASUNAK NORMALIZATU: bikote, sexu, identitate, gaitasun, bizitzeko modu eta abarren aukera desberdinak, haiek IKUSGAI EGINEZ.
4. Beste errealitate hauek kontuan hartzen dituen HIZKERA INKLUSIBO eta ez-sexista erabili: aipatu, estereotipoak ezabatu, emakumeei balioa kentzen dieten topikoak hauteman, etab.
5. IDENTITATE HEGEMONIKO edo/eta bata bestearen MENPEKO diren identitateak ez sustatu. Botere harremanak gainditzen dituzten berdintasunezko identitateak bultzatu.
6. MATERIAL eta EDUKIAK berrikusi, aniztasuna barne hartu.

Psikologian, orokorrean, gure jarduera-eremuan ikuspegi hau barne hartzeko erronka izaten dugu, baita ere prozesuak eta gure laneko hainbat alderdi hobeto ulertzeko dimentsio soziala ematen diguten ikerketa, prestakuntza eta esku-hartzeetan GENERO ALDAGAIA ANALISI KATEGORIA BEZALA BARNE HARTZEko erronka.

Guzti honek EREDU METODOLOGIKO TEORIKOAK eta KONTZEPTUALAK eta TRESNAK sortzea suposatzen du, berdintasunezko harremanak ezartzeko gaitasun berrien ebaluazioa ahalbidetuko dizkigutenak, baita gure programen eta esku-hartzeen ERAGINA baloratzea ere, honen ostean genero arraila sakondu den edo berdintasunezko eta osasungarriak diren harremanetarako aldaketa bultzatzen duten behatuz.

Laburbilduz, gure esku-hartzean emakumeen AHALDUNTZEA sustatu behar dugu desparekotasuna ezabatzeko modu gisa; sexu diskriminaziorik gabeko jarrera, jokabide, gaitasun eta abarren garapena eta sentitzeko eta bizitzeko modu desberdinez osatutako eredu malguen eraketa ahalbidetuko dituzten IDENTITATE GENERIKOAK BERREGIN behar ditugu eta harreman terapeutikoan BERDINTASUN GUNE BAT SORTU behar dugu.

Gure helburua gomendio hauekin gure lan, bikaintasun eta eraginkortasuna hobetzen eta berdintasunezko eta bidezko eredu sozial eta erlazional osasuntsuen sustapenean aurrerapenak sortzen lagunduko digun gogoeta emankor bat eragitea da.

# BIBLIOGRAFIA

- **Altable, Ch.** (1998). Penélope o las trampas del amor. Valencia: Nau.
- **Altable, Ch.** (2001). Educación sentimental y erótica para adolescentes. Miño y Dávila Editores.
- **Arango Cálad, C.** (2002). “Los vínculos afectivos y la Estructura social. Una reflexión sobre la Convivencia desde la Red del Buen Trato de Cali” Colombia
- **Barberá, E. y Martínez-Benlloch, I.** (2004). Psicología y género. Madrid. Pearson Educación S.A.
- **Basaglia, F. O.** (1978). La Mujer y la Locura. En Marcos, S. Antipsiquiatría y Política, nº 68 p. 168 Edit. Extemporáneos.
- **Basaglia F.** (1983) Mujer locura y sociedad. Universidad Autónoma de Puebla
- **Beauvoir, Simone de,** (1981) El segundo sexo. Buenos Aires, Siglo XX (1949 Le Deuxième Sexe).
- **Benhabib Seyla** (1992) Situating the Self. Gender, Community and Postmodernism in Contemporary Ethics. Routledge, New York.
- **Bergara, A., Riviere, J. Y Bacete, R.** (2008). Los hombres, la igualdad y las nuevas masculinidades. Vitoria-Gasteiz EMAKUNDE-Instituto Vasco de la Mujer.
- **Bosch, E., Ferrer, V., García, E., Ramis, M.C., Mas, M.C., Navarro, C. y Torrens, G.** (2007). Del mito del amor romántico a la violencia contra las mujeres en la pareja. Madrid: Instituto de La Mujer, Ministerio de Igualdad. (Documento disponible en: (<http://www.migualdad.es>))
- **Bonino, L.** (2004). Desvelando los micromachismos en la vida conyugal Ed Paidós
- **Bonino, L** (2008). Micromachismos, el poder masculino en la pareja “moderna”. En J.A. Lozoya y J.C. Bedoya. Voces de hombres por la igualdad.
- **Bowlby, J.** (1951). Cuidado Materno y Salud Mental, (Maternal Care and Mental Health), Organización Mundial de la Salud (OMS).
- **Bowlby, J., Ainsworth, M.** (1967). Child Care and the Growth of Love. London: Penguin Books
- **Buelga, S. y Musitu, G.** (2009). Psicología Social Comunitaria. México: Trillas.
- **Dutton, D.G. y Painter, S.L** (1981). Traumatic bonding: The development of emotional attachment in battered women and other relationships of intermittent abuse. Victimology: An International Journal, 6, 139-155.
- **Dutton, D.G. y Painter, S.L.** (1993). The battered woman syndrome: Effects of severity and intermittency of abuse. American Journal of Orthopsychiatry, 64, 614-622.

- **Benjamin, J.** (1988). *The Bonds of Love*, London: Virago Press. (Trad. Cast.: *Los lazos de Amor*. Barcelona: Paidós, 1996).
- **Bonino, L.** (2008). *Micromachismos, el poder masculino en la pareja "moderna"*. En J.A. Lozoya y J.C. Bedoya. (Eds.) *Voces de hombres por la igualdad*. <http://vocesdehombres.files.wordpress.com/2008/07/micromachismos-el-poder-masculino-en-la-pareja-moderna.pdf> consultado online en junio 2016.
- **Bronfenbrenner, U.** (1979). *The ecology of Human Development*. Cambridge, Harvard University Press. (Trad. Cast.: *La ecología del desarrollo humano*. Barcelona, Ediciones Paidós, 1987).
- **Bronfenbrenner, U.** (1999). *Environments in developmental perspective: theoretical and operational models*. En S.L. Friedman (Ed.), *Measuring environment across the life span: emerging methods and concepts* (pp 3-38). Washington, DC.: American Psychological Association.
- **Castells, M. y Subirats, M.** (2007). *Mujeres y hombres ¿un amor imposible?* Madrid. Alianza.
- **Consejo General del Poder Judicial**, (2006): *La violencia de género: la Ley de protección integral, implantación y estudio de la problemática de su desarrollo*.
- **Coria, C.** (2011). *El amor no es como nos contaron ni como lo inventamos*. Editorial Paidós.
- Coria, C., Covas, S. y Freixas, A. (2005). *Los cambios en la vida de las mujeres*. Editorial Paidós
- **De Miguel Álvarez, A.** (2006): *La violencia de género: la Ley de protección integral, implantación y estudio de la problemática de su desarrollo*. Consejo General del Poder Judicial.
- **Dongil, E.** (2009). *Trastorno por estrés postraumático*. consultado online en junio 2016 <http://www.ucm.es/info/seas/comision/tep/tep/index.htm>.
- Esteban, M<sup>a</sup> L., Távora, A. 2008 *El amor romántico y la subordinación social de las mujeres: revisiones y propuestas* *Anuario de Psicología*.2008, vol. 39, nº 1, 59-73, Facultat de Psicologia Universitat de Barcelona.
- **Esteban, M<sup>a</sup> L.** "Crítica del pensamiento amoroso" Ed. Bellaterra 2011.
- **Fernández-Llebrez, F. y Caro, M<sup>a</sup> A.** (2010). *Buenos tratos: prevención de la violencia sexista*. Talasa.
- **Ferreira, Graciela** (1995). *Hombres violentos, mujeres maltratadas*. Buenos Aires: Sudamericana. 2<sup>a</sup> edición.
- **Foucault, M.** (1994). *Estrategias de poder*, Barcelona: Paidós.
- **Frankel, J.** (2002). *Explorando el concepto de Ferenczi de identificación con el agresor. Su rol en el trauma, la vida cotidiana y la relación terapéutica*. *Aperturas Psicoanalíticas*, 11, consultado online en junio 2016 <http://www.aperturas.org/articulos.php?id=0000201&a=Explorando-el-concepto-de-Ferenczi-de-identificacion-con-el-agresor-Su-rol-en-el-trauma-la-vida-cotidiana-y-la-relacion-terapeutica>.
- **Freire, P.** (1970). *Pedagogía del oprimido*. Nueva York: Herder y Herder.
- **Hazan, Cindy; Shaver, Phillip R.** (1990). *Love and Work An Attachment-*

Theoretical Perspective. Source: Journal of Personality and Social Psychology, August 1990 Vol. 59, No. 2, p.270.

- **Heise L, Ellsberg M, Gottemoeller** (1999), M.Ending violence against women. Population Reports, series L, nº 11. Baltimore: Johns Hopkins University School of Public Health.
- **Jáuregui Balenciaga I.** (2006) Mujer y Violencia . Nómadas. Revista Crítica de Ciencias Sociales y Jurídicas I 13 (2006.1)
- **Lagarde, M.** (1998). Claves feministas para el poderío y la autonomía de las mujeres. Managua. Puntos de Encuentro.
- **Lagarde, M.** (2005). Para mis socias de la vida, Claves Feministas par el poderío y la autonomía de las mujeres. Los liderazgos entrañables, las negociaciones en el amor. Horas y Horas.
- **Lomas, C.** (2004). Los chicos también lloran. Identidades masculinas, igualdad entre los sexos y coeducación. Paidós.
- **Long, G.M. y McNamara, J.R.** (1989). Paradoxical punishment as it related to the battered women syndrome. Behavior modification, n13, pps 192-205.
- **Lorente Acosta, M. y Lorente Acosta, J.A.** (1998). Agresión a la mujer: maltrato, violación y acoso. Ed Comares.
- **Lorente Acosta, M.** (2003). «Lo normal de lo anormal: raíces y frutos de la violencia contra las mujeres» en Fundación Seminario de Investigación para la Paz (eds.) Pacificar violencias cotidianas, Zaragoza, Gobierno de Aragón, , pp. 169-192.
- **Lorente,** 2006 “El rompecabezas, anatomía del maltratador”, Ed. Crítica.
- **(Lorente-Acosta, Lorente-Acosta y Martínez-Vilda,** 2000). Consultado online en junio 2016 Síndrome de agresión a la mujer. Síndrome de maltrato a la MUJER Revista Electrónica de Ciencia Penal y Criminología 2000 [http://criminnet.ugr.es/recpc/recpc\\_02-07.html](http://criminnet.ugr.es/recpc/recpc_02-07.html)
- **Martínez Benlloch, I.; Pastor, R.; Bonilla, A.; Tubert, S.; Dio Bleichmar, E. y Santamarina, C.** (2000). Sistema sexo/género, identidades y construcción de la subjetividad. Valencia. PUV (Publicaciones de la Universitat de València).
- **Martínez Benlloch, I** (2004). Diferencia sexual y salud: Un análisis desde las políticas de igualdad de género. En E. Barberá e I. Martínez Benlloch (coord). Psicología y Género. (pp 295-323): Madrid: Prentice-Hall Internacional. Pearson.
- **Martínez Benlloch, I.** 2006 Módulo: “Actualización de conceptos en perspectiva de género y salud” en “La aplicación del enfoque de género al estudio de la salud: El Programa de Formación de Formadores/as en Perspectiva de Género en Salud”. Ministerio de Sanidad y Consumo .
- **McAdams, D. P., & Pals, J. L.** (2006). "A new Big Five: Fundamental principles for an integrative science of personality." American Psychologist, 61, 204-217.
- **Mendoza Sierra, León Jariego, Orgambidez Ramos y Borrego Alés** (2009) Evidencias de validez de la adaptación española de la Organizational.

Empowerment Scale. Revista de Psicología del Trabajo y de las Organizaciones. Volumen 25, Número 1, Páginas 17-28. Editor Colegio Oficial de Psicólogos.

- **Money, John** (1955). Hermaphroditism, gender and precocity in hyperadrenocorticism: Psychologic findings. Bulletin of the Johns Hopkins Hospital n° 96: 253–264.
- **Morillas, Patró y Aguilar** (2011) Victimología: un estudio sobre la víctima y los procesos de victimación. Madrid. Dykinson.
- **Murguialday, C. y Vázquez, N.** (2005). Violencia contra las mujeres. Se puede consultar en web Diccionario de Acción Humanitaria.
- **Nicolás, L.** (2005). El acoso laboral a través de la comunicación. En J.A. Valero y M. Lamoca (Eds.), Recursos Humanos, Madrid: Tecnos.
- **Nogueiras, B.** (2005). Factores de vulnerabilidad en la violencia contra las mujeres. Instituto de la Mujer.
- **Ogden, P., Minton, K. y Pain, C.** (2006). Trauma and the body A sensoriomotor Approach to psychotherapy. W.W .Norton & Company. New York, USA. (Trad. cast.: El trauma y el cuerpo un modelo sensoriomotor de psicoterapia. Bilbao: Desclée de Brouwer.2009)
- **Sanpedro, P.** (2005). El mito del amor y sus consecuencias en los vínculos de pareja. Disenso, 45.  
Disponible en: <http://www.pensamientocritico.org/pilsan0505.htm> .
- **Seligman, M.E.P.** (1975). Helplessness: On depression, development and death. San Francisco, CA: Freeman.
- **Serrano Hernández, C.** (2012) “Un estudio sobre los efectos de la violencia de género en el desarrollo psíquico de las mujeres”. Bilbao, Tesis doctoral.
- **Pastor Carballo, R., Ocón Giménez, A.** (1998) Conocimiento, sistema cognitivo y relaciones sexo/género. Ed. Serrano Villalba.
- **Rappaport, J.** (1977). Community psychology: Values, research and action. Nueva York: Rinehart and Winston.
- **Riviere, J.** (2011). Los hombres el amor y la pareja. I Congreso Iberoamericano de Masculinidades y Equidad. Barcelona.
- **Rojas Marcos, L.** (1996). Las semillas de la violencia. Barcelon, Círculo de lectores.
- **Romero Sabater, I.** (2015) Guía de Intervención en casos de Violencia de Género. Una mirada para ver.
- **Rosenkrantz P., Vogel S., Bee H., Broverman D. y Broverman D. M.** (1968) Sex-role stereotypes and self-concepts in college students. Journal of consulting and Clinical Psychology.
- **Rubin, G.** (1975). El tráfico de mujeres: Notas sobre la "economía política" del sexo. Nueva antropología, Vol. VIII, n°30, México. : 95-145
- **Rubin, G.** (1984) "Reflexionando sobre el sexo: notas para una teoría radical de la sexualidad", en Biblioteca Virtual de las Ciencias Sociales,

- **San Miguel, M.T.** (2006). Apego, trauma y violencia: comprendiendo las tendencias destructivas desde la perspectiva de la teoría del apego. *Aperturas Psicoanalíticas*, 24, consultado online en junio 2016 <http://www.aperturas.org/articulos.php?id=423&a=Apego-trauma-y-violencia-comprendiendo-las-tendencias-destructivas-desde-la-perspectiva-de-la-teoria-del-apego>
- **Sanz, F.** (1997). *Psicoerotismo masculino y femenino*. Kairós.
- **Sanpedro, P.** (2005). El mito del amor y sus consecuencias en los vínculos de pareja. *Disenso*, 45.  
Disponible en: <http://www.pensamientocritico.org/pilsan0505.htm> .
- **Sanz, F.** (2000). *Los vínculos amorosos*. Kairós 1995
- **Sanz, F.** (2004). Del mal trato al buen trato. En Ruiz-Jarabo Quemada, C. y Blanco Prieto, P. directoras de. *La violencia contra las mujeres. Prevención y detección*. Ediciones Díaz de Santos. (págs 1-14) Madrid – Madrid. 269 págs.
- **Schuler, M.** (1997). Los derechos de las mujeres son derechos humanos: la agenda internacional del empoderamiento. En León, M., *Poder y Empoderamiento de las mujeres*. Santafé de Bogotá.
- **Sen, G.** (1994). *Health, Empowerment and Rights; Power and Decision: The Social Control of Reproduction*. Harvard Centre for Population and Development Studies.
- **Serrano, C.** (2010). Otra forma de entender el desarrollo psíquico de las mujeres (II): Claves para los profesionales de la salud mental. *Clínica e Investigación Relacional*. Consultado online en junio 2016.  
[http://www.psicoterapiarelacional.es/Portals/0/eJournalCeIR/V4N3\\_2010/07\\_Serrano\\_Otra-forma-entender-desarrollo-psiquico-mujeres\\_CeIR\\_V4N3.pdf](http://www.psicoterapiarelacional.es/Portals/0/eJournalCeIR/V4N3_2010/07_Serrano_Otra-forma-entender-desarrollo-psiquico-mujeres_CeIR_V4N3.pdf)
- **Serrano Hernández, Carmina** (2013) Un estudio sobre los efectos de la violencia de género en el desarrollo psíquico de las mujeres. Tesis Doctoral 2013 (ARI) Consultado online en junio 2016 [http://terapiaygenero.org/images/pdf/CarminaSerrano\\_Tesisdoctoral2013.pdf](http://terapiaygenero.org/images/pdf/CarminaSerrano_Tesisdoctoral2013.pdf)
- **Siegel, D.** (1999). *The developing Mind. How relationships and the brain interact to shape who we are*. New York: Guilford Press. (Trad. Cast.: *La mente en desarrollo. Cómo interactúan las relaciones y el cerebro para modelar nuestro ser*. Bilbao: Desclée de Brouwer, 2007).
- **Stoller, R.** (1968). *Sex and gender*. Science House. New York. Hogarth Press and Institute of Psychoanalysis. London.
- **Tavora, A.** (2007). El amor de pareja en la construcción de la identidad de las mujeres. En Congreso Estatal “De las casas de acogida a los Centros de Atención Integral” (pp. 80-94). Madrid: Instituto de la Mujer.
- **Walker, L.** (1979) *The Battered Women*. Nueva York. Harper and Row Publishers, Inc.
- **Walker, L.** (2012) *El Síndrome de la mujer maltratada*. Desclée de Brouwer,
- **Woodward J.** (1997), *Construction Project Management*, Thomas Telford, London.



